2 0 1 9

LURRALDE TXOSTENAK

# EUSKADIKO BAZTERKERIA ETA GARAPEN SOZIALARI BURUZKO TXOSTENA

INTEGRAZIO ETA BEHARRIZAN SOZIALEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK 2018

FUNDACIÓN FOESSA
FOMENTO DE ESTUDIOS SOCIALES
Y DE SOCIOLOGÍA APLICADA

Caritas

# Euskadiko bazterkeria eta garapen sozialari buruzko txostena

## Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkestaren emaitzak 2018

FUNDACIÓN FOESSA
FOMENTO DE ESTUDIOS SOCIALES
Y DE SOCIOLOGÍA APLICADA

**Koordinazioa**

| | |
|---|---|
| Guillermo Fernández Maíllo | FOESSA Fundazioaren Batzorde teknikoko kidea |

**Azterketa eta idazketa**

| | |
|---|---|
| Raúl Flores Martos | FOESSA Fundazioaren idazkaritza teknikoa |
| Pedro Fuentes Rey | FOESSA SIIS Fundazioaren kolaboratzailea |
| Idoia García Goikoetxea | FOESSA SIIS Fundazioaren Talde Teknikoko |
| Gabriela Monge Sarango | Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa |
| Raquel Sanz Álvarez | Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa |
| Daniel Rodríguez de Blas | FOESSA SIIS Fundazioaren kolaboratzailea |
| Joseba Zalakain Hernández | Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa |

**Laginaren diseinua**

| | |
|---|---|
| Manuel Trujillo Carmona | Ikasketa Sozial Aurreratuen Institutua |

**Landa-lana**

Azterketa eta Ikerketa
ATREVIA

Madril, 2019

© FOESSA FUNDAZIOA
Embajadores, 162
28045 Madril
informacion@foessa.org
www.foessa.es

© Cáritas Española Editores
Embajadores, 162
28045 Madril
Tel.: 91 444 10 00
publicaciones@caritas.es
www.caritas.es

ISBN: 978-84-8440-771-3

Lege-gordailua: M-19204-2019

Aurreinprimatzea eta inprimatzea:

ADVANTIA, Comunicación Gráfica, S. A.
Formación, 16. Los Olivos industriagunea
28906 Getafe (Madril)

Espainian inprimatua/Printed in Spain

# Aurkibidea

**Sarrera** .......... **7**

**0. kapitulua. Laburpen exekutiboa** .......... **11**

**1. kapitulua. Euskadiko bazterkeria eta garapen sozialaren testuingurua ikuspegi erkatuan** .......... **23**

1.1. Testuinguru soziodemografikoa .......... 25
1.2. Ekoizpen-egitura eta familien gastua (*) .......... 31
1.3. Lanaren bilakaera .......... 35
1.4. Diru-pobrezia, gabezia materiala eta desberdinkeria .......... 39

**2. kapitulua. Gizarte-integrazioa Euskadin** .......... **49**

2.1. Euskadiko gizarte-integrazioaren egoera .......... 52
2.2. Zer lotura dago gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia ekonomikoaren artean? .......... 55
2.3. Gizarte-bazterkeria xedarritzen duten hiru ardatzak .......... 58
2.4. Gizarte-bazterkeriarekiko dugun ikuspegia zehazten duten dimentsioak .......... 61

**(*)** Itzultzailearen oharra: txosten honetan familia hitza erabili da bai familia izendatzeko baita gaztelaniazko hogar adierazteko ere.

**3. kapitulua. Gizarte-bazterkeria jasaten duten euskal familien ezaugarriak .......... 69**

3.1. Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa familia-euskarriaren ikuspegitik .......... 72
a. Adinaren araberako intzidentzia eta banaketa .......... 72
b. Sexuen arteko aldea gizarte-bazterkerian .......... 74
c. Ikasketa-maila faktore babesletzat .......... 76
d. Lan-egoera eta gizarte-bazterkeriarekin duen lotura .......... 79
e. Nazionalitatea arrisku-faktoretzat .......... 82
3.2. Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa familien oinarrizko ezaugarrien arabera .......... 84
a. Diru-pobreziak duen eragina familietako gizarte-bazterkerian .......... 84
b. Diru-sarrera motak duen eragina familietan .......... 86
c. Familien lan-intentsitatea .......... 89
d. Familia motak .......... 91
e. Bizitokiaren tamaina eta auzo mota .......... 94
3.3. Gizarte-bazterkeriaren profilak Euskadin .......... 97

**4. kapitulua. Gizarte-bazterkeriaren ardatz ekonomikoa .......... 103**

4.1. Oraingo egoera, bilakaera eta desberdintasun nagusiak Espainiarekin alderatuta .......... 106
4.2. Ardatz ekonomikoko adierazleak .......... 107
4.3. Lanaren prekarizazioa bazterkeriarako faktoretzat .......... 109
4.4. Diru-sarreren ahalmena gizarte-bazterkeriaren kontra babesteko, diru-sarreren jatorriaren arabera .......... 112

**5. kapitulua. Gizarte-bazterkeriaren ardatz politiko eta hiritarra .......... 117**

5.1. Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak .......... 119
5.2. Ardatz politiko eta hiritarraren adierazleak .......... 122
5.3. Partaidetza politiko eta hiritarra integrazioa eraikitzeko .......... 125
5.4. Gizarte-bazterkeriako egoerak eta hezkuntzara sartzeko baldintzak .......... 127
5.5. Etxebizitzaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko erlazioan sakontzeko gakoetako batzuk .......... 128
5.6. Osasuna, desgaitasuna, mendekotasuna eta gizarte-bazterkeria .......... 131

**6. kapitulua. Gizarte-bazterkeriaren ardatz soziala eta erlazionala** ..... **135**

6.1. Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak ..... 137
6.2. Ardatz sozial eta erlazionalaren adierazleak ..... 139
6.3. Sare soziala eta gizarte-bazterkeria ..... 140

**7. kapitulua. Euskadiko "intentsitate txikiko" eskubide sozialak: beharrak, itxaropenak, lortzeko mailak eta herritarren balorazioa** ..... **147**

7.1. Oinarrizko datu batzuk Euskadik babes sozialaren inguruan gastatutakoari buruz ..... 150
7.2. Herritarrek beren bizi-maila eta bermatu behar diren eskubide sozialak nola hautematen dituzten ..... 153
7.3. Lanari lotutako eskubideak ..... 158
7.4. Etxebizitzari lotutako eskubideak ..... 161
7.5. Errenta-bermeari lotutako eskubideak ..... 164
7.6. Zerbitzu sozialei lotutako eskubideak ..... 168
7.7. Haurren hazkuntzari lotutako eskubideak ..... 179
7.8. Mendekotasunari lotutako eskubideak ..... 182

**8. kapitulua. Metodologia** ..... **187**

8.1. Unibertsoa, lagina eta errore-marjina ..... 189
8.2. Erreferentziazko denboraldia ..... 190
8.3. Inkestaren administrazioa ..... 190
8.4. Datuen ustiapenean aintzat hartu beharreko beste aspektu batzuk ..... 190

**9. kapitulua. Glosarioa** ..... **191**

**10. kapitulua. Taulen eta grafikoen aurkibidea** ..... **199**

# Sarrera

Espainiako bazterkeria eta garapen sozialari buruzko VIII. FOESSA txostenak gure gizarteak pasadan mendeko azken laurdenetik gaur arte mantendu duen joera eta joera horrekin amai dezaketen gaur egungo haustura eta arazoak erakusten dizkigu. Eta, aldi berean, atzeraldi handiaren irteeraren eta Espainiako gizartean izan dituen ondorioen berri ematen digu.

Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkestaren laugarren edizioak (EINSFOESSA 2018) haien erradiografia erakusten digu. Inkesta honek lau edizioetan zehar (2007, 2009, 2013 eta 2018) Espainiako integrazioa aztertzeko erreferente izaten amaitu du. Izan ere, familiek eta pertsonek integrazio-bazterkeriaren ardatzean duten posizioaren arabera zer prozesutan dauden eta neurri handiagoan edo txikiagoan nola eragiten dieten ulertzen laguntzen digu.

Ardatz hori behar bezala ulertzeko ezinbestekoa da bestelako neurketak ere aintzat hartzea, eta ez soilik nagusiki elementu ekonomikoetan oinarritzen direnak, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren arrisku-tasaren neurketa tradizionalak kasu. Gure proposamenean partaidetza sozial duina eta eraginkorra ahalbidetuko duten mekanismoen kontzepzio estruktural, multidimentsional, prozesual eta dinamiko bat txertatzean datza.

Horretarako, azken 12 urteotan integrazio-bazterkeria ardatzaren analisi enpirikoa egin da, 35 adierazlerekin sortutako gizarte-bazterkeriako indize sintetikoa (ISES) oinarri hartuta. Adierazle horiek kaltetuen erabateko partaidetza soziala arriskuan jartzeko adina larritasun duten zailtasun-egoerak deskribatzen dituzte.

Iritzi diogu zailtasun-egoera desberdinak metatzen direnean gizarteko talde zehatzek bazterkeria jasaten dutela. Adierazle-multzo horrek dimentsio ezberdinak estaltzea du xede ardatz ekonomikoan (ekoizpen ekonomikoan —enplegua— edo produktu sozialaren banaketan—kontsumoa— partaidetza faltaren bidez), ardatz zibiko-politikoan (partaidetza politiko eta eskubide sozialetara sarbide falta —hezkuntza, etxebizitza eta osasuna—) eta harreman sozialen ardatzean (gatazka eta isolamendu sozialean ikus daiteke).

Azterketa horretan oinarrituta, gogoratzen dugu pobrezia eta bazterkeria krisiaren unerik okerrenean nagusitu baziren ere, gizarte-eredua hasita zegoela pixkanaka okerrera egiten, nahiz eta sinetsita geunden azkeneko hamarkadetako berrikuntza sozialekin ez genuela inor atzean uzten. Krisia narriatze horren beste mugarri bat izan zen. Zenbait urte daramatzagu hazkunde ekonomikoa izaten eta egiazta dezakegu integrazio-eremua leheneratu egin dela, baina gizarte-eredua askoz ere hauskorragoa eta prekarioagoa dela orain. Izan ere, lehenago inork ez bazuen mileurista izan nahi gaur egun nahita ere askok lortzen ez duten zerbait da. Horrez gain, ez da lortu gizarte-bazterkeriaren eremua krisi-aurreko mailetara murriztea. Diotenez, krisialdiek aukera berriak sortzen dituzte, baina gaur egun gizartea pesimista da etorkizuneko belaunaldiei dagokienez.

Txosten honetan Euskadiko gizarte-kohesioaren eredua **(1)** ikus dezakegu, Espainiarekin alderatuta. EINSFOESSA 2018 txostenean ikus dezakegu enplegua hobetzearen eta gure ongizate publikoko mekanismoen jasangarritasunaren ondorioz euskal gizartea krisialtitik irteten ari dela, eta Espainian eta gizartean orokorrean gertatu den eran, egoera berriak prekarietatea, ezegonkortasuna eta deslotura dituen oinarritzat.

Irakurleak makina bat datu eskuratuko ditu, eta, pixkanaka, Euskadiko eta Espainiako integrazio-bazterkeria ardatzak bereizgarritzat dituen ardatz, dimentsio eta adierazleak ezagutuko ditu. Horrez gain, gizarte-bazterkeria jasaten duten familien ezaugarriak xeheki deskribatzen dira, familia-euskarriaren eta familia osoaren ikuspegietatik.

Beste EINS-FOESSA txostenen aldean, edizio berriak EAEren biztanleek “behe intentsitateko” eskubide sozialtzat jo ditugun horien beharrei, itxaropenei eta sarbide-mailei buruz zer deritzoten eta nola baloratzen dituzten erakusten digu. Intentsitate txikiko eskubide sozialak sistema publiko eta unibertsalak bermatzen ez dituenak izango lirateke, hots: lana, etxebizitza, errenta-bermea,

**(1)** Txostenean Euskal Autonomia Erkidegoa, Euskadi eta EAE modu bereizezinean erabiltzen dira.

gizarte zerbitzuak, haurren hazkuntza eta mendekotasuna. Euskadiren kasuan, ordea, egoera oso desberdina da horietako batzuetan. Ikuspegi horrek errealitate soziala hari buruz pentsatzen denarekin uztartzen du, hori delarik herritarrek gure erabakitzaile publikoei igorritako mezua. FOESSA Fundazioak politika publikoko erabakitzaileen eta ongintzazko erakundeen aurrean erantzukizunez jardun duela erakusten digu. 1964an sortu zenetik eta Cáritasek Ondasunen Kristau Komunikazio planari euskarria emateko abiarazi zuen ikerketarekin jarraituz, 1966ko FOESSAren lehenbiziko txostenean jasotzen diren hitzak baliozkoak dira oraindik: "bizitza soziala zuzentzeko nolabaiteko ardura duenak badu exijentzia etiko bat, alegia, egia jakiteko nahiak eta behar funtzional batek bultzatuta jardun behar du, eta ez da intuiziozko eta azaleko, eta, are gutxiago, faltsututako edo simulatutako gertakarietan geratu behar, ezagutzarik ezean erabaki zuzenak hartzea zaila delako".

Amaitzeko, gogoratu behar da honako agiria beste proiektu handiago baten parte dela, gure herrialdeko autonomia-erkidego bakoitzaren integrazio-bazterkeria sozialaren errealitatea txosten desberdinetan deskribatzeaz gainera VIII. Espainiako bazterkeria eta garapen sozialari buruzko FOESSA Txostenari atxikitzen zaiona. Txosten autonomikoek batez ere izaera deskribatzailea dute, eta VIII. txostenak diagnostikoa egin eta testuingurua eraikitzen du, aurkezten diren datuak interpretatzeko. Arrazoi horregatik, lotura estua dute, eta biak batera irakurtzea gomendatzen da.

Sare sozialen aro honetan, informazioak eta hausnarketak karaktere gutxi batzuk baizik ez dituenean, gizarteari ikerketa zabal eta sakona eskaini nahi diogu, luzaroan egingo ditugun azterketan oinarri izateko.

# 0

# Laburpen exekutiboa

# Edukia


1. Komunitate zaharkitua, ekonomikoki dinamikoa, diru-pobreziaren tasa murriztuak dituena eta errenta-desberdintasun eta gastu sozial handikoa.. 13
2. Desberdinkeria-tasa murriztuak eduki arren biztanle behartsuenek errenta txikiagoa dute Euskadin Espainiako gainontzeko-autonomia erkidegoetan baino ........ 14
3. Gizarte polarizatua: erabateko integrazio egoeran dagoen biztanleriaren ehunekoa hazi da, baina bazterkeria-tasa orokorrak apenas murriztu dira eta bazterkeria larriak indarra hartu du ........ 15
4. Gizarte-bazterkeriaren tasak gainontzeko autonomia-erkidego gehienetan baino txikiagoak dira, baina gizarte-bazterkeria larrienak igoera kezkagarria du........ 16
5. Ardatz zibiko-politikoan, bazterkeria-egoerek biztanleen % 36ari eragiten diote ........ 17
6. Gizarte-bazterkeriako egoerak sortzen dituzten hiru dimentsioak etxebizitza, enplegua eta osasuna dira batik bat ........ 18
7. Gizarte-bazterkeria jasateko arrisku handiagoa dute familia-euskarritzat gazteak, emakumeak, etorkinak eta langabetuak dituztenek, eta baita familia ugariek eta gurasobakarrek ere ........ 19
8. Euskadin, honakoa da bazterkeria jasaten duen familia-profil nagusia: ez du pobrezia ekonomikorik jasaten, ez dauka adingaberik kargura, eta lan-merkatuan dagoen espainiar nazionalitateko pertsona bat da familia-euskarria ........ 20
9. Zerbitzu sozial publiko baloratuagoak eta normalizatuagoak, eta, aldi berean, prestazio sozialak hobetzeko presio soziala igotzearen aldeko prestasun txikiagoa ........ 20

# 0. kapitulua
# Laburpen exekutiboa

Jarraian, FOESSA Fundazioak 2018 Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkestan oinarrituz egindako ikerlanaren ondorio nagusiak azalduko ditugu, Euskadiko Bazterketaria eta Garapen Sozialari buruzko txostenean jasota datozenak. Txosten honen bidez, diru-pobrezian eta gabezia materialean oinarritzen den azterketa-eredu tradizionaletik harago integrazio-bazterkeria soziala ardatzaren ezaugarriak azaldu nahi izan dira. Parte-hartze soziala ahalbidetzen duten prozesuei esker, ikuspegi aberatsagoa dugu izateko eta gizartean egoteko moduari buruz. Ardatz horretan egotea ahalbidetzen diguten dimentsioak aztertzeak errealitate soziala hobeto ulertzen lagundu behar liguke, eta, modu horretan, politika publikoetatik jarduteko modua zuzendu errealitate horren azpian dauden dinamikei ahalik eta hobekien erantzuteko.

Jarraian, txostenetik ateratako ondorio batzuk ditugu. Osorik irakurtzen baditugu, Euskadin bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eta familien egoerari buruzko datuak ematen dizkigun deskribapen xehatua eta sakona edukiko dugu.

## 1. Komunitate zaharkitua, ekonomikoki dinamikoa, diru-pobreziaren tasa murriztuak dituena eta errenta-desberdintasun eta gastu sozial handikoa

Azkeneko hamar urteotan, Euskadiren testuinguru demografikoak ezaugarri hauek izan ditu: biztanleria-hazkuntza murriztua, zahartze-indize handia, etorkinak erakartzeko gaitasun txikia eta Espainiarekin alderatuta emankortasun-tasa zertxobait handiagoa (krisiaren hasieratik gutxiago murriztu da gainera).

Testuinguru sozioekonomikoan, Euskadiren biztanle bakoitzeko BPG handia —2007tik 2017ra, batezbestekoa 30.274 euroko/biztanlekoa zen, eta Espainian, aldiz 23.179 euroko/biztanlekoa— eta diru-pobreziaren eta desberdinkeriaren tasa txikiagoak (pobreziaren tasa kalkulatzeko bereziki estatuaren atalasea erabiltzen da) azpimarratu behar dira. Espainia osoarekin alderatuta langabezia-tasa nabarmen txikiagoak dituen eta ekoizpen-egituran industriak pisu handia duen autonomia-erkidego bat da.

Eta, horrez gain, gastu sozial handia du. Hain zuzen, Asturiasen atzetik babes sozialean biztanleko gasturik handiena erregistratzen duen autonomia-erkidegoa da, hots, Estatu osoko biztanle bakoitzaren batez besteko gastuaren %135. Izan ere, Gizarte Segurantzak, eta, bereziki, euskal erakunde autonomiko, foral eta lokalek gastu handiagoa egiten dute eta babes sozialera 655,8 euro/biztanleko bideratzen dituzte, Estatuan 315,5 euro/biztanleko bideratzen diren bitartean. Aldiz, Euskadiko administrazio nagusiak gainontzeko autonomia-erkidegoek baino askoz ere gutxiago gastatzen du babes sozialean, eta, hain zuzen ere, termino absolutu zein erlatiboetan ez dago gutxiago gastatzen duen beste administrazio nagusirik.

## 2. Desberdinkeria-tasa murriztuak eduki arren biztanle behartsuenek errenta txikiagoa dute Euskadin Espainiako gainontzeko autonomia-erkidegoetan baino

Aipatu berri dugunez, Euskadik desberdinkeria-tasa murriztuak ditu, eta, hain zuzen, esan dezakegu Euskadin krisiaren lehen urteetan erregistratutako desberdinkeriaren igoerak atzera egin duela leheneratze ekonomikoaren fasean. Horri dagokionez, Espainiako eta EAEko errenta-talde desberdinen diru-sarreren arteko aldea neurtzen duten adierazleek erakusten digute Euskadiren kasuan diru-sarrerek kezkatzeko moduko geraldia erakusten badigute ere, haien egitura igualitarioagoa dela Espainiakoa baino.

Aztertutako denboraldian, desberdinkeria-tasa horiek erlatiboki txikiak dira, eta, aldi berean, errenta txikiagoko taldeen diru-sarrerak nabarmen murrizten dira. Estatistikako Institutu Nazionalaren Bizi Baldintzei buruzko Inkestak erakusten digu beheragoko kintilaren diru-sarrerak % 24 jaitsi direla 2008tik 2017ra. Talde berdinean % 13 jaitsi dira Espainian, eta, Euskadin, aldiz, % 3,6 igo dira goragoko kintilaren diru-sarrerak.

Horrenbestez, euskal biztanle behartsuenek diru-sarreretan galera handiagoak izan dituzte euskal biztanle aberatsenek baino, baita Espainia osoko biztanle pobreenekin alderatuta ere.

### 3. Gizarte polarizatua: erabateko integrazio egoeran biztanleriaren ehunekoa hazi da, baina bazterkeria-tasa orokorrak apenas murriztu dira eta bazterkeria larriak indarra hartu du

2018ko datuen arabera, euskal biztanleriaren % 56,6 erabateko integrazion dago, % 28,2 integrazio prekarioan, % 6,4 bazterkeria egoera moderatuan eta % 8,8 bazterkeria-egoera larrian. Oro har, Euskadiko biztanleriaren % 15,2ak gizarte-bazterkeria jasaten du, alegia, zazpi pertsonatik batek –334.000 pertsona inguruk–, 2018an, bazterkeria moderatua edo larria jasaten du. Termino ebolutiboetan, ikus dezakegu 2019an integrazio-tasak nabarmen hobetu direla Euskadin, Estatu osoan baino emaitza hobeak lortu direlarik. 2013 eta 2018 bitartean, Euskadin integrazio prekarioan zegoen biztanleria nabarmen gutxitu zen (% 44,8tik % 28,2ra pasa baita), eta, alderantziz, erabateko integrazio-egoeran zegoen biztanle kopurua asko igo zen (% 38,1etik % 56,6ra pasa baita). Bazterkeria-maila globalak nahiko egonkor mantendu ziren, beheranzko joera txiki batekin (2013an % 17,1 izatetik 2018an % 15,2 izatera). Guztiarekin ere, 2013an euskal gizartearen gehiengoa integrazio prekarioan bazegoen (biztanleriaren % 45 kasik), 2018an erabateko integrazio-egoeran zeudenak nagusitu ziren (biztanleriaren % 56,6).

Datuek erakusten diguten hobekuntza orokor hori argitu behar dugu: Integrazioaren eremuan egoera hobetu egiten da argiro, baina tamainaz ez da hazten. Bazterkeriaren eremuan, aldiz, bilakaera ezkorra ematen da: bazterkeria-tasa orokorrak apenas murrizten dira, eta bazterkeriaren eremuan bazterkeria larria nagusitzen da, 2013an % 5,3 izatetik 2018an % 8,8 izatera pasa baita. Ondorioz, esan dezakegu Euskadin nolabaiteko polarizazio soziala dagoela, erabateko integrazioa eta bazterkeria larria hazten doazen heinean tarteko kategoriak nabarmen murrizten direlako (integrazio prekarioan eta bazterkeria moderatuan dagoen biztanleriaren ehunekoaren arteko batura % 56,6tik % 34,6 izatera pasatzen da).

Gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonek ere lotura dute polarizazioaren ideia horrekin. Izan ere, neurri handiagoan uste dute krisia hasi zenetik bizi-baldintza askoz okerragoak dituztela. Bazterkeria-egoeran daudenen % 57,9ak deritzo okerrago bizi dela orain –% 33,3ak uste du asko okerragotu dela gainera– baina ehuneko hori % 40,2ra murrizten da integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan.

## 4. Gizarte-bazterkeriaren tasak gainontzeko autonomia-erkidego gehienetan baino txikiagoak dira, baina gizarte-bazterkeria larrienak igoera kezkagarria du

Egindako gastu sozial handiagoarekin eta pobrezia-, langabezia- eta desberdinkeria-tasa txikiagoekin bat etorriz, Euskadiren bazterkeria-tasak Espainia osoko txikienak dira. Zentzu horretan, Euskadirekin batera ipar-erdialdeko eta Kantauriar eskualdeko autonomia-erkidegoek —Errioxa, Kantabria, Asturias, Gaztela eta Leon eta Nafarroa— dituzte bazterkeria-tasarik txikienak. Euskadin, bazterkeriak nagusitasuna galtzen du, bazterkeria moderatuari dagokionez bereziki; izan ere, bazterkeria larriaren tasak Estatuko batez bestekoen pare mantentzen dira. Azkeneko datu horrek oraindik aztertu ez den hipotesi berri bat ematen digu, alegia, gastu sozial handiagoa egitearen arazoa berez ez izatea haren bolumena, biztanle-profil eta -talde desberdinetan banatzeko era baizik.

Gainera, erabateko integrazio-egoeran dagoen biztanleriaren ehunekoa zertxobait handiagoa da (Estatu osoan % 48,4koa eta Euskadin % 56,6koa), eta, hain zuzen, EAE —Errioxarekin eta Gaztela eta Leonekin batera— erabateko integrazio-tasarik altuenak erregistratzen dituen autonomia-erkidegoetako bat da.Aipatu behar da Euskadin erabateko inklusio-tasa orokorrak areagotu badira inklusio prekarioaren eremua murrizteagatik —hau da, biztanleak erabateko itntegraziotik gertuago egoteagatik— izan dela. Beste muturrean, azpimarratu behar da -lehen aipatutako kronifikazio- eta polarizazio-arriskuaren ideia indartzen du- pertsonen ehunekoa asko igotzen dela FOESSAren Gizarte-bazterkeriaren Adierazle Sinstetikoaren azkeneko bi tarteetan, % 0,9tik % 5,4ra pasa baita. 2013an, bazterkeria larria jasaten zuten pertsonen % 13a zegoen azkeneko tarte horretan. 2018an % 48 izatera pasa ziren. Litekeena da lehen aipatutako bazterkeria-egoeren larriagotze eta kronifikazioa gertatu izana (bateragarriak dira erabateko integrazio-egoeran dauden pertsonen kopurua igotzearekin).

Bazterkeria-egoerak larriagotu egin dira bazterkeriarik larriena jasaten duten pertsonek zailtasun bat baino gehiago metatu dituztelako. Talde honetako pertsonek mekanismo pertsonalak, familiarrak eta babes sozial publikokoak falta dituzte, eta, edukitzekotan ere, oso narriatuta daude.

**0 GRAFIKOA**

**Biztanleen gizarte-bazterkeriaren mailak (tartekoa eta larria) autonomia-erkidegoen arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 5. Ardatz zibiko-politikoan, bazterkeria-egoerek biztanleen % 36ari eragiten diote

EAEn, biztanleen % 15,8ak bazterkeria jasaten du ardatz ekonomikoan, % 36ak ardatz zibiko-politikoan eta % 8,2ak ardatz sozial eta erlazionalean. Ardatz ekonomikoan (enplegua eta kontsumoa), bazterkeria jasaten duen biztanleriaren ehunekoa Euskadin askoz ere txikiagoa da Espainian baino (% 15,8 eta % 25,9 hurrenez hurren).

Euskadi da hain zuzen ere ardatz ekonomikoan bazterkeria jasaten duen biztanleriaren ehunekorik txikiena erregistratzen duen autonomia-erkidegoa.

Euskadin, Espainiaren aldean, gizarte-bazterkeriaren tasa txikiagoak erregistratzen dira. Horren arrazoia ardatz ekonomikoa da. Izan ere, aurreko kapituluan esaten genuen bezala, langabezia- eta pobrezia-tasak nabarmen txikiagoak dira. Dimentsio zibiko-politikoan eta sozial-erlazionalean, aldiz, bazterkeria-egoerak Espainiakoen oso antzekoak dira.

## 6. Etxebizitza, enplegua eta osasuna dira gizarte-bazterkeria gehien sortzen duten hiru dimentsioak

Euskadin, biztanleei arazo gehien eragiten dizkien dimentsioa etxebizitzarena da, % 22,2ari hain zuzen ere. Enpleguak % 14,5ari eragiten dio eta osasunak % 15,5ari. Bestalde, bazterkeria-egoerek kaltetutako biztanleen ehuneko txikienak erregistratzen ditu hezkuntzaren (%3,1), gatazka sozialaren (% 8,5) eta isolamendu sozialaren (% 2,6) eremuetan. 2013 eta 2018 arteko bilakaerari erreparatzen badiogu, enpleguaren eta etxebizitzaren dimentsioetan bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoa nabarmen jaitsi da. Hezkuntzaren, osasunaren eta gatazka eta isolamendu sozialaren dimentsioetan bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoa ere jaitsi egin da, neurri txikiagoan bada ere, eta kontsumoaren eta politikaren eta partaidetzaren eremuetan, aldiz, igo egin da.

Aipatu dugun bezala, Euskadin etxebizitzarekin lotutako arazoek eragin handia dute. Batetik, euskal biztanleriaren % 23,7ak murriztu egin behar izan ditu etxebizitzaren hornidura-gastuak (elektrizitatea, ura, gasa), % 18,5ak telefono-, telebista- edo internet-gastuak, % 9ak ezin izan ditu etxebizitzari lotutako gastuak ordaindu, eta % 5,1ak argiaren, uraren edo telefonoaren mozketa abisuak jaso ditu. Bestalde, FOESSA inkestako datuekin landu den Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi-bazterketaren Tipologiaren (ETHOS) arabera, euskal biztanleriaren % 10a etxebizitza desegoki batean bizi da, eta % 3,5a segurtasunik gabeko etxebizitza batean.

Bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren ehunekoa % 33,5 eta % 9,4 da, hurrenez hurren.

Askotan, gizarte-bazterkeriaren eta enpleguaren arteko erlazioa pobreziaren igoeraren ondorioa da. Gogoratu behar da lanean ari diren pertsonek sustengatutako familien % 11,8 bazterkeria-egoeran dagoela, eta, bereziki, gizarte-bazterkeria jasaten duten euskal familien % 47,5en kasuan, familia-euskarria lan-merkatuko lana duen pertsona bat dela.

Osasunaren dimentsioari dagokionez, biztanleriaren % 9,6ak autonomia funtzionalean mugaketaren bat du. Mugaketa larriek biztanleen % 3,6ari eragiten diote, eta arinek % 6,1ari. Euskadin, bazterkeria-egoeran dauden pertsonek mugaketa gehiago dituzte (% 23,1), integrazio-egoeran daudenek baino (%7,2). Estatu osoarekin alderatuta, biztanleek horrelako mugaketa gutxiago jasaten dituzte (% 7,1), bai integrazio-egoeran dauden pertsonek (% 6) bai bazterkeria-egoeran daudenek (% 12,3). Espainian, mugaketa horiei lotuta diferentzial handia dago integrazio- eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean. Euskadin, diferentzial hori are handiagoa da.

Jasotako laguntzei dagokionez, % 37,7ak ez du inolako laguntzarik jasotzen, eta, hala eta guztiz ere, kaltetuen ehuneko handi batek (% 41,1) ez du laguntza osoagarririk eskatzen. Alderantziz, biztanleriaren % 27,5ak laguntza ekonomikoa behar du, % 22,6ak zaintza pertsonalerako laguntza eta % 18,9ak akonpainamendu eta ikuskapenerako laguntza. Integrazio-egoeran dauden familietan mugaren bat duten pertsonek neurri handiagoan sumatzen dute zerbitzu horien falta, bazterkeria-egoeran daudenek baino. Bestalde, behar guztiak asetuta dituela deritzon biztanleriaren ehunekoa handiagoa da Euskadin (% 41,1), Espainian baino (% 32,2).

## 7. Gizarte-bazterkeria jasateko arrisku handiagoa dute familia-euskarritzat gazteak, emakumeak, etorkinak eta langabetuak dituztenek, eta baita familia ugariek eta gurasobakarrek ere

Euskadin, bazterkeria-tasa handienak jasaten dituzten familietan, familia-euskarria 30 urtez azpiko pertsona bat da (% 27,2ak gizarte-bazterkeria jasaten du), emakumezkoa da (% 19,1), ez ditu ikasketak bukatu (% 19) edo Europar Batasuneko beste herrialde bateko (% 29,9) edo Europar Batasunaz kanpoko (% 34,1) nazionalitatea dauka.

Edonola ere, bazterkeria-egoerak lan bila dabilen pertsona bat euskarritzat duten familietan nagusitzen dira (% 69,9). Edozelan ere, familiaburuak gazteak direnean izan ezik, bazterkeria-tasa txikiagoak erregistratzen dira Espainia osoan baino.

Familien ezaugarriei dagokienez, pobrezia-egoeran dauden familiek erregistratzen ddituzte bazterkeria-tasarik handienak. Dena dela, pobrezia ekonomikorik gabeko familietan ere ematen dira bazterkeria-egoerak, eta horien % 62,6a erabateko integrazio-egoeran badago ere, % 28,5ak integrazio prekarioa, % 4,9ak bazterkeria moderatua eta % 4ak bazterkeria larria jasaten dute. Berdina gertatzen da laneko edo babes sozialeko sistemaren eskutik diru-sarrerarik jasotzen ez dutenen kasuan ere, % 50,2a bazterkeria-egoeran eta % 49,8a integrazio prekarioan dagoelako.

Familia motari eta haren osaerari dagokienez, adingabeak eta gazteak dituzten familietan metatzen dira bazterkeria-egoeran dauden biztanleen ehunekorik handienak. Euskadin talde horietan ematen diren bazterkeria-egoerak aztertu eta gero, ikusi da familia ugariak eta gurasobakarrak direla bazterkeria jasateko arrisku gehien dutenak (% 27,2 eta % 20,1 hurrenez hurren). Datu horiekin alderatuta, adingabe bat duten familietan ere bazterkeria-tasa handiak ematen dira (% 22,2).

## 8. Euskadin, honakoa da bazterkeria jasaten duen familia-profil nagusia: ez du pobrezia ekonomikorik jasaten, ez dauka adingabekorik kargura, eta lan-merkatuan dagoen espainiar nazionalitateko pertsona bat da familia-euskarria

Familia-euskarriaren edo familia osoaren ezaugarrien arabera nagusitzen den bazterkeriaz harago, zein da Euskadin bazterkeria jasaten duten pertsonen profil nagusia? Bazterkeria jasaten duten familien % 38,2ren kasuan familia-euskarriak 45 eta 64 urte bitartean ditu, % 51,7ren kasuan gizonezkoa da, % 31ren kasuan bigarren mailako ikasketak ditu, % 47,5ren kasuan lan-merkatuan dago eta % 87,3ren kasuan espainiar nazionalitatekoa da. Euskadin, bazterkeria jasaten duen familia-profil nagusiak erdi-mailako ikasketak dituen, lan-merkatuan lanean ari den eta espainiar nazionalitatekoa den pertsona heldu/adineko bat du familia-euskarritzat.

Familia osoaren ezaugarriak aintzat hartuta, gizarte-bazterkeria jasaten duten euskal familia gehienak ez dira behartsuak (% 56,4a ez dago pobrezia-egoeran), laneko diru-sarrerak jasotzen dituzte soilik (% 39,9), lan-intentsitate oso txikia dute (% 37,4) bi eta lau pertsonakoak dira (% 55), ez daukate adingaberik kargura (% 70,3), eta hiru hiriburuetan (% 48,1) eta auzo onetan (% 94,2) bizi dira. Familia-profil horren ezaugarri nagusiak Espainian antzematen direnekin bat datoz –gehiengoa berdina da aztertutako aldagai guztietan–, nahiz eta estatu osoan pobreziarik jasaten ez duten eta beren kargura adingaberik ez daukaten auzo onetako familien tasa txikiagoa den.

## 9. Zerbitzu sozial publiko baloratuagoak eta normalizatuagoak, eta, aldi berean, prestazio sozialak hobetzeko presio soziala igotzearen aldeko prestasun txikiagoa

Euskal herritarrek gizarte-ongizateari lotutako zerbitzu publikoei ematen dieten erabilerari dagokionez, aipatu behar da Euskadin gizarteratzeko gutxieneko errentek estaldura oso handia ematen dutela mota horretako prestazioek Espainian ematen dutenaren aldean. Estatuko prestazioen kasuan kontrakoa gertatzen da; izan ere, langabeziatik babesteko sistemaren kasuan eta kotizaziorik gabeko prestazioen kasuan tasak zertxobait murriztuagoak dira Espainiakoak baino.

Erkaketa horretan ere aipatu behar da biztanleek Gizarte Zerbitzu Publikoak nahiz Enplegu Zerbitzu Publikoak positiboki baloratzen dituztela (gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonek bi zerbitzu horien balorazio ezkorragoa egiten dute). Gizarte-zerbitzu normalizatuagoak eta irisgarriagoak dira

Estatuan baino, eta litekeena da lehen aipatutako gastu autonomiko eta lokalarekin zerikusia izatea horrek. Zerbitzu Sozialen kasuan antzemateN da integrazio-egoeran dauden euskal biztanleek sarbide handiagoa dutela zerbitzu publikoetara, bazterkeria-egoeran daudenekin alderatuta. Euskal biztanleriaren hiru laurdenak –% 75,4ak– Gizarte Zerbitzu Publikoetara joko luke behar izanez gero. Espainian, aldiz, % 58,4ak. EAEn, Zerbitzu Sozialei balorazio positiboagoa egiten zaie –% 70,9ak iritzi dio oso ondo edo aski ondo funtzionatzen duela, espainiarren % 52,9aren aldean–.

Beraz, esan dezakegu Euskadiko Gizarte Zerbitzuen eredu publikoa Estatuan dagoenaren aldean egonkorragoa eta normalizatuagoa dela. Dena dela, ez dugu ahaztu behar bazterkeria-egoeran daudenek okerrago baloratzen dutela Gizarte Zerbitzuen funtzionamendua: egoera horretan daudenen % 37,5ak deritzo –integrazio-egoeran daudenek baino hiru aldiz gehiago jotzen dute Gizarte Zerbitzu Publikoetara– txarra edo oso txarra dela, integrazio-egoeran daudenen % 27,5aren aldean.

Azkenik, euskal gizartearen gehiengoak -% 75,3ak- iritzi dio diru publiko gehiago bideratu beharko litzatekeela Gizarte Zerbitzuetara. Ildo horretatik, % 75,6a zerga gehiago ordaintzeko prest egongo litzateke prestazio eta zerbitzu sozial gehiago jasotzearen truke, % 24,4a prestazio eta zerga gutxiago edukitzearen aldekoa den bitartean. Gizarte Zerbitzuetan gastu publikoa eta horiek finantzatzeko zerga-presioa areagotzeko joera txikiagoa dago EAEn, Estatuan baino. Litekeena da babes sozialean gastu handiagoa egitearekin lotuta egotea, lehen esan bezala. Badirudi Gizarte Zerbitzu Publikoen sistema zabal eta normalizatuak baduela kontrapartida bat, alegia, biztanleak ez daudela ados –babes-eredu hain garatuak ez dituzten beste autonomia-erkidego batzuen aldean behintzat– arlo horretan gastua handiagotzen joatearekin.

# 1

# Euskadiko bazterkeria eta garapen soziala ikuspegi erkatuan

# Edukia


**1.1.** Testuinguru soziodemografikoa .......... 25

**1.2.** Familien gastua eta ekoizpen-egitura .......... 31

**1.3.** Enpleguaren bilakaera .......... 35

**1.4.** Diru-pobrezia, gabezia materiala eta desberdinkeria .......... 39

# 1. kapitulua
# Euskadiko bazterkeria eta garapen soziala ikuspegi erkatuan

Lehenbiziko atal honetan, Euskadiko marko soziodemografiko eta sozioekonomikoaren oinarrizko azterketa bat jasotzen da, 2018ko Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkestatik (EINSFOESSA 2018) eratorritako gizarte-bazterkeriako egoeren adierazleak testuinguruan jartzeko. Egoera horiek hurrengo bi ataletan aztertuko ditugu. Datuek aipamena egiten diete testuinguru soziodemokratikoari, ekoizpen-egiturari, familien gastu-mailari, lan-merkatuaren funtzionamenduari, diru-pobreziari, gabezia materialari eta desberdinkeriari.

Edonola ere, Euskadiren egoera ikuspegi erkatuan —EAEren eta Estatuko datuak alderatzen dira— zein ebolutiboan aztertzen da —2007tik gaur arte aztertutako adierazleen aldaketa xehatuz—.

Kapitulu honetan aztertzen diren datu guztiak Estatistikako Institutu Nazionalaren bigarren mailako estatistika-iturrietatik datoz. Horien artean aipagarriak dira Etengabeko Erroldaren Estatistika eta Biztanleriaren Mugimendu Naturalaren estatistikak, Biztanleria Aktboaren Inkesta, Bizi-baldintzei buruzko Inkesta eta Familia Aurrekontuen Inkesta.

## 1.1. Testuinguru soziodemografikoa

2007 eta 2018 bitartean, **Euskadiko biztanleria % 2,4 hazi da**, hau da, 2,14 milioi biztanletik 2,19 milioi biztanlera.

**Espainia osoan baino gutxiago hazi da** (denboraldi berdinean % 3,3 igo dena), baina bizitasun demografiko eskasa duten Kantauriar eskualdeko

beste autonomia-erkidegoetan baino gehiago. **Urte arteko biztanleriaren aldakuntzak bilkaer desberdina du Euskadin edo Espainian.** EAEak **egonkortasun handiagoa eta bilakaera lauagoa izan ditu**. Oro har, krisiaren aurretik urte arteko biztanleriaren hazkuntza askoz ere txikiagoa izan zuen Estatuarekin alderatuta (2008an, % 0,7 Euskadin eta % 2,1 Espainian), eta baita krisialdiaren atzeraldian zehar ere. Urte arteko biztanleriaren beherakada oso txikia izan zen, bai urte kopuruari (2013 eta 2014) bai jaitsiera-tasari dagokienez.

## 1. GRAFIKOA
### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren bilakaera. 2007-2018




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Urtarrilaren 1eko Etengabeko Erroldaren Estatistika. 2018ko behin-behineko datuak.

Hazkuntza demografikoaren adierazleak aztertuz gero, antzematen da 2017an biztanleria gutxiago hazi zela Euskadin, Estatuan baino, eta lehenak saldo begetatibo (jaiotakoen eta hildakoen arteko aldea) okerragoa duela bigarrenak baino. 2017ko migrazio-saldoa, aldiz, positiboa da, Espainiakoaren oso antzekoa. Edonola ere, jaiotza-tasa murrizten joan da hildako mila biztanle bakoitzeko, eta, 2017an –789 jaiotza hildako 1.000 biztanle bakoitzeko–, Estatu osoan baino askoz ere txikiagoa zen.

## 1. TAULA
### Euskadiko eta Espainiako biztanleen hazkuntza-adierazleen bilakaera. 2007-2017

| | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2013 | 2017 | Dif. 17-07 | 2007 | 2013 | 2017 | Dif. 17-07 |
| Biztanleriaren hazkuntza mila biztanleko | 19,5 | -4,6 | 2,8 | **-16,7** | 7,8 | -4,5 | 1,8 | **-6,0** |
| Saldo begetatiboa mila biztanleko | 2,4 | 0,8 | -0,7 | **-3,1** | 0,6 | -0,3 | -2,1 | **-2,7** |
| Migrazio-saldoa mila biztanleko | 0,0 | -5,4 | 3,5 | **3,5** | 0,0 | -5,6 | 3,6 | **3,6** |
| Jaiotza-tasa hildako mila biztanleko | 1.281,5 | 1.092,2 | 925,8 | **-355,7** | 1.069,8 | 969,4 | 789,1 | **-280,7** |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak.

2. grafikoak Euskadiren 2007-2017ko datuak erakusten dizkigu. Horren arabera, biztanleriaren hazkuntza-erritmoa 2014ra arte pixkanaka murrizten doa, eta, gero, suspertu egiten da. Horrez gain, hilkortasun-tasa gordina hazi, jaiotza-tasa gordina murriztu –% 9,6tik % 7,9ra pasa da– eta migrazio-saldoa 2018an eta 2017an suspertu dela dirudiela ikus dezakegu.

## 2. GRAFIKOA
### Euskal biztanleen hazkuntza-adierazleen bilakaera. 2007-2017




| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mila biztanleko hazkuntza | 7,8 | 6,8 | 2,5 | 1,7 | 0,7 | -3,5 | -4,5 | -1,0 | -0,5 | 1,5 | 1,8 |
| Jaiotza-tasa gordina | 9,6 | 9,8 | 9,6 | 9,7 | 9,7 | 9,4 | 8,8 | 8,9 | 8,7 | 8,4 | 7,9 |
| Hilkortasun-tasa gordina | 8,9 | 9,0 | 9,0 | 8,9 | 9,1 | 9,3 | 9,1 | 9,3 | 9,9 | 9,8 | 10,0 |
| Migrazio-saldoa mila biztanleko | 0,0 | 4,0 | -0,9 | -2,2 | -3,6 | -5,1 | -5,6 | -2,2 | -0,1 | 1,9 | 3,6 |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak.

**Euskadiko eta Espainiako biztanleria-piramideak oso antzekoak dira**, lehenak oinarri estuagoa badu ere. Bi kasuetan, adin ertaineko taldeak dira ugarienak: Euskadin, biztanleriaren % 45ak 30 eta 60 urte bitartean ditu, % 27ak 30 urtetik behera, eta % 28ak 60 urtetik gora. Espainian, aldiz, gehiago dira 30 urtetik beherakoak, eta zertxobait gutxiago 60 urtetiko gorakoak.

## 3. GRAFIKOA
## Euskadiko eta Espainiako biztanleria-piramideak. 2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Urtarrilaren 1eko Etengabeko Erroldaren Estatistika.

Biztanleria-egiturari buruzko adierazleek beste datu interesgarri batzuk ematen dizkigute: Euskadin, batez besteko adina Espainiakoa baino zertxobait handiagoa da —azken urteotan antzeko erritmoan hazi bada ere— eta, lehen esan bezala, 64 urtetik gorako biztanleen ehunekoa handixeagoa da, eta adinez txikiko biztanleena, berriz, murriztuagoa. Ondorioz, **EAEn, zahartze-indize eta mendekotasun-tasa handiagoak daude.**

## 2. TAULA
## Euskadiko eta Espainiako biztanleria-egituraren adierazleen bilakaera. 2007-2017

| | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2013 | 2017 | Dif. 17-07 | 2007 | 2013 | 2017 | Dif. 17-07 |
| Biztanleen batez besteko adina: bi sexuetan | 40,6 | 41,8 | 43,0 | **2,4** | 42,8 | 44,1 | 45,1 | **2,2** |
| 64 urtetik gorakoak (%) | 16,5 | 17,7 | 19,0 | **2,4** | 18,4 | 20,3 | 22,0 | **3,6** |
| 0 eta 17 urte bitartekoak (%) | 17,4 | 17,7 | 17,8 | **0,5** | 14,9 | 16,2 | 16,7 | **1,7** |
| Zahartze-indizea (%+64/<16) | 106,3 | 109,5 | 118,3 | **11,9** | 137,8 | 137,3 | 145,0 | **7,2** |
| Mendekotasun-tasa (%(<16 + 65+)/16-64) | 47,3 | 51,0 | 53,8 | **6,6** | 46,6 | 54,1 | 59,1 | **12,5** |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Bestalde, aztertutako denboraldian antzematen da Euskadin ehuneko horiek murriztu egiten direla atzerriko naziotasuna duten biztanleen kasuan. Euskadin, biztanleria osoaren % 5,3 dira, eta, Estatuan, aldiz, % 9,8. Antzeko bilkaera izan dute biek, eta EAEren datu okerragoak 2007 eta 2018 bitartean arinki baino ez diren murriztu.

## 4. GRAFIKOA
## Euskadin eta Espainian atzerriko naziotasuna duten biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2007-2018




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Jaiotza-, emankortasun- eta heriotza-adierazleei dagokionez, **Euskadiren jaiotza-tasa gordinak Estatukoa baino txikiagoa da,** nahiz eta denboraldi honetan gutxixeago murriztu den. Estatuan ez bezala, EAEren emankortasun-tasa orokorra —2007an Espainiakoa baino askoz ere txikiagoa zen— apenas murriztu da krisialdian, eta 2017an gainditu egiten du gainera. **Krisiaren aurreko desberdintasunak inbertitu egiten dira.** Ama izateko batez besteko adina, Europako altuenetakoa, Euskadin gutxiago hazi da Espainian baino. Hilkortasun-tasa gordina igo egin da, eta baita gizon-emakumeen bizi-itxaropena ere.

### 3. TAULA
### Euskadiko eta Espainiako biztanleen jaiotza-, ugalkortasun- eta hilkortasun-adierazleen bilakaera. 2007-2017

| | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2013 | 2017 | Dif. 17-07 | 2007 | 2013 | 2017 | Dif. 17-07 |
| Jaiotza-tasa gordina | 10,9 | 9,1 | 8,4 | **-2,5** | 9,6 | 8,8 | 7,9 | **-1,7** |
| Ugalkortasun-tasa orokorra | 42,7 | 38,3 | 37,1 | **-5,6** | 39,4 | 40,0 | 38,0 | **-1,4** |
| Ugalkortasunaren adierazle koiunturala | 1,38 | 1,27 | 1,31 | **-0,07** | 1,25 | 1,30 | 1,34 | **0,10** |
| Ama izateko batez besteko adina | 30,8 | 31,7 | 32,1 | **1,2** | 32,2 | 32,7 | 32,9 | **0,7** |
| Hilkortasun-tasa gordina | 8,5 | 8,3 | 9,1 | **0,6** | 8,9 | 9,1 | 10,0 | **1,0** |
| Bizi-itxaropena jaiotzerakoan: guztira | 81,0 | 82,8 | 83,1 | **2,1** | 81,3 | 83,1 | 83,5 | **2,2** |
| Bizi-itxaropena jaiotzerakoan: gizonak | 77,8 | 79,9 | 80,4 | **2,6** | 77,9 | 79,9 | 80,6 | **2,7** |
| Bizi-itxaropena jaiotzerakoan: emakumeak | 84,1 | 85,5 | 85,7 | **1,6** | 84,7 | 86,3 | 86,3 | **1,7** |
| Bizi-itxaropena 65 urterekin: guztira | 19,8 | 21,0 | 21,2 | **1,4** | 20,3 | 21,4 | 21,5 | **1,2** |
| Bizi-itxaropena 65 urterekin: gizonak | 17,6 | 18,9 | 19,1 | **1,5** | 17,8 | 18,9 | 19,2 | **1,4** |
| Bizi-itxaropena 65 urterekin: emakumeak | 21,7 | 22,8 | 23,0 | **1,3** | 22,4 | 23,6 | 23,5 | **1,1** |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak.

16 urtetik gorako biztanleriaren **ikasketa-mailei** buruzko datuak oso desberdinak dira; izan ere, **Euskadin, goi-mailako ikasketak dituen pertsona kopurua askoz ere handiagoa da, Espainiaren aldean** (% 37,9 eta % 28,5 hurrenez hurren). Alderantziz, lehen eta bigarren mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko biztanleen tasa txikiagoa da.

**5. GRAFIKOA**

**Euskadiko eta Espainiako 16 urtetik gorako biztanleen banaketa, ikasketa-mailaren arabera. 2017**




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urteko lau hiruhilekoen batez bestekoa.

### 1.2. Familien gastua eta ekoizpen-egitura

2007 eta 2017 artean, EAEren BPG % 10,2 igo da, eta Espainiakoa, aldiz, % 7,6. Desberdintasun horren ondorioz, 2007an euskal ekonomia Espainiako ekonomiaren % 6 izatetik 2017an % 6,2 izatera iritsi da.

2017an, EAEren biztanle bakoitzeko barne produktu gordina 32.697 eurokoa da, Espainiako biztanle bakoitzeko barne produktu gordinaren % 131. Aldea zertxobait handiagoa da denboraldiaren hasieran zegoena baino (2007an, Euskadiko biztanle bakoitzeko barne produktu gordina Espainiako biztanle bakoitzeko barne produktu gordinaren % 127 zen). Aztertutako hamar urteotan, beraz, biztanle bakoitzeko barne produktu gordinaren diferentziala zabaldu egin da Euskadin, gutxi bada ere.

## 4. TAULA
### Euskadiko eta Espainiako BPGren bilakaera. 2007-2017

| | Espainia | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | BPG (milioitan) | Aldakuntza urte artekoa | BPG (milioitan) | Aldakuntza urte artekoa | BPGren %koa Espainia |
| 2007 | 1.080.807 | %7,2 | 65.092,0 | %6,8 | %6,0 |
| 2008 | 1.116.225 | %3,3 | 67.698,1 | %4,0 | %6,1 |
| 2009 | 1.079.052 | -%3,3 | 64.935,3 | -%4,1 | %6,0 |
| 2010 | 1.080.935 | %0,2 | 65.680,5 | %1,1 | %6,1 |
| 2011 | 1.070.449 | -%1,0 | 65.176,4 | -%0,8 | %6,1 |
| 2012 | 1.039.815 | -%2,9 | 63.818,5 | -%2,1 | %6,1 |
| 2013 | 1.025.693 | -%1,4 | 62.647,7 | -%1,8 | %6,1 |
| 2014 | 1.037.820 | %1,2 | 63.895,9 | %2,0 | %6,2 |
| 2015[1] | 1.079.998 | %4,1 | 66.482,3 | %4,0 | %6,2 |
| 2016[1] | 1.118.522 | %3,6 | 68.817,2 | %3,5 | %6,2 |
| 2017[1] | 1.163.662 | %4,0 | 71.742,8 | %4,3 | %6,2 |

[1] 2015: behin-behineko estimazioa; 2016: estimazioaren aurrerapena; 2017: lehenengo estimazioa.
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Espainiako Eskualde Kontabilitatea Balioak eurotan ematen dira.

## 6. GRAFIKOA
### Euskadiko eta Espainiako biztanle bakoitzeko BPGren bilakaera. 2007-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Espainiako Eskualde Kontabilitatea Balioak eurotan ematen dira.

Euskadiko eta Espainiako BPGren jarduera-adarren araberako banaketari eta haren bilakaerari erreparatuz gero, Euskadiren kasuan industria da nagusi. 2007 eta 2017 artean pixka bat hazi da gainera, eta gaur egun, EAEn —Nafarroaren atzetik—, industria-sektoreak dauka BPGren proportziorik handiena. Aipatu behar da eraikuntzak indarra galdu duela Euskadiko BPGean, eta zerbitzuen

sektoreak, aldiz, indarra hartu duela (denboraldi horretan % 53,8 izatetik % 57,5 izatera pasa da). Dena dela, Estatu osoko BPGean baino pisu gutxiago izaten jarraitzen du.

### 7. GRAFIKOA
## Euskadiko eta Espainiako BPGren banaketaren bilakaera, jarduera-adarren arabera. 2007-2013-2017




*Produktu baten prezioari merkaturatzean gehitzen zaizkion zergak dira. Alderdi hori produkzio osoaren balioa zehazterakoan aintzat hartzen da. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Espainiako Eskualde Kontabilitatea.

Euskal familien erosahalmenari eta gastuaren patroiei dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalaren Familia Aurrekontu Inkestaren arabera, pertsona batek egindako batez besteko gastua dezente handiagoa da Euskadin (2017an, 14.174 euro/pertsonako), Estatu osoan baino (11.726 euro/pertsonako). Gastu familiarrean gastu-multzo bakoitzak duen pisuaren arabera, aipatu behar da **gasturik handiena etxebizitzan eta horniduretan egiten dela** (% 30 Estatuan eta % 33 EAEn), eta, gasturik txikiena, berriz, garraioan (% 12,6 eta % 10,4), jantzietan eta oinetakoetan, eta aisialdian eta kulturan. Aitzitik, euskal familiek jatetxeetan eta hoteletan zertxobait gehiago gastatzen dute (% 11,5), Estatu osoan baino (% 10,3).

## 8. GRAFIKOA
## Euskadiko eta Espainiako familien gastuaren egitura. 2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familia Aurrekontu Inkesta.

2007-2017 denboraldian familia bakoitzaren batez besteko gastuaren bilkaerari erreparatzen badiogu, prezio konstanteetan askoz ere gehiago igo da EAEn (% 13,7), Espainia osoan baino (% 5,4). Edonola ere, **aipatu behar da familia bakoitzaren batez besteko gastua asko igo dela hezkuntzaren arloan**— Espainiako emaitza honak gainditzeraino —eta, osasunari, komunikazioei eta etxebizitzari lotutako gastua % 30 eta % 40 artean igo dela, hiru kasuetan Estatuan erregistratu diren datuen oso gainetik.

Gastu-multzoen arabera, familien batez besteko gastua % 11 eta % 20 artean murriztu da aisialdian eta kulturan, altzarietan eta jantzietan.

## 9. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako familia bakoitzaren batez besteko gastu-aldaketaren bilkaera (prezio konstanteetan), gastu-multzoen arabera. 2007-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familia Aurrekontu Inkesta.

## 1.3. Enpleguaren bilakaera

Epigrafe honetan, Euskadiko eta Espainiako enpleguari eta lanbideari buruzko adierazle nagusiak aztertzen dira, bi ikuspegi desberdinetatik: konparazioa eta bilakaera.

Ikuspegi konparatibotik, 2018ko datuek erakusten digute Euskadiko jarduera-tasa Espainiakoa baino zertxobait txikiagoa dela (% 56,3 eta % 58,6 hurrenez hurren), langabezia-tasa nabarmen txikiagoa dela (% 10 eta % 15,3 hurrenez hurren) eta enplegu-tasa antzekoa dela (% 50,7 eta % 49,7 hurrenez hurren).

Ikuspegi ebolutibotik, **aipatu behar da langabezia-tasa izugarri hazi zela krisialdian**, eta 2007an % 6,2koa izatetik 2013an % 16,6koa izatera pasa zela, % 10eraino murrizteko gero. Bi kasuetan lerro ebolutiboa antzekoa da, baina **Euskadin langabezia-tasak askoz ere gutxiago igo ziren**, eta 2007an ehunekoetan bi punturen aldea bazuten, 2013an kasik hamar punturen aldea izatera iritsi ziren. Diferentzial hori arinki murriztu da. 2017an, ordea, EAEren langabezia-tasa Espainiakoaren oso azpitik mantendu zen.

Euskadin, 2007 eta 2013 artean enplegu-tasa % 54,4tik % 47,9ra murriztu zen, eta, gero, % 50,7raino igo zen, Espainiako batez besteko tasarekin bat etorriz. Azkenik, jarduera-tasa egonkor mantendu da bai Euskadin bai Estatuan.

## 10. GRAFIKOA

## Euskadiko eta Espainiako jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasen bilakaera. 2007-2018




| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskadiko jarduera-tasa | 58,0 | 58,5 | 57,9 | 58,2 | 59,1 | 58,2 | 57,5 | 57,0 | 56,7 | 57,0 | 56,2 | 56,3 |
| Espainiako jarduera-tasa | 59,3 | 60,1 | 60,2 | 60,3 | 60,3 | 60,4 | 60,0 | 59,6 | 59,5 | 59,2 | 58,8 | 58,6 |
| Euskadiko enplegu-tasa | 54,4 | 54,6 | 51,4 | 52,0 | 51,8 | 49,1 | 47,9 | 47,7 | 48,4 | 49,8 | 49,8 | 50,7 |
| Espainiako enplegu-tasa | 54,4 | 53,3 | 49,4 | 48,3 | 47,4 | 45,4 | 44,4 | 45,0 | 46,4 | 47,6 | 48,7 | 49,7 |
| Euskadiko langabezia-tasa | 6,2 | 6,6 | 11,3 | 10,7 | 12,4 | 15,6 | 16,6 | 16,3 | 14,8 | 12,6 | 11,3 | 10,0 |
| Espainiako langabezia-tasa | 8,2 | 11,3 | 17,9 | 19,9 | 21,4 | 24,8 | 26,1 | 24,4 | 22,1 | 19,6 | 17,2 | 15,3 |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Iraupen luzeko langabeziari arreta ematen badiogu (hau da, hamabi hilabetez behintzat lanik egin ez duten eta lan bila dabiltzan langabeak), antzeman dezakegu 2018an **iraupen luzeko langabezia-tasa Euskadin** (biztanleria aktiboaren % 4,7) **Espainiakoa baino txikiagoa dela** (% 6,4). Multzo horren barruan, iraupen luzeko langabeak gehiago dira Euskadin (% 47,6), Espainian baino ( % 41,8).

12.grafikoan ikus dezakegunez, 2018an, aztertutako **talde** soziodemografiko guztietan (atzerritarren kasuan izan ezik) langabezia-tasa txikiagoak daude Euskadin, Estatuan baino. Espainian, 25 urtez azpikoek dituzte langabezia-tasarik handienak, eta, Euskadin, aldiz, atzerritarrek (2007an, % 26,7koa Euskadin eta % 16,4koa Espainian).

## 11. GRAFIKOA
## Euskadiko eta Espainiako iraupen luzeko langabeziaren bilakaera. 2007-2018




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Krisiaren urte okerrenekin alderatuta langabeziaren datuak hobetu badira ere, krisialdiaren aurreko egoerara bueltatzea ezinezkoa izan da, lanari dagokionez.

Hasieran aipatutako eran, txosten honetarako ohiko langabezia-neurketez gain, beste neurketa batzuk ere egin dira, eta Populazio Aktiboaren Inkestak zentzu hertsian kontabilizatzen dituen langabeekin batera, enplegu-erregulazioko espedientean aurkitzen direnak, adoregabetuta daudelako lanik bilatzen ez duten langabeak eta haien kontroletik at dauden arrazoiengatik lanaldi murriztuan daudenak hartu dira aintzat **(2)**.

Langabezia-tasa kalkulatzeko hemen aurkezten diren ordezko neurketak Felguerosok Estatu Batuetako *Bureau of Labor Statistics* lana oinarritzat hartuz egindako proposamen metodologikoaren egokitzapena dira. Horren arabera, langabetuak definizio ofizialaren arabera (U3) zenbatzen dira, eta gaur egun aintzat hartzen ez diren taldeak gehitzen dira, hau da, lanik aurkituko ez dutela

**(2)** Langabezia-tasa kalkulatzeko hemen aurkezten diren ordezko neurketak Felguerosok Estatu Batuetako *Bureau of Labor Statistics* lana oinarritzat hartuz egindako proposamen metodologikoaren egokitzapena dira. Horren arabera, langabetuak definizio ofizialaren arabera (U3) zenbatzen dira, eta gaur egun aintzat hartzen ez diren taldeak gehitzen dira, hau da, lanik aurkituko ez dutela uste dutelako bila ez dabiltzan langabeak (U4), lan egin nahiko luketen langabeak (U5) eta haien kontroletik at dauden arrazoiengatik lanaldi partzialean ari direnak (U6).

uste dutelako bila ez dabiltzan langabeak (U4), lan egin nahiko luketen langabeak (U5) eta haien kontroletik at dauden arrazoiengatik lanaldi partzialean ari direnak (U6).

### 12. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako langabezia-tasaren bilakaera talde soziodemografikoen arabera. 2007-2018




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Kasu horiek aintzat hartzen badira, era konbentzionalean neurtzen diren langabezia-egoerez gain, Euskadin langabeziari lotutako arazoak zenbaterainokoak diren eta denbora horretan zer bilakera izan duten ikus dezakegu. 2007 eta 2013 artean, Euskadin aztertutako egoeren multzoa % 13koa izatetik % 27,3koa izatera pasa zen, denboraldi horretan tasak 2,1 aldiz biderkatu zirelarik. 2013an eta 2018an, aldiz, % 29 jaitsi ziren. **Egoera horiek aztertzean antzematen dugu Euskadiren eta Espainiaren arteko diferentziala areagotu egiten dela denboraldi horretan:** 2013an, Euskadiren tasa Espainiakoa baino % 10 txikiagoa zen, eta 2018an, berriz, % 20 txikiagoa da.

**13. GRAFIKOA**
**Euskadiren langabezia-tasaren bilakaera neurketa-moten arabera. 2007-2018**




(U3) Langabezia-tasa ofiziala; (U4) eta, horrez gain: U3 lanean ez daudenak, lan egiteko eskuragarri dauden baina lana aurkituko ez duela pentsatzen dutelako lan bila ez dabiltzan pertsonak, eta enplegu-erregulazioko espedientean dauden langabeak; (U5) U4 lanik bilatzen ez duten (edozein arrazoirengatik) baina lan egiteko eskuragarri eta gogoz dauden pertsonak; (U6) U5 haien kontroletik at dauden arrazoiengatik lanaldi partzialean lanean ari diren pertsonak. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

## 1.4. Diru-pobrezia, gabezia materiala eta desberdinkeria

Lurralde zehatz baten pobrezia-arriskuaren tasak aztertzen direnean, lurralde-markoa ondo aukeratzea ezinbestekoa da

Horregatik, estatuan zein autonomia-erkidegoan ezarritako pobrezia-arriskuaren arabera kalkulatu diren pobrezia-tasak hartu dira aintzat azterketa hau egiterakoan **(3)**.

Estatuaren atalasea aintzat hartzen badugu, **Euskadin pobreziaren arrisku-tasa erlatiboa** % 9,7koa da, **Estatukoa** (% 21,6) **baino hamar puntu txikiagoa** ehunekoetan**.** % 9,1etik % 13,8ra igo eta gero.

Garrantzitsua da aipatzea diru-sarrera txikiak edo pobrezia erlatiboaren arriskua, 2017an, 8.522 euro/urtekoa dela Espainian eta 11.538 euro/urtekoa EAEn.

**(3)** Garrantzitsua da aipatzea diru-sarrera txikiak edo pobrezia erlatiboaren arriskua, 2017an, 8.522 euro/urtekoa dela Espainian eta 11.538 euro/urtekoa EAEn.

Estatuaren atalasea aintzat hartzen badugu, **Euskadin pobrezia erlatiboaren arrisku-tasa** % 9,7koa da, **Estatukoa** (% 21,6) **baino hamar puntu txikiagoa ehunekoetan.** Krisiaren hasierako fasean % 9,1etik % 13,8ra igo eta gero,adierazle hori % 10,5eraino murriztu zen 2013an, eta harrezkeroztik biztanleriaren % 10 inguruan mantendu da. Baina, atalase autonomikoa aintzat hartzen badugu –hau da, EAEko pobrezia-tasa kalkulatzeko euskal biztanleen batez besteko diru-sarrerak hartzen dira aintzat eta ez Estatu osoko biztanleenak— Estatuarekin desberdintasunak arindu egiten dira eta 2017an pobrezia-tasa % 17,5ekoa da, Estatuko pobrezia erlatiboaren arrisku-tasaren lau puntu txikiagoa ehunekoetan.

Amaitzeko, aipatu behar da aztertu diren lehenbiziko lau urteetan bi adierazleek antzeko bilakaera izan badute ere, **2012tik EAEko pobrezia-tasa erlatiboa Espainiakoa baino gehiago murriztu dela**, eta atalase autonomikoa erabilita ere, bien arteko desberdintasunak areagotu egiten direla.

### 14. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako pobreziaren arrisku-tasaren bilakaera. 2008-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

**Euskadiko eta Espainiako pobrezia-tasek bilakaera desberdina izanagatik, errenta mediana baliokideak bietan berdin bilkaernatu du:** 2008 eta 2017 artean errenta mediana baliokidea % 2 igo da, eta denboraldi osoan mantendu egin da bien arteko diferentziala (denboraldi horren hasieran zein amaieran Euskadiko errenta mediana baliokidea Espainiakoa baino % 25 eta % 30 handiagoa izan da).

## 15. GRAFIKOA
**Euskadiko eta Espainiako errenta mediana baliokidearen bilakaera (euro/urtero). 2008-2017**




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

Diru-sarrera monetarioak aparte utzita, gabezia material larriaren adierazleak oinarrizko behar batzuei aurre egiteko ezintasuna adierazten duten familien egoera neurtzen du. 16. grafikoko datuek erakusten digute krisia baino lehen Euskadin gabezia material larriaren tasa (% 2,8) Espainiakoa baino txikiagoa zela (% 3,6). Eta, krisialdian, Espainiaren antzeko igoera erregistratu zuela, 2013 eta 2014an % 4,8rainokoa hain zuzen. Gero, gabezia materialaren tasa murrizten joan da bietan, azkarrago, ordea, Espainian. Seriaren lehenbiziko eta azkeneko urtea alderatzen baditugu, Euskadiren eta Espainiaren arteko diferentziala areagotu egin da gabezia materialaren adierazleari dagokionez.

## 16. GRAFIKOA

**Euskadiko eta Espainiako biztanleen gabezia mateirla larriaren tasaren bilakaera. 2008-2017**




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

Euskadiren egoera positiboagoa da gabezia material larriaren adierazlea eratzen duten aspektu guztietan, eta, beraz, nagusitasuna galtzen du. Horri lotuta, **adierazle gehienen kasuan** esan dezakegu **Euskadiren egoera hobea zela krisia baino lehen, eta krisiaren unerik gorenean igoera neurritsuagoa izan zela**. Adibidez, urtean astebetez behintzat oporretan joateko aukerarik ez duten biztanleen ehunekoa, edo ezohizko gastuei aurre egiteko ahalmenik ez duen biztanleria. 2017an, Euskadin, biztanleen % 73ak zeukan adierazlearen bederatzi itemetara sarbidea, eta, Espainian, aldiz, % 53ak. Krisiaren aurretik zeukaten egoera berdinean dauden orain.

5. TAULA

**Euskadiko eta Espainiako gabezia materialaren adierazleen bilakaera. 2008-2017**

| | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2013 | 2017 | Dif. 17-08 | 2008 | 2013 | 2017 | Dif. 17-08 |
| Urtean astebetez behintzat oporretan joateko aukerarik ez du | 36,2 | 48,0 | 34,3 | **-1,9** | 17,2 | 26,3 | 22,1 | **4,9** |
| Ezin du bi egunetik behin haragirik, oilaskorik edo arrainik jan | 2,2 | 3,5 | 3,7 | **1,5** | 2,4 | 1,8 | 3,3 | **1,0** |
| Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu | 5,9 | 8,0 | 8,0 | **2,1** | 3,5 | 7,8 | 7,0 | **3,5** |
| Ezin die ezohizko gastuei aurre egin | 29,9 | 42,1 | 36,6 | **6,7** | 17,6 | 24,3 | 17,1 | **-0,5** |
| Azken 12 hilabeteotan epekako erosketekin edo etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan atzeratu da | 8,2 | 11,9 | 9,3 | **1,1** | 4,8 | 5,5 | 5,9 | **1,1** |
| Oinarrizko ondasun iraunkorrak edukitzeko aukerarik ez du* | 6,3 | 6,6 | 4,9 | **-1,4** | 3,8 | 4,6 | 2,3 | **-1,5** |
| Gabezia material larriaren tasa (9 itemetatik 4 ezin ditu eduki) | 3,6 | 6,2 | 5,1 | **1,6** | 2,8 | 4,8 | 3,7 | **0,9** |
| 9 itemak eduki ditzake | 53,7 | 42,9 | 53,0 | **-0,6** | 73,1 | 65,0 | 73,3 | **0,2** |

*Adierazle honek egoerak multzokatzen ditu, lau ondasun hauetako bat falta dutenak: autoa, telefonoa, telebista edo garbigailua.
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

2017an, **“lan-intentsitate baxuko tasa” murriztuenetako bat zuen Euskadik** (% 7,7). Horrek esan 60 urtetik beherako ehun pertsonatik zortzi kasik lan egiteko adinean dauden eta lan-ahalmen osoaren % 20 baino gutxiago baliatzen duten kideek eratutako familietan bizi direla. Adierazle horrek besteen antzera bilkaernatzen du: 2008 eta 2015 artean “lan-intentsitate baxuko” egoerak izugarri hazten dira —Espainia osoan baino neurri txikiagoan bada ere—, eta susperraldian are gehiago murrizten dira Estatu osoarekin alderatuta. **Krisiaren hasieran, Euskadik eta Espainiak antzeko mailak erregistratu zituzten “lan-intentsitate baxuko” tasari dagokionez, nahiz eta Euskadin gutxiago igo zen Espainian baino** (% 14,3 eta % 17,1 hurrenez hurren), eta azkeneko fasean modu argiagoan murriztu zen gainera (% 50 kasik). Ondorioz, aztertutako denboraldiaren amaieran Euskadi egoera asko hobean dago Espainia osoarekin alderatuta.

## 17. GRAFIKOA
## Euskadiko eta Espainiako biztanleen lan-intentsitate baxuko tasaren bilakera. 2008-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

18. grafikoak Euskadin pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arrisku-tasaren (AROPE) bederatzi urteotako bilakaera erakusten digu. Ikus dezakegunez, 2017an, euskal biztanleen % 14,5a egoera horietakoren batean zegoen. Ehuneko hori zertxobait handiagoa da 2008an erregistratutakoa baino. Dena dela, 2011n murrizten hasten da Estatuko txikienetako bat izateraino, noizbehinkako gorakadaren bat aparte utzita.

Euskadin, AROPE tasaren osagai bakoitzaren ebaki-puntuaren arabera, 2017ko datuek erakusten digute tasa horretan barne hartutako egoeren % 40ak pobrezia erlatiboaren arrisku-egoerengatik kaltetutako pertsonei erantzuten dietela solik (biztanleriaren % 6ari). Eta, horren atzetik, gabezia materiala, “lan-intentsitate baxua” eta diru-pobrezia jasaten dutenei soilik. Hiru kasuetan pobrezia-edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden biztanleen % 16ari eta biztanleria osoaren % 2,4ari eragiten die. Amaitzeko, AROPE tasaren hiru osagaien pean dauden pertsonei aipamen berezia egin behar zaie. Euskadin, biztanleria osoaren % 0,7 dira, hots, 15.000 pertsona, zenbaki absolotuetan.

### 18. GRAFIKOA

## Euskadin pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arrisku-tasaren (AROPE) bilakaera. 2008-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

### 19. GRAFIKOA

## Euskadin pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arrisku-tasa (AROPE), osagaien arabera. 2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

Amaitzeko, diru-sarreren desberdinkeria neurtzen duten adierazleei dagokionez, 20. grafikoan ikus dezakegu aztertutako denboraldi osoan Gini koefizientea askoz ere txikiagoa izan dela EAEn, Estatu osoan baino:

2017an, adibidez, Euskadiko Giniren indizea 29,6koa da, eta, Espainian, aldiz, 34,1koa. 2017ko adierazlea krisi ekonomikoaren hasieran (hamar urte atzera) zegoenaren berdina da. Litekeena da **krisiaren hasieran Euskadin areagotu zen desberdinkeria-tasa** –Giniren indizea 32,6raino igo zen– **suspertze ekonomikoko fasean leheneratu izatea.**

### 20. GRAFIKOA
### Euskadiko eta Espainiako Giniren koefizientearen bilakaera. 2008-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

**Espainiako eta EAEko kintilen araberako diru-sarreren arteko aldea neurtzen duten adierazleek erakusten digute EAEn diru-sarreren egitura igualitarioagoa dela.** Biztanle aberatsenen % 20aren eta behartsuenen % 20aren arteko aldea —krisiaren aurretik txikiagoa zen— atzeraldian areagotu egin da, neurri txikiagoan bada ere, eta kintil aberatsenaren eta erdi-mailakoaren (Q5/Q3) arteko aldea egonkor mantendu da —Espainian bezala, baina neurri txikiagoan—. Denbora horretan, talderik behartsuenen eta erdi-mailakoen (Q3/Q1) arteko aldea areagotu egin da, Espainian baino gutxiago alabaina, askoz ere tasa txikiagoak erregistratzen dituelarik.

### 6. TAULA
### Euskadiko eta Espainiako kintilen errenta mediana baliokidearen arteko erlazioaren bilakaera. 2008-2017

| | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2013 | 2017 | Dif. 17-08 | 2008 | 2013 | 2017 | Dif. 17-08 |
| S80/S20 erlazioa [Q5/Q1] | 5,6 | 6,3 | 6,6 | **1,0** | 4,8 | 5,1 | 5,1 | **0,3** |
| Q3/Q1 erlazioa | 2,4 | 2,7 | 2,9 | **0,4** | 2,3 | 2,6 | 2,5 | **0,2** |
| Q5/Q3 erlazioa | 2,3 | 2,3 | 2,3 | **0,0** | 2,0 | 2,0 | 2,0 | **0,0** |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

Azkenik, 21. grafikoak biztanle behartsuenen % 20aren eta aberatsenen batez besteko errentaren bilakaera erakusten digu, hiru denboraldi desberdinetan, eta baita osotasunean ere. Aztertutako denboraldi osoa aintzat hartzen badugu, Bizi Baldintzei buruzko Inkestak erakusten digu 2008tik 2017ra bitartean beheragoko kintilaren diru-sarrerak % 24 jaitsi direla Euskadin, eta % 13 Estatu osoan. Aldiz, goragoko kintilaren diru-sarrerak % 3,6 igo dira Euskadin. Horren arabera, Euskadin, biztanle behartsuenek diru-sarreretan murrizketa are garrantzitsuagoa jasan dute biztanle aberatsen aldean, eta Espainia osoko biztanle behartsuekin alderatuta ere bai. Alderantziz, goragoko kintilaren eta biztanleria osoaren diru-sarreren bilakaera antzekoa da Euskadin zein Espainian. Euskadin, suspertze-fasean gertatutakoaren ondorioz, beheragoko kintilen diru-sarrerek beheranzko joera izan dute (2013-2017), eta diru-sarrerak %16 murriztu dira, Espainiaren kasuan egonkor mantendu diren bitartean **(4)**.

Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Desbertasun Sozialen Inkestaren bitartez datu osagarriak lortzen dira EAErako, Bizi Baldintzei buruzko Inkestak erabitzen duena baino lagin handiagoarekin. Beraz, datu horiek zehaztu behar dira. Atalase autonomikoa erabiliz probrezia erlatiboaren tasa bi inkestetan

**(4)** Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Desbertasun Sozialen Inkestaren bitartez datu osagarriak lortzen dira EAErako, Bizi Baldintzei buruzko Inkestak erabitzen duena baino lagin handiagoarekin. Beraz, datu horiek zehaztu behar dira. Atalase autonomikoa erabiliz probrezia erlatiboaren tasa bi inkestetan antzekoa bada ere, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestatik lortutako Gini indizea txikiagoa da (25,8koa 2016an). Gainera, S80/S20 ratioa 3,6tik 3,9ra pasako litzateke, eta ez 4,8tik 5.1era. Edonola ere, bi informazio-iturrien arteko desberdintasunik handienak beheragoko kintilaren diru-sarreren bilakaerari erantzuten dio. Bizi Baldintzei buruzko Inkestak talde horren diru-sarrerak 2008 eta 2017 artean % 24 murriztu direla erakusten badigu, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestaren arabera 2008/2016 aldian biztanle behartsuenen % 20ak diru-sarreretan % 2,5eko murrizketa besterik ez zuen izan.

antzekoa bada ere, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestatik lortutako Gini indizea txikiagoa da (25,8koa 2016an). Gainera, S80/S20 ratioa 3,6tik 3,9ra pasako litzateke, eta ez 4,8tik 5.1era. Edonola ere, bi informazio-iturrien arteko desberdintasunik handienak beheragoko kintilaren diru-sarreren bilakaerari erantzuten dio. Bizi Baldintzei buruzko Inkestak talde horren diru-sarrerak 2008 eta 2017 artean % 24 murriztu direla erakusten badigu, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestaren arabera 2008/2016 aldian biztanle behartsuenen % 20ak diru-sarreretan % 2,5eko murrizketa besterik ez zuen izan.

### 21. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako batez besteko errenta baliokidearen ehunekoaren aldaketa, errenta-multzoen arabera. 2008-2017




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI).

# 2

# Gizarte-integrazioa Euskadin

# Edukia


**2.1.** Gizarte-integrazioa Euskadin ........ 52

**2.2.** Zer lotura dago gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia ekonomikoaren artean? 55

**2.3.** Gizarte-bazterkeria definitzen duten hiru ardatzak ........ 58

**2.4.** Gizarte-bazterkeriarekiko dugun ikuspegia zehazten duten dimentsioak .... 61

# 2. kapitulua
# Gizarte-integrazioa Euskadin

Bigarren kapitulu honetan, Euskadiren integrazio-mailak aztertzen dira, bereziki euskal biztanleak nola banatzen diren gizarte-bazterkeria larritik erabateko integraziora arteko eskalan. Ardatz horretan, biztanleen banaketari lotutako datu orokorrak —Espainian nahiz Euskadin—, Euskadiren 2013 eta 2018 arteko bilkaera eta integrazio eta probezia ekonomikoko mailen arteko erlazioa aztertzen dira. Aurreko kapituluan bezala, ikuspegi ebolutibotik (Euskadiren egoera 2013an eta 2018an alderatuz) eta lurralde-ikuspegitik (EAEren eta Estatu osoaren egoerak alderatuz) egiten da azterketa.

Jarraiko integrazio-bazterkeriaren azterketa hiru mailatan xehakatzen da. Bazterkeriaren ardatza (ekonomikoa, zibiko-politikoa eta sozial-erlazionala) da lehena, eta orokorrena. Bigarrenak bazterkeriaren ardatzekin du lotura (lana, kontsumoa, partaidetza politikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gatazka soziala eta isolamendu soziala). Azkenik, arazo zehatzei erantzun espezifikoagoa emanez, dimentsio guztiak barne hartzen dituzten 35 adierazleak daude. Kapitulu honetan, pixkanaka azaltzen dira inkestaren datuak haren ardatz eta dimentsioetan, eta, lehen ikuspegi orokor horrekin, datuen deskribapen progresiboa ematen da, horiek hobeto ulertzen laguntzeko. 4. kapituluan dimentsio bakoitza definitzen duten adierazleak jorratuko ditugu, aldi berean aurrerapausoa emanez.

## 2.1. Gizarte-integrazioa Euskadin

2018ko FOESSA Fundazioaren Integrazioari eta Behar Sozialei buruzko Inkestaren arabera, euskal biztanleen % 56,6ak erabateko integrazioa, % 28,2ak integrazio prekarioa, % 6,4ak bazterkeria moderatua eta % 8,8ak bazterkeria larria bizi dute. Oro har, Euskadiko biztanleriaren % 15,2ak gizarte-bazterkeria jasaten du. **Ondorioz, zazpi pertsonatik batek —334.000 pertsona inguruk— 2018an bazterkeria moderatua edo larria bizi du.**

Euskadiren eta Espainiaren egoerak alderatuz gero, esan dezakegu **lehena positiboagoa dela bigarrena baino.** EAEn, erabateko integrazio-egoeran dagoen biztanleriaren ehunekoa handixeagoa da (Estatu osoan % 48,4koa eta Euskadin % 56,6koa), eta, hain zuzen ere, erabateko integrazio-tasa handienarekin autonomia-erkidegoetako bat da —Errioxarekin eta Gaztela eta Leonekin batera—. Bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren ehunekoa ere txikixeagoa da (% 18,4 eta % 15,2 hurrenez hurren) eta integrazio prekarioaren eremua murriztuagoa (% 33,2 Espainian eta % 28,2 Euskadin) **(5)**.

### 22. GRAFIKOA
### Euskadiko (2018) eta Espainiako (2007-2009-2013-2018) biztanleriaren integrazio-mailak




Iturria: EINSFOESSA 2007, 2009, 2013 eta 2018.

**(5)** Inkesta honen emaitzak 2018ko Gipuzkoako Pobreziari eta Bazterkeriari buruzko III. Inkestarekin bat datoz, Euskadiren kasuan. Datu horien arabera, biztanleriaren % 56,9ak erabateko integrazioa, % 29,3ak integrazio prekarioa, % 9,1ak bazterkeria moderatua eta % 4,7ak bazterkeria larria bizi dute.

Termino ebolutiboetan, ikusten da **2018an integrazio sozialeko tasak nabarmen hobetu direla Euskadin**, Estatu osoan baino emaitza hobeagoekin. 2013 eta 2018 bitartean, Euskadin, integrazio prekarioan dagoen biztanle kopurua nabarmen murriztu da (% 44,8tik % 28,2ra), eta erabateko integrazioan dagoena, aldiz, asko hazi da (% 38,1etik % 56,6ra). **Bestalde, bazterkeriaren maila orokorrak nahiko egonkor mantendu dira, pixka bat jaitsi badira ere** (2013an % 17,1 izatetik 2018an % 15,2 izatera). Guztiarekin ere, 2013an euskal gizartearen gehiengoa integrazio prekarioan bazegoen (biztanleriaren % 45ak kasik), 2018an gehienek erabateko integrazioa bizi zuten, biztanleria osoaren % 56,6ak hain zuzen.

**Edonola ere, datuek erakusten diguten hobekuntza orokor hori ñabartu egin behar da.** Euskadiren kasuan integrazioaren eremua arinki hazten da, baina hobekuntza garrantzitsu bat ematen da. Izan ere, 2013an biztanleriaren % 38,1 erabateko integrazioan bazegoen, 2018an % 56,6rainokoa izatera iritsi zen, eta, modu horretan, integrazio prekarioaren eremua murriztu zen. Integrazioaren eremuan egoera nabarmen hobetzen da; ez, ordea, haren tamaina erlatiboa. Bazterkeriaren eremuan, argi dago bilakaera ez dela ona izan: bazterkeria-tasa orokorrak apenas murrizten dira, eta bazterkeriaren eremuan bazterkeria larriko egoerak areagotu egiten dira, 2013an % 5,3 izatetik 2018an % 8,8 izatera pasa baita, eta bazterkeria moderatua % 11,8tik % 6,4ra murrizten da.

Euskadin, erabateko integrazio-egoerak eta bazterkeria larriko egoerak hazten doaz, eta, aldiz, tarteko kategoriak argiro murrizten dira (integrazio prekarioan eta bazterkeria moderatuan dagoen biztanleriaren ehunekoa % 56,6koa izatetik % 34,6koa izatera pasatzen da). Beraz, halako **polarizazio sozial bat** dagoela esan dezakegu.

Estatu osoan antzeko bilkaera erregistratu da, eta —2007a erreferentziatzat hartzen badugu—, bazterkeria-egoerek goranzko joera izan dute. Hain zuzen, Espainian, gizarte-bazterkeriaren tasa handiagoak erregistratzen dira krisiaren aurreko denboraldian baino ( 2017an, Espainiako biztanleen % 16,4ak jasaten zuen bazterkeria, eta 2018an, aldiz, % 18,4ak), krisiaren unerik gorenean baino neurri txikiagoan bada ere.

Espainiako panorama sozialak aspaldidanik ikusten ari garen desberdintasun horiek konfirmatzen dizkigu. Batetik, erabateko integrazio-egoeran dagoen biztanleria krisiaren aurreko balioetara hurbiltzen hasi dela, baina talde handi batek bazterkeria jasaten duela oraindik ere, are gehiago bazterkeriarik larriena, 2007ko datuekin alderatuta.

Eszenatoki honek desberdintasun handiak erakusten dizkigu, eta, beraz, oso arriskutsua da gizarte kohesionatu bat eraiki nahi bada.

### 23. GRAFIKOA
### Euskal biztanleen integrazio-mailaren bilkaera. 2013-2018




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

FOESSA Fundazioaren Integrazio eta Behar Sozialei buruzko Inkestan, bazterkeriak krisi-amaieraren eta susperraldi-hasieraren artean, hots, 2013tik 2018ra, autonomia-erkidegoetan izan duen bilkaera neurtzen da. Denbora horretan, gizarte-bazterkeria dezente gutxiago murriztu da Euskadin Espainian baino —% 10,8 eta % 27,8 hurrenez hurren— eta gizarte-bazterkeria jasaten duen pertsona kopurua 374.000tik 334.000ra jaitsi da. **Krisi ekonomikoaren une kritikoenetik ia 40.000 pertsona gutxiagok jasaten du gizarte-bazterkeria Euskadin.** Estatuan, murrizketa are handiagoa izan da: bazterkeria jasaten duen biztanleriaren ehunekoa % 27,8 murriztu da, 11,9 milioi pertsonatik 8,6 milioi pertsonara pasa baita.

**7. TAULA**

**Euskadin eta Espainian gizarte-bazterkeria jasaten duen pertsona kopurua balioestea 2013-2018**

| | Espainia | | Euskadi | |
|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 |
| Biztaleria, guztira (milakoetan) | 47.130 | 46.699 | 2.192 | 2.199 |
| **Gizarte-bazterkeria** | | | | |
| Gizarte-bazterkeriaren proportzioa (%) | 25,3 | 18,4 | 17,1 | 15,2 |
| Gizarte-bazterkeriaren balioespena (milakoetan) | 11.906 | 8.590 | 374 | 334 |
| 2013arekiko aldakuntza (%) | -- | -% 27,8 | -- | -% 10,8 |
| **Gizarte-bazterkeria larria** | | | | |
| Gizarte-bazterkeriaren proportzioa (%) | 10,8 | 8,8 | 5,3 | 8,8 |
| Bazterkeria larriaren balioespena (milakoetan) | 5.080 | 4.122 | 115 | 194 |
| 2013arekiko aldakuntza (%) | -- | -% 18,9 | -- | % 68 |

Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018. Estatistikako Institutu Nazionala. Urtarrilaren 1eko Etengabeko Erroldaren Estatistika. 2018ko behin-behineko datuak.

Lehen aipatzen genuen polarizazio sozial hori Euskadin eta Espainian gizarte-bazterkeria larria jasan duten biztanleen bilkaeran ikus dezakegu: Espainian % 18,9 murriztu den bitartean –800.000 pertsona gutxiago daude egoera horretan–, Euskadin % 68 igo da, 115.000 pertsonatik 194.000 pertsonara pasa baita. Horrek esan nahi du **2013ko datuen aldean Euskadin 80.000 pertsona gehiagok jasaten duela gizarte-bazterkeria larria 2018an**.

Datuek erakusten digute krisiaren amaieran erabateko integrazio-tasa handiagoa dela, baina bazterkeria-maila orokorrak mantendu eta bazterkeria larriko egoerak areagotu egiten direla, Euskadin. Testuinguru horretan badago arrisku bat ordea, **euskal gizartea** tarteko espazio gero eta txikiagoekin **bi muturren inguruan** –tamaina desberdinekoak, dena dela– **dualizatzekoa,** hain zuzen.

## 2.2. Zer lotura dago gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia ekonomikoaren artean?

Bi aldagaien arteko lotura interesgarria eta garrantzitsua da; izan ere, gizarte-bazterkeriaren prozesuen azterketak normalean diru-pobreziaren ikuspegitik erabiltzen denaren irudi osagarria ematen digu. 2018ko datuen arabera, inkestatik eratorritako diru-sarrera txikien edo pobrezia-arriskuaren tasak % 20,7koak dira Espainian, eta % 13,7koak Euskadin.

Logikoa denez, integrazio- eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonek ez dituzte pobrezia-tasa berdinak. **Euskadin, bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren % 49,2ak diru-pobrezi**a jasaten du, baina % 50,8a ez litzateke behartsua izango diruaren ikuspegitik. Alderantziz, **gizarte-bazterkeria jasaten ez duen biztanleriaren % 7,3a behartsua izango litzateke diruaren ikuspegitik.** Espainian, bi taldeetan pobrezia-tasak % 56 eta % 12,7 dira, hurrenez hurren.

**8. TAULA**

**Biztanleen gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia erlatiboaren* arteko erlazioa (kopuru osoaren %-tan) 2018**

| | Espainia | | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Baztertuak | Ez Baztertuak | Guztira | Baztertuak | Ez Baztertuak | Guztira |
| Behartsuak | 9,3 | 9,2 | **18,5** | 5,7 | 4,6 | **10,4** |
| Ez-behartsuak | 7,3 | 63,3 | **70,6** | 5,9 | 58,7 | **64,6** |
| Informaziorik gabe | 1,8 | 9,2 | **11,0** | 3,5 | 21,5 | **25,0** |
| Guztira | 18,4 | 81,6 | **100,0** | 15,2 | 84,8 | **100,0** |
| Pobrezia-tasa (%) | 56,0 | *12,7* | **20,7** | *49,2* | *7,3* | **13,8** |

*Pobreziaren adierazlea kalkulatzeko familia batek aitortutako diru-sarrerak erabili dira, eta fidagarritasunez aitortu ez dituztenak kanpo geratu dira.
Iturria: EINSFOESSA 2018.

Beste modu batera esanda, **euskal biztanleriaren % 58,7ak ez du diru-pobrezirik jasaten, ezta gizarte-bazterkeriarik ere; beraz, pobreziarik gabeko integrazioaz hitz egin genezake: % 5,7a bi egoeretan dago (bazterkeria pobreziarekin); % 4,6a bazterkeriarik gabeko pobrezia-egoeran dago (pobrezia integratua) eta % 5,9a pobreziarik gabeko bazterkeria-egoeran dago (bazterkeria pobreziarik gabe).** Ez daukagu informaziorik bazterkeria-egoeran dagoen % 3,5ari eta integrazio-egoeran dagoen % 21,5ari buruz. Espainiaren banaketa oso bestelakoa da, ehuneko hauek baititu: % 63,3, % 9,3, % 9,2 eta % 7,3. Ikuspegi ebolutibotik, argi dago 2013az geroztik egoera hobetu egin dela Euskadin, pobreziarik gabeko integrazio-egoeran dauden pertsonak % 52,6 izatetik % 58,7 izatera pasa direlako **(6)**. Halaber, azpimarratu behar da pobrezia eta bazterkeria jasaten duten pertsonen ehunekoa % 3,1etik % 5,7ra igo dela.

**(6)** Ez dakigu informaziorik gabeko pertsonen ehunekoa zenbatekoa den, eta, beraz, behin-behineko erkaketa horiek zuhurtziaz hartu behar ditugu.

## 24. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanle-banaketaren bilkaera, pobrezia erlatiboaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko erlazioaren arabera. 2013-2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

9. taulak informazio zabalagoa ematen digu eta diru-pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsona kopurua balioesten du. Horretarako, informaziorik gabeko pertsonak ere aintzat hartzen ditu. Datuen arabera, Euskadin, 1,29 milioi pertsona pobreziarik gabeko integrazio-egoeran dago eta ez du ez gizarte-bazterkeriarik ez diru-pobrezirik jasaten. Informaziorik gabeko pertsonak bazter utzita, beste hiru taldeak antzekoak dira tamainaz: 102.000 pertsona pobrezia integratuko egoeran dago, 126.000 pertsona bazterkeria-egoeran pobreziarekin —2013aren bikoitza kasik— eta 13.000 pertsonak pobreziarik gabeko gizarte-bazterkeria jasaten du.

## 9. TAULA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleen integrazio-mailaren eta pobrezia ekonomikoaren araberako balioespena. 2018

| | Espainia | | Euskadi | |
|---|---|---|---|---|
| | Kopurua milakoetan | % | Kopurua milakoetan | % |
| Bazterkeria pobreziarekin | 4.326 | 9,3 | 126 | 5,7 |
| Bazterkeria pobreziarik gabe | 3.403 | 7,3 | 130 | 5,9 |
| Pobrezia integratua | 4.290 | 9,2 | 102 | 4,6 |
| Integrazioa pobreziarik gabe | 29.544 | 63,3 | 1.291 | 58,7 |
| Informaziorik gabe | 5.136 | 11,0 | 550 | 25,0 |
| Guztira | 46.699 | 100,0 | 2.199 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018. Estatistikako Institutu Nazionala. Urtarrilaren 1eko Etengabeko Erroldaren Estatistika. 2018ko behin-behineko datuak.

## 2.3. Gizarte-bazterkeria definitzen duten hiru ardatzak

EINSFOESSAren metodologiaren arabera, bazterkeriaren hiru ardatz nagusi, hots, ekonomikoa, zibiko-politikoa, eta sozial-erlazionala, eta dagozkien dimentsioak bereizten dira. Zeintzuk dira Euskadiko eta Espainiako biztanle gehienei eragiten dieten bazterkeriaren ardatzak? 25. grafikoan ikus dezakegun bezala, EAEko biztanleen % 18,5ak bazterkeria jasaten du ardatz ekonomikoan, % 36ak ardatz politiko eta zibikoan, eta % 8,2ak ardatz sozial eta erlazionalean.

### 25. GRAFIKOA
### Euskadiko eta Espainiako biztanleen ehunekoa, gizarte-bazterkeriaren ardatz bakoitzean. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskadin, ardatz ekonomikoan (enplegua eta kontsumoa) bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoa askoz ere txikiagoa da Espainian baino (% 15,8 eta % 25,9 hurrenez hurren). Ardatz ekonomikoan, biztanleen ehuneko txikiago batek jasaten du bazterkeria Euskadin, beste autonomia-erkidegoekin alderatuta (horren arrazoia da, hein batean, ardatz ekonomikoan bazterkeria-egoerak zehazteko erabiltzen den pobreziaren atalasea estatu mailan kalkulatzen dela). Aldiz, beste bi ardatzetan bazterkeria-egoeran dauden biztanleen ehunekoa antzekoa da (ardatz politikoan txikixeagoa eta ardatz sozialean handixeagoa). **Estatu osoan, gizarte-bazterkeriaren mailarik txikienak Euskadin erregistratzen dira. Horren arrazoia ardatz ekonomikoa da; izan ere, aurreko kapituluan esaten genuen bezala, langabezia- eta pobrezia-tasak nabarmen txikiagoak dira.** Dimentsio zibiko-politikoan eta sozial-erlazionalean, aldiz, bazterkeria-egoerak oso antzekoak dira, eta apenas eragiten dute Espainiarekin alderatuta antzematen diren desberdintasunetan.

Ikuspegi ebolutibotik, Espainian zein Euskadin **bazterkeria-ardatz desberdinek kaltetutako biztanleen ehunekoa asko murriztu da 2013 eta 2018 bitartean**, ardatz ekonomikoan eta zibiko-politikoan bereziki. Ardatz sozial erlazionaleko bazterkeria-egoerak, 2013an gutxiago zabaldutakoak, neurri txikiagoan murriztu dira.

Euskadin, **ardatz ekonomikoan bazterkeria-egoeran dauden biztanleen ehunekoa % 28,5etik % 15,8ra pasa da, eta ardatz politikoan, berriz, % 47,1etik % 36ra.** Bestalde, ardatz sozial-erlazionalean bazterkeria jasaten duten pertsonen ehunekoa % 11tik % 8,2ra pasa da. Lehenengo kasuan % 45eko murrizketa dago, eta bigarren eta hirugarren kasuetan, berriz, % 77ko murrizketa. **Murrizketa oso garrantzitsuak dira, estatukoak baino are handiagoak.** Espainia osoan, bazterkeria-egoerengatik kaltetutako biztanleen ehunekoa ardatz ekonomikoan % 40 murriztu da, ardatz zibiko-politikoan % 18 eta ardatz sozial-erlazionalean % 12.

**26. GRAFIKOA**

**Gizarte-bazterkeriaren ardatz bakoitzak kaltetutako Euskadiko eta Espainiako biztanleen ehunekoaren bilkaera. 2013-2018**




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

10. taulan, bazterkeria larriaren eta erabateko integrazioaren arteko eskalan multzo handi bakoitzerako begiesten diren ardatz bakoitzean bazterkeria-egoeren bilkaera xehetasun handiagoarekin ikus daiteke. 2018ko **datuei erreparatzen badiegu, ardatz ekonomikoan** bazterkeriak integrazio prekarioan dauden biztanleen laurdenari baino zertxobait gehiagori (% 27,4), bazterkeria moderatua jasaten duten biztanleen % 35,9ari eta bazterkeria larria jasaten duten biztanleen % 65ari eragiten diola ikusiko dugu. Estatuan erregistratzen

diren ehunekoen oso azpitik daude, edonola ere. Ardatz politikoan, bazterkeria handiagoa dago baina mailaketa ez dago horren argi: integrazio prekarioan dagoen biztanleriaren % 79,3ari, bazterkeria moderatua jasaten duen biztanleriaren % 87,8ari eta bazterkeria larria jasaten duen biztanleriaren % 91,4ari eragiten dio. Ardatz erlazionalean, bazterkeriaren mailaketa argiago dago (integrazio prekarioan dauden biztanleen % 11koa izatetik bazterkeria larria jasaten duten biztanleen % 39,1ekoa izatera, Espainia osoan erregistratzen direnak baino ehuneko handiagoekin —bazterkeria jasaten dutenen artean bereziki—).

Ikuspegi ebolutibotik esan daiteke **integrazio prekarioan dauden pertsonek eta gizarte-bazterkeria moderatua eta larria bizi dutenek bazterkeria gutxiago jasaten dutela ardatz ekonomikoan, 2013 eta 2018 bitartean. Alderantziz, ardatz politikoan, integrazio prekarioan dauden pertsonek eta bazterkeria moderatua eta larria bizi dutenek bazterkeria gehiago jasaten dute.**

Beraz, ardatz honetan bazterkeria jaitsi izanaren arrazoi nagusia erabateko integrazio egoeran dauden pertsona kopurua areagotzea izan da, logikoa denez, ez dutelako bazterkeria-egoerarik jasaten. Ardatz sozial eta erlazionalean ere bazterkeria nabarmen murriztu da hiru multzoetan, integrazio prekarioa jasaten duten pertsonen kasuan izan ezik.

**10. TAULA**

**Gizarte-bazterkeriaren ardatzek kaltetutako Euskadiko eta Espainiako biztanleen ehunekoaren bilkaera, integrazio eta gizarte-bazterkeriaren mailen arabera. 2007-2018***

| | Espainia | | | | Euskadi | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2009 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 |
| **Ardatz ekonomikoa** | | | | | | |
| Erabateko integrazioa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Integrazio prekarioa | 27,6 | 40,9 | 54,0 | 41,0 | 40,2 | 27,4 |
| Bazterkeria moderatua | 47,8 | 62,0 | 76,7 | 59,4 | 56,9 | 35,9 |
| Bazterkeria larria | 69,6 | 90,6 | 92,1 | 74,6 | 71,1 | 65,1 |
| Guztira | 18,7 | 30,1 | 43,0 | 25,9 | 28,5 | 15,8 |
| **Ardatz politikoa** | | | | | | |
| Erabateko integrazioa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Integrazio prekarioa | 84,9 | 74,0 | 64,4 | 66,8 | 74,9 | 79,3 |
| Bazterkeria moderatua | 86,6 | 90,0 | 72,6 | 81,4 | 75,0 | 87,8 |
| Bazterkeria larria | 86,1 | 89,0 | 95,2 | 94,3 | 88,1 | 91,4 |
| Guztira | 43,5 | 46,3 | 47,0 | 38,3 | 47,1 | 36,0 |
| **Ardatz soziala** | | | | | | |
| Erabateko integrazioa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Integrazio prekarioa | 7,2 | 9,8 | 7,5 | 10,8 | 9,7 | 11,0 |
| Bazterkeria moderatua | 32,7 | 19,7 | 17,1 | 17,0 | 31,3 | 25,2 |
| Bazterkeria larria | 43,3 | 29,3 | 27,1 | 25,7 | 56,0 | 39,1 |
| Guztira | 8,5 | 8,4 | 8,5 | 7,5 | 11,0 | 8,2 |

*Hiru ardatzetako batean egoteak pertsonek edo familiek FOESSAren adierazle-sistemak deskribatzen dituen egoeretako bat bizi dutela esan nahi du. Horregatik erabateko integrazioan 0,0 agertzen da.
Iturria: EINSFOESSA 2007, 2009, 2013 eta 2018.

## 2.4. Gizarte-bazterkeriarekiko dugun ikuspegia zehazten duten dimentsioak

Orain arte aztertu ditugun gizarte-bazterkeriaren hiru ardatzak beste zortzi dimentsio zehatzetan egituratzen dira, gure egunerokoarekin bat datozenak (enplegua, kontsumoa, parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta gatazka eta isolamendu soziala). Dimentsio bakoitza aztertu aurretik, aintzat hartu behar da Espainiako eta Euskadiko biztanleek zenbat dimentsiotan jasaten duten bazterkeria, zenbateraino zabaldu diren eta nola bilkaernatu duten ikusteko. Hori oinarri hartuta ikuspegia bideratu eta datuen ezagutzan aurrerapausoa emango dugu.

Euskal biztanleen erdia baino gehiago (% 56,6ak) erabateko integrazio eremuan dago, eta, beraz, dimentsioetako batean ere ez du arazorik. 2013an, % 38,1a

zegoen egoera horretan. EAEren bilakaerari erreparatuz gero, dimentsioetako batean gabeziarik ez duen biztanleen kopurua areagotzearekin batera dimentsio batean edo bitan bazterkeria jasaten duen biztanleen kopurua nabarmen murriztu da, edo, beste era batera esanda, askoz ere pertsona gutxiago dago integrazio prekarioan. Hiru dimentsiotan bazterkeria jasaten duten pertsonen ehunekoa gutxiago murriztu da —% 5,1etik % 4,5era— eta lau dimentsiotan edo gehiagotan bazterkeria jasaten duten pertsonen ehunekoa, aldiz, igo egin da —2013an % 3koa izatetik 2018an % 4,4koa izatera—. Ondorioz, gizarte-bazterkeria larria jasaten duen biztanleen ehunekoa areagotu egin da, lehen esan bezala.

Espainian ere, dimentsioetako batean ere bazterkeria jasaten ez duten pertsonen ehunekoa igo egin da, eta dimentsioetako batean bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kopurua murriztu egin da (ez dio axola dimentsio kopurua). Antza denez, 2013az geroztik dimentsio ezberdinetan bazterkeria jasaten duten biztanleen kopurua murriztu egin da Espainian, eta ez da bazterkeria gutxien jasaten duten taldeetan Euskadin bezainbeste bildu. Edonola ere, aztertutako denboraldiaren —2007an— hasieran eta amaieran Espainiaren egoera erkatuz gero, gizarte-bazterkeriari lotutako lau arazo edo gehiagorekin biztanleen ehunekoa % 2,6tik % 5,4ra areagotzen da. Estatu osoan azken hamarkadan jasan dugun atzerapen eta hedapen ekonomikoaren ondorioz, bi bider handiagoa da bazterkeria multidimentsionala jasaten duen biztanle kopurua.

### 27. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleen ehuneko-banaketaren bilkaera, dimentsio desberdinetan dauden gizarte-bazterkeriako arazoen arabera. 2013-2018




| | Espainia 0 | Espainia 1 | Espainia 2 | Espainia 3 | Espainia 4 | Espainia 5 edo gehiago | Euskadi 0 | Euskadi 1 | Euskadi 2 | Euskadi 3 | Euskadi 4 | Euskadi 5 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2007 | 49,0 | 28,6 | 13,4 | 6,4 | 1,5 | 1,1 | | | | | | |
| 2009 | 41,4 | 28,7 | 16,1 | 9,3 | 3,0 | 1,5 | | | | | | |
| 2013 | 34,1 | 31,5 | 16,9 | 9,6 | 5,2 | 2,7 | 38,1 | 33,5 | 20,4 | 5,1 | 2,4 | 0,6 |
| 2018 | 48,4 | 27,6 | 12,6 | 6,0 | 3,5 | 1,9 | 56,6 | 21,2 | 13,3 | 4,5 | 3,2 | 1,2 |

Iturria: EINSFOESSA 2007, 2009, 2013 eta 2018.

Metaforikoki, gizarte-bazterkeriako dimentsioen gainean lupa bat jarriko bagenu, errealitatea zehaztasun handiagoarekin behatuko genuke eta etengabeko integrazio-bazterkeria prozesuaren barruan ematen diren hobekuntzak eta atzerapenak ikusiko genituzke. Hori dela eta, Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa (ISES) erabiltzen dugu. Indize horrek lau espazioak —erabateko integrazioa, integrazio prekarioa, bazterkeria moderatua eta bazterkeria larria— bederatzi tarteetan banatzen ditu, eta, modu horretan, eremu bakoitzean egoera desberdinak hobeto mailakatuta daude. Gizarte-bazterkeriaren adierazleak non metatzen diren erakusten digu.

Azterketa horretatik abiatuta, 28. grafikoak azken bost urteotan Euskadin emandako aldaketa posibleak erakusten dizkigu. Esaterako, pentsa genezake **erabateko integrazioan dagoen biztanleen ehunekoa igo dela integrazio prekarioan dagoen taldea murriztu** (% 29,8tik % 11,8ra) delako, erabateko integraziotik hurbilago egoteagatik (0 eta 1 arteko ISES). Ondorioz, argi dago Euskadin erabateko integrazioaren tasa orokorrak igo egin direla integrazio prekarioaren eremua nabarmen murriztu delako, erabateko integraziotik oso hurbil zeuden eta bazterkeria gutxiago jasaten zuten biztanleengatik. Beste muturrean, aipagarria da oso —eta lehen aipatutako kronifikatzeko eta polarizatzeko arriskua indartzen du horrek— Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoaren azken bi tarteetan pertsonen ehunekoa nabarmen igo dela, biztanleriaren % 0,9tik % 5,4ra pasa baita.

2013an, bazterkeria larria jasaten zuen biztanleria osoaren % 13a azken tarte horretan zegoen, eta, 2018an, % 48koa izatera pasa zen. Litekeena da lehen aipatutako bazterkeria-egoerak **kroniko bihurtu eta larriagotu izana** (erabateko integrazioan dauden pertsona kopurua igotzearekin bateragarria dena).

## 28. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleen ehuneko-banaketaren bilkaera, Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoaren (ISES) tarte bakoitzean




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

Ondorio hori Estaturako epe luzera planteatzen denarekin bat dator. 2007an Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa eratu zenetik, lehen aldia da biztanleriaren % 3,8ak 7ko edo gehiagoko balioa lortzen duela, 2013an erregistratutako % 3,5aren gainetik. Horrek esan nahi du % 11 igo dela 2013tik, ziurrenik krisiaren etapa latzenetik, eta 2007an tarte horretan zegoen biztanle kopurua ia hirukoiztu egiten du (% 1,3). ISES azterketatik ateratako lehenengo ondorioa da **bazterkeria larriena jasaten duten pertsonek zailtasun ugari dituztela.** Talde horretan baliabide pertsonalak, familiarrak eta babes sozial publikoko mekanismoak falta dituzte, edo oso narriatuta daude.

Pertsona edo familia bati eragin diezaioketen gizarte-bazterkeriako dimentsioen kopurua bazter utzita, dimentsio bakoitzean bazterkeria jasaten duen biztanleriaren ehunekoa jakitea garrantzitsua da, eta 2013 eta 2018 bitartean zer bilakaera izan duen. Denbora tarte horretan Euskadiko eta Espainiako biztanleek gizarte-bazterkeriako zortzi dimentsioetan izan dituzten aldaketak 29. grafikoan ikus ditzakegu. Espainian zein Euskadin murrizketarik handiena (% 17,6 eta % 13,2 hurrenez hurren) jasan duen dimentsioa enpleguko bazterkeriari lotutakoa izan da. Estatuarekin alderatuta Euskadiren egoera oso bestelakoa da ordea, kontsumoaren eta politikaren dimentsioan bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoaren igoerari dagokionez.

Epigrafearekin amaitzeko, bazterkeriak dimentsio bakoitzean duen irismenaren bilakaera aztertzen da, aintzat hartuta biztanleria osoa, gizarte-bazterkeria egoeran daudenak eta gizarte-bazterkeria larria jasaten dutenak.

2013 eta 2018 arteko bilakaerari erreparatzen badiogu, lehen esan bezala, **enpleguaren eta etxebizitzaren dimentsioetan bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoa nabarmen jaitsi da Euskadin.** Hezkuntzaren, osasunaren eta gatazka eta isolamendu sozialaren dimentsioetan bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoa ere jaitsi egin da, neurri txikiagoan bada ere, eta kontsumoaren eta politikaren eta partaidetzaren eremuetan, aldiz, igo egin da.

### 29. GRAFIKOA

**Euskadiko eta Espainiako biztanleek gizarte-bazterkeriako dimentsio bakoitzean dituzten arazoen bilakera. Ehunekoetan aldea. 2018-2013**




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

Gizarte-bazterkeria egoeran dauden, eta, bereziki, gizarte-bazterkeria larria jasaten duten pertsonak dira kaltetuenak. 2018an gizarte-bazterkeria egoeran

dagoen biztanleria osoa aintzat hartzen baditugu, % 44,3ak bazterkeria jasaten du enpleguaren eremuan —biztanleria osoaren hirukoitza—, % 58ak etxebizitzarenean, % 55,5ak osasunarenean eta % 30,3ak kontsumoarenean. Gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak bere osotasunean aintzat hartzen baditugu, 2013 eta 2018 arteko bilkaera ez da beti positiboa, enpleguaren, gatazka sozialaren edo isolamenduaren dimentsioetan bazterkeria murriztu bada ere, beste kasu batzuetan igo egin delako. Kontsumoaren, etxebizitzaren eta osasunaren eremuetan bereziki asko igo da.

Amaitzeko, egoera horiek Espainiako eta Euskadiko biztanleengan zer eragin duten alderatuta, 2018ko datuek erakusten digute bazterkeriari dagokionez enpleguaren eta kontsumoaren dimentsioan ematen direla desberdintasun nagusiak, eta, beraz, lehen aipatutako ardatz ekonomikoan nagusitasuna galtzen duela. Hezkuntzaren ardatzean ere desberdintasun handia antzematen da, bazterkeriak Espainiako eta Euskadiko biztanleen % 6,6ari eta % 3,1ari eragiten baitio hurrenez hurren. Aztertutako gainontzeko dimentsioetan desberdintasun txikiak daude. Osasunaren eta gatazka sozialaren kasuan, adibidez, bazterkeria jasaten duten biztanleen ehunekoa Espainian baino zertxobait handiagoa da Euskadin. Aipatu behar da ikuspegi konparatibotik gizarte-bazterkeria egoeran dagoen biztanleria ardatzat hartzen badugu, Euskadin dimentsio ezberdinetan bazterkeria gutxiago jasaten dela Estatuan baino. Salbuespena dira osasunaren, gatazka sozialaren eta isolamendu sozialaren ardatzak.

## 11. TAULA

## Gizarte-bazterkeriaren dimentsio bakoitzak kaltetutako Espainiako eta Euskadiko biztanleen ehunekoaren bilkaera, biztanleria osoa, gizarte-bazterkeria egoeran daudenak eta gizarte-bazterkeria larria jasaten dutenak aintzat hartuta. 2013-2018

| | Espainia | | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2018 | Aldea 2018-2013 | 2013 | 2018 | Aldea 2018-2013 |
| **Guztira** | | | | | | |
| Enplegu- bazterkeria | 41,5 | 23,9 | **-17,6** | 27,7 | 14,5 | **-13,2** |
| Kontsumo-bazterkeria | 7,4 | 5,7 | **-1,7** | 1,5 | 4,6 | **3,1** |
| Politika-bazterkeria | 13,9 | 12,8 | **-1,1** | 9,0 | 11,8 | **2,8** |
| Hezkuntza-bazterkeria | 8,6 | 6,6 | **-2,0** | 3,8 | 3,1 | **-0,7** |
| Etxebizitza-bazterkeria | 29,3 | 23,7 | **-5,6** | 29,4 | 22,2 | **-7,2** |
| Osasun-bazterkeria | 19,8 | 14,0 | **-5,7** | 18,4 | 15,5 | **-2,9** |
| Gatazka soziala | 6,2 | 5,1 | **-1,2** | 8,1 | 5,8 | **-2,4** |
| Isolamendu soziala | 2,7 | 2,8 | **0,1** | 4,1 | 2,6 | **-1,4** |
| **Bazterkeria jasaten duen biztanleria** | | | | | | |
| Enplegu-bazterkeria | 77,1 | 56,0 | **-21,1** | 56,5 | 44,3 | **-12,2** |
| Kontsumo-bazterkeria | 29,2 | 31,0 | **1,8** | 9,0 | 30,3 | **21,3** |
| Politika-bazterkeria | 32,0 | 35,6 | **3,6** | 24,7 | 26,7 | **2,0** |
| Hezkuntza-bazterkeria | 20,1 | 19,0 | **-1,2** | 8,1 | 9,4 | **1,3** |
| Etxebizitza-bazterkeria | 58,9 | 60,1 | **1,3** | 48,6 | 58,0 | **9,4** |
| Osasun-bazterkeria | 46,1 | 50,1 | **4,0** | 42,9 | 55,5 | **12,5** |
| Gatazka soziala | 17,8 | 16,4 | **-1,5** | 31,5 | 26,5 | **-5,0** |
| Isolamendu soziala | 5,2 | 6,3 | **1,1** | 14,2 | 8,2 | **-5,9** |
| **Gizarte-bazterkeria larria jasaten duen biztanleria** | | | | | | |
| Enplegu-bazterkeria | 85,4 | 61,3 | **-24,1** | 69,9 | 56,4 | **-13,5** |
| Kontsumo-bazterkeria | 51,3 | 49,5 | **-1,8** | 14,8 | 37,9 | **23,1** |
| Politika-bazterkeria | 39,1 | 37,7 | **-1,4** | 39,9 | 34,5 | **-5,4** |
| Hezkuntza-bazterkeria | 27,6 | 21,2 | **-6,4** | 5,1 | 14,8 | **9,7** |
| Etxebizitza-bazterkeria | 78,2 | 69,3 | **-8,8** | 67,5 | 51,1 | **-16,3** |
| Osasunean -bazterkeria | 61,8 | 63,9 | **2,1** | 52,4 | 69,6 | **17,2** |
| Gatazka soziala | 23,6 | 21,7 | **-1,9** | 42,9 | 28,6 | **-14,3** |
| Isolamendu soziala | 7,3 | 6,6 | **-0,7** | 35,2 | 13,1 | **-22,1** |

Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

# 3

# Gizarte-bazterkeria jasaten duten euskal familien ezaugarriak

# Edukia


**3.1.** Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa familia-euskarriaren ikuspegitik ........ 72

**3.2.** Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa familien oinarrizko ezaugarrietatik abiatuta ........ 85

**3.3.** Gizarte-bazterkeriaren profilak Euskadin ........ 97

## 3. kapitulua

# Gizarte-bazterkeria jasaten duten euskal familien ezaugarriak

Aurreko kapituluan, Euskadiko eta Espainiako integrazio-mailaren banaketari buruzko datu nagusiak eta azken bost urteotako bilakaera jasota geratu dira. Eta integrazio- eta bazterkeria-egoerak definitzen dituzten ardatzek eta dimentsioek euskal eta espainiar biztanleengan zenbaterainoko eragina duten aztertu da halaber. Kapitulu honetan, ezaugarri soziodemografikoen arabera pertsonei eta familiei egoera horiek nola eragiten dieten aztertzen da, eta aldagai horien ikuspegitik gizarte-bazterkeria egoeran dauden familiak nola osatuta dauden. Modu horretan, Euskadiko gizarte-bazterkeriaren profila nahiz integrazio- eta bazterkeria-egoerekin lotura handiagoa duten faktore soziodemografikoak azter daitezke.

Lehenbizi familia-euskarriaren ezaugarri soziodemografikoak aztertzen dira, eta, gero, familiaren ezuagarriak bere osotasunean. Lehenengo kasuan, aldagai hauek hartzen dira aintzat: familia-euskarriaren adina, sexua, ikasketa-maila, lan-egoera eta nazionalitatea. Eta, familien ezaugarrien kasuan, honako aldagai hauek: pobrezia-egoerak, diru-sarrera motak, lan-intentsitatea, familia mota, bizitokiren tamaina eta auzo mota.

Aztertutako aldagai bakoitzean lehenbizi euskal egoera deskribatzen da, eta, gero, Euskadiren eta Espainiaren artean antzematen diren desberdintasun nagusiak azaltzen dira. Aurreko atalean ez bezala, Euskadiren eta Espainiaren 2018ko egoera aztertzen da, nahiz eta kapitulu honen 22 eta 23 tauletan taldeek 2013 eta 2018 bitartean izan duten bilakera kontsulta daitekeen.

## 3.1. Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa familia-euskarriaren ikuspegitik

### a) Intzidentzia eta banaketa adinaren arabera

12. taularen lehenbiziko panelak familien integrazio-mailaren intzidentzia jasotzen du, familia-euskarriaren adin-talde desberdinetan bananduta. Aldiz, taula berdineko bigarren panelak integrazio-maila bakoitzean familia-euskarriaren adinaren arabera banatzen ditu familiak.

**12. TAULA**

**Euskadiko familien integrazio-mailaren intzidentzia eta banaketa, familia-euskarria nagusiaren adinaren arabera. 2018**

| | Erabateko integrazioa | Integrazioa prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazioa (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| 30 baino gutxiago | 27,9 | 44,9 | 11,6 | 15,6 | 72,8 | 27,2 | 100,0 |
| 30-44 | 50,6 | 30,4 | 9,3 | 9,7 | 81,1 | 18,9 | 100,0 |
| 45-54 | 51,6 | 36,2 | 6,3 | 5,9 | 87,8 | 12,2 | 100,0 |
| 55-64 | 68,2 | 21,1 | 3,2 | 7,5 | 89,2 | 10,8 | 100,0 |
| 65-74 | 73,5 | 21,7 | 3,4 | 1,5 | 95,1 | 4,9 | 100,0 |
| 75 eta gehiago | 52,6 | 28,9 | 5,6 | 12,8 | 81,6 | 18,4 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| 30 baino gutxiago | 2,9 | 9,2 | 11,7 | 11,4 | 5,0 | 11,6 | 5,9 |
| 30-44 | 13,9 | 16,6 | 25,1 | 19,1 | 14,8 | 21,6 | 15,8 |
| 45-54 | 20,4 | 28,4 | 24,6 | 16,5 | 23,1 | 19,9 | 22,7 |
| 55-64 | 28,0 | 17,2 | 13,1 | 22,1 | 24,3 | 18,3 | 23,5 |
| 65-74 | 18,6 | 10,9 | 8,4 | 2,7 | 16,0 | 5,1 | 14,5 |
| 75 eta gehiago | 16,2 | 17,7 | 17,1 | 28,2 | 16,7 | 23,6 | 17,7 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **Batez besteko adina** | 58,4 | 54,8 | 52,5 | 56,2 | 57,2 | 54,7 | 56,9 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskadin, familia-euskarriaren adina aintzat hartuta bazterkeria-egoeren intzidentzia (moderatua eta larria) aztertzen badugu, **familia-euskarri gazteen kasuan** (% 27,2ak bazterkeria larria edo moderatua jasaten du) bereziki altua dela ikusiko dugu. Bazterkeria gehien jasaten duten beste bi taldeetan, familia-

euskarriek 30 eta 44 urte bitartean (% 18,9) eta 75 urtetik gora (% 18,49) dituzte. Alderantziz, bazterkeria-tasarik txikienak dituzten familietan, familia-euskarriek 65 eta 74 urte bitartean (% 4,9) eta 55 eta 64 urte bitartean (% 10,8) dituzte. Gazteek sustengatutako familiek bizi dute egoerarik latzena —bazterkeria-tasa moderatuak edo larriak biztanleria osoarena bikoizten du— aipatu behar da 65 urtetik 74 urtera bitarteko eta 75etik gorako familia-euskarriak dituzten familietan erabateko integrazio-tasak % 73,5etik % 52,6ra murrizten direla, eta, aldiz, bazterkeria larriaren tasak % 1,5etik % 12,8ra igotzen direla.

Desberdintasun horiei eta euskal gizartearen egiturari berari erreparatzen badiegu, gizarte-bazterkeria egoeran dauden familiek osaera zehatz bat dutela ondorioztа dezakegu. 12. taulako bigarren panelean ikus daitekeen bezala, **gizarte-bazterkeria jasaten duten euskal familien % 33,2ak 44 urtetik beherako pertsona bat du familia-euskarritzat**, alegia, bizitza-proiektu autonomoa egonkortu eta/edo seme-alabak edukitzeko adinean dagoen norbait. Euskadin, familia guztien % 21,7a dira soilik. **Edonola ere, familia gehienak 75 urtetik gorako pertsona batek sustengatzen ditu**. **Bazterkeria-egoeran dauden familien** % 23,6 eta biztanleria osoaren % 17,7 dira.

Ikuspegi konparatibotik, 30. grafikoak 2018rako Espainiako nahiz Euskadiko gizarte-bazterkeriaren (moderatua eta larria) intzidentziari buruzko datuak erakusten dizkigu, familia-euskarriaren adinaren arabera, eta aldagai horretan gizarte-bazterkeria jasaten duten familien banaketa aintzat hartuta.

Espainiako eta Euskadiko egoeren erkaketa bi ikuspegi desberdinetatik egin daiteke.

Intzidentziari erreparatuz gero, bazterkeria-tasa handiagoak erregistratzen dira 30 urtez azpikoek eta 75 urtetik gorako pertsonek sustengatutako familietan Euskadin, Espainian baino. 45 eta 74 urte bitarteko pertsonek sustengatutako familietan kontrakoa gertatzen da, eta egoera antzekoa da 30 eta 44 urte bitarteko familia-euskarriak dituztenetan.

**30. GRAFIKOA**

## Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familia-euskarri nagusiaren adinaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Familia-euskarri nagusiaren adinari erreparatuz, lurralde bakoitzean **gizarte-bazterkeria egoeran dauden familia gehienen profilari** dagokionean, batik bat nabarmentzekoak dira **75 urtetik gorakoak euskarritzat dituzten** familiak (esan bezala, Euskadin gizarte-bazterkeria egoeran dauden familien % 23,6 dira, eta % 10,6 Espainian). Aldiz, 30 eta 44 urte bitarteko pertsonek sustengatutakoak gutxiago dira.

### b) Sexuen arteko aldea gizarte-bazterkerian

Estatu espainiarrean ez bezala, **Euskadin emakumeak euskarritzat dituzten familietan bazterkeria-tasak askoz altuagoak dira, gizonak euskarritzat dituztenetan baino**: bazterkeria-egoera (larria edo moderatua) dute gizonezkoek sustengatutako familien % 10,7ak eta emakumeek sustengatutakoen % 19,1ak. Gizonak eta emakumeak euskarritzat dituzten familiek erabateko integraziotik bazterkeria larrira bitarteko tartean duten banaketari erreparatuz gero, bestelako datu interesgarriak ikus daitezke: gizonak euskarritzat dituzten familien % 60,4ak erabateko integrazioa dute, % 28,9ak integrazio prekarioa, eta % 10,7 bazterkeria-egoeran daude (moderatua eta larria). Emakumeak euskarritzat dituzten familietan, berriz, erabateko integrazioan daudenak gutxiago dira (% 52,1), integrazio prekarioan daudenen kopurua ia berdina da (% 28,8), eta bazterkeria-egoeran daudenak, esan bezala, askoz gehiago dira (% 19,1). Beraz, emakumeek sustengatutako familiek datu okerragoak dituzte,

erabateko integrazioan daudenak gutxiago direlako eta bazterkeria moderatua eta larria dutenak askoz gehiago direlako (% 100 gehiago, gutxi gorabehera).

Familia-euskarriaren sexuaren arabera taldeek duten osaerari dagokionez, euskal familien % 37,4ak emakume bat du familia-euskarri nagusitzat, eta familien % 62,4ak, berriz, gizon bat. Aitzitik, esan dugunez, bazterkeriak intzidentzia-tasa desberdinak ditu talde bietan. Hortaz, familia mota biek pareko pisua dute gizarte-bazterkerian, eta, izan ere, emakumezko familia-euskarria duten familiek (bazterkeria-egoeran dauden guztien % 51,7) gizonezko familia-euskarria duten familiek (% 48,3) baino pisu gehiago dute. Ondorioz, beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala (Nafarroa, Asturias eta Galizia salbu), **esan dezakegu Euskadin bazterkeria emakumezkotzen ari dela**, familia-euskarri nagusiari dagokionez eta baztekeria-egoera guztiak (moderatua eta larria) kontuan hartzen direnean behintzat.

**13. TAULA**

**Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familia-euskarri nagusiaren sexuaren arabera. 2018**

| | Erabateko integrazioa | Integrazioa prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazioa (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Gizonak | 60,4 | 28,9 | 4,4 | 6,2 | 89,3 | 10,7 | 100,0 |
| Emakumeak | 52,1 | 28,8 | 8,1 | 11,0 | 80,9 | 19,1 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Gizonak | 66,0 | 62,6 | 47,8 | 48,6 | 64,8 | 48,3 | 62,6 |
| Emakumeak | 34,0 | 37,4 | 52,2 | 51,4 | 35,2 | 51,7 | 37,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskadiko egoera estatu espainiarrean oro har gertatzen denaren oso bestelakoa da. Bazterkeria-egoeren intzidentziari so eginez, Euskadiko tasak Espainiakoak baino txikiagoak dira familia-euskarria nagusia gizonezkoa denean, eta antzekoak, berriz, familia-euskarri nagusia emakumezkoa denean. **Horrenbestez, Euskadiren eta Espainiaren arteko diferentzien arrazoia ez da emakumeak euskarritzat dituzten familiek egoera okerragoa dutela, baizik eta gizonak euskarritzat dituzten familiek egoera okerragoa dutela.** Edonola ere, diferentzia horien eta emakumea euskarritzat duten familiek euskal egitura

soziodemografikoan duten pisua handiagoaren ondorioz, Euskadin emakumea euskarritzat duten familiek pisu handiagoa dute gizarte-bazterkerian, Espainian baino: gizarte-bazterkerian dauden familien kasuan, Euskadin emakumezko euskarria duten familiak % 51,7 dira, eta Espainian, berriz, % 39,3.

### 31. GRAFIKOA

### Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familia-euskarri nagusiaren sexuaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### c) Ikasketa-maila faktore babesletzat

Familia-euskarri nagusiaren ikasketa-mailak lotura argia dauka bazterkeria-egoerak jasateko eta integrazio prekarioa izateko arriskuarekin. Ildo horretatik, oraindik ere hezkuntza faktore erabakigarria da gizarte-bazterkeriaren dinamiketan. Espainian oro har gertatzen den eta inkesta honen hasieratik errepikatu den legez, Euskadin ere **ikasketa-maila handia izateak bazterkerian egoteko aukerak murrizten** ditu. Hala ere, estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, Euskadin taldeen arteko aldea txikiagoa da, eta bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak daude egoerarik onenean.

Nolanahi ere, Euskadin ere familia-euskarri nagusiak ikasketarik ez izateak bazterkeria-tasa handiagoak dakartza. Zehazki, familia-euskarri nagusiak ez dituenean oinarrizko ikasketak bukatu bazterkeriaren intzidentzia ia zazpi puntu altuagoa da (% 19), familia-euskarri nagusiak unibertsitate-ikasketak edo bigarren mailakoak dituenean baino (% 12,4 eta % 12,1 hurrenez hurren) eta lehen mailako ikasketak dituenean baino bost puntu handiagoa (% 13,7). Egoera oso bestelakoa da familia-euskarriak bigarren mailako edo goi-mailako

ikasketak egin dituenean, erabateko integrazioaren tasa askoz altuagoa baita (% 66,3 lehen kasuan eta % 62,5 bigarrenean). Hala ere, goi-mailako ikasketak dituzten familia-euskarrien artean, nabarmentzekoa da ere gizarte-bazterkeria larrian daudenen ehunekoa handia izatea (% 9,4). Laburbilduz, bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak izatea pizgarritzat har daiteke Euskadin, erabateko integrazioari dagokionean; baina ikasketa-maila txikien eta bazterkeria-maila altuen arteko lotura ez da automatikoa.

Familia-euskarri nagusiaren ikasketa-mailak gizarte-bazterkerian duen inpaktua moderatua izatearen eta euskal biztanleriak hezkuntzaren arloan duen egituraren ondorioz, gizarte-bazterkerian dauden familien konposizioa orekatua da eremu honetan. 14. taularen arabera, euskal familien % 19,7tan familia-euskarriak ez du ikasketarik edo ez ditu ikasketak bukatu, % 18,2tan eskola-graduatua, DBH edo oinarrizko batxilergoa du, % 35,3tan batxilergoa, BBB edo LH du, eta % 26,8tan, berriz, goi-mailako ikasketak. **Alabaina, bazterkeriaren eremu sozialean, talderik handienean familia-euskarriak bigarren mailako ikasketak ditu (% 31).** Halaber, biztanlerian duten benetako pisuaren kopuru proportzionala dute ere goi-mailako ikasketak dituen pertsona batek sostengatutako familiek (bazterkeria-egoeran dauden familia guztien % 24 dira) eta lehen mailako ikasketak dituzten pertsonek sostengatutakoak (% 18). Aitzitik, pisu demografiko txikiagoa duten arren, ikasketarik ez duten edo ikasketak bukatu ez dituzten pertsonek sostengatutako familiak gizarte-bazterkerian dauden familien % 27 da, bazterkeria-tasa altuagoak dituztelako.

Datu horietatik ondorio argi samarra atera dezakegu: familia-euskarri nagusiaren ikasketa-mailari dagokionez, Euskadiko bazterkeriaren eremu soziala euskal gizartea bera bezain anitza da, ikasketa-mailak inpaktu txikiagoa duelako gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan eta egitura demografikoa orekatua delako arlo horretan.

### 14. TAULA
## Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familia-euskarri nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 2018

| | Erabateko integrazioa | Integrazioa prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazioa (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe edo ikasketak bukatu gabe | 46,1 | 34,9 | 7,2 | 11,8 | 81,0 | 19,0 | 100,0 |
| Eskola-graduatua, DBH edo oinarrizko batxilergoa | 44,4 | 41,9 | 6,3 | 7,4 | 86,3 | 13,7 | 100,0 |
| Batxilergoa, BBB edo LH | 66,3 | 21,5 | 6,9 | 5,2 | 87,9 | 12,1 | 100,0 |
| Goi-mailako ikasketak | 62,5 | 25,1 | 3,0 | 9,4 | 87,6 | 12,4 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe edo ikasketak bukatu gabe | 15,8 | 23,8 | 24,4 | 28,9 | 18,5 | 27,0 | 19,7 |
| Eskola-graduatua, DBH edo oinarrizko batxilergoa | 14,1 | 26,4 | 19,8 | 16,7 | 18,2 | 18,0 | 18,2 |
| Batxilergoa, BBB edo LH | 40,9 | 26,4 | 42,1 | 23,0 | 36,0 | 31,0 | 35,3 |
| Goi-mailako ikasketak | 29,2 | 23,3 | 13,7 | 31,5 | 27,3 | 24,0 | 26,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Talde horiek Espainian duten egoerari dagokionez, ikasketa-maila txikiak eta ertainak dituztenek bazterkeria-egoerak (moderatua eta larria) jasateko arrisku txikiagoa dute Euskadin estatuko gainontzeko erkidegoetan baino; goi-mailako ikasketak dituztenen kasuan, ordea, bazterkeria-tasa handiagoak dira. Horrenbestez, gizarte-bazterkeriari dagokionean, ikasketa-maila altuak ematen duen abantaila edo prima osagarria txikiagoa da Euskadin Espainian baino. Desberdintasun horien eta Euskadiko eta Espainiako biztanleek ikasketa-mailaren arloan duten egituraren ondorioz, Euskadin ikasketa-maila txikiak dituzten pertsonek sostengatutako familiek pisu txikiagoa dute bazterkeriaren eremuan Espainian baino, eta, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonek sostengatutako familiek, berriz, handiagoa. Horrek esan nahi du Euskadin bazterkeriaren eremu sozialaren hezkuntza-egitura askoz anitzagoa dela.

## 32. GRAFIKOA
**Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familia-euskarri nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### d) Lan-egoera eta gizarte-bazterkeriarekin duen lotura

Espero zitekeen legez, familia-euskarri nagusiaren lan-egoera bazterkeria eta integrazio sozialarekin estu lotuta dago, eta langabeziaren eta bazterkeriaren arteko lotura argia da. 15. taulako datuen arabera, **lan bila dabilen pertsona bat euskarritzat duten familien % 69,9 gizarte-bazterkeria moderatuan edo larrian daude, eta lanean daudenen edo erretiratuta edo aurretik erretiratuta dauden pertsona bat euskarritzat dutenenen % 11,8 eta % 8,7 ere bai, hurrenez hurren.**

Gainera, lanaren ikuspegitik aztertutako hiru talde nagusietan (familia-euskarria lanean, langabezian eta erretiratuta), diferentzia nabarmenak daude integraziotik bazterkeriara doan continuumean. Lehenbizikoen kasuan, % 58,4 erabat integratuta daude, % 29,9k integrazio moderatua dute, eta % 12 inguru bazterkeria moderatuan edo larrian daude. Pertsona langabetuek sustengatutakoen kasuan, ordea, ez dago familiarik integrazioaren eremuan **(7)**. Izan ere, familia horietako gehienak bazterkeria-egoera larrian daude (% 54,5). Erretiratuen kasuan, familien egoera lanean dauden familia-euskarrienen

**(7)** Inkestako laginean ez dago erabateko integrazioan dagoen familiarik langabetuek sustengatutakoen kasuan; baina, logikoa denez, horrek ez du esan nahi ez dagoela batere horrelakorik. Hala ere, argi erakusten du, talde horretan erabateko integrazioan daudenak horren gutxi direla, ezen ez diren biztanleria orokorrari etxez etxe egindako inkestetan antzematen.

antzekoa da, eskalako bi talde nagusiei erreparatuz gero (integrazioa eta bazterkeria); baina egoera oso bestelakoa da integrazio prekarioa eta bazterkeria moderatua delako aldagaiei begiratzen zaienean. Hain zuzen ere, familia-euskarria erretiratuta dagoen kasuetan, % 27 integrazio prekarioan dago, eta % 64,3, berriz, erabateko integrazioan. Familia-euskarria lanean dagoenean, % 29,9 integrazio prekarioan dago eta % 58,4 erabateko integrazioan.

**15. TAULA**

**Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familia-euskarri nagusiaren lan-egoeraren arabera. 2018**

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazioa (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Lanean dago | 58,4 | 29,9 | 5,8 | 6,0 | 88,2 | 11,8 | 100,0 |
| Lan bila dabil | 0,0 | 30,1 | 15,4 | 54,5 | 30,1 | 69,9 | 100,0 |
| Erretiratuta edo aurretik erretiratuta dago | 64,3 | 27,0 | 2,6 | 6,1 | 91,3 | 8,7 | 100,0 |
| Bestelako egoerak | 55,4 | 27,8 | 8,7 | 8,1 | 83,2 | 16,8 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Lanean dago | 56,9 | 57,9 | 55,5 | 41,6 | 57,2 | 47,5 | 55,9 |
| Lan bila dabil | 0,0 | 3,6 | 9,2 | 23,5 | 1,2 | 17,5 | 3,5 |
| Erretiratuta edo aurretik erretiratuta dago | 27,4 | 22,8 | 10,9 | 18,5 | 25,9 | 15,3 | 24,4 |
| Bestelako egoerak | 15,7 | 15,7 | 24,5 | 16,4 | 15,7 | 19,8 | 16,3 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Inkestako laginean ez dago erabateko integrazioan dagoen familiarik langabetuek sustengatutakoen kasuan; baina, logikoa denez, horrek ez du esan nahi ez dagoela batere horrelakorik. Hala ere, argi erakusten du, talde horretan erabateko integrazioan daudenak horren gutxi direla, ezen ez diren biztanleria orokorrari etxez etxe egindako inkestetan antzematen.

Familia-euskarri nagusiaren lan-egoerak gizarte-bazterkerian duen intzidentzian dauden alde horiek —epigrafe honetan aztertutako beste aldagaietan bezala— erakusten digute bazterkeria-egoeran dauden euskal familiek banaketa jakina dutela, eta euskal biztanleriak lanaren eremuan duen osaerarekin ere lotuta daudela.

Zehazki, euskal familien % 55,9tan, familia-euskarria lanean dago, % 24,4tan erretiratuta edo aurretik erretiratuta, % 3,5tan lan bila dago, eta % 16,6tan bestelako egoeretan. Bazterkeriaren eremuan, egoera horiek banaketa desberdina dute, baina ez horren desberdina. **Talde nagusia (% 47,5) lanean dagoen pertsonek sustengatutako familiak dira**, eta beste hiru taldeen banaketa ia berdina da: bazterkeria-egoeran dauden familien % 19,8tan, familia-euskarria aipatutako egoerez bestelakoetan dago; % 17,5tan, lan bila dago, eta % 15,3tan, erretiratuta edo aurretik erretiratuta. Ildo horretatik, aurrerago xehetasunez ikusiko dugun bezala, gizarte-babeseko prestazioak jasotzea bazterkeria ekiditeko faktore garrantzitsua da. Euskadin, familen % 24,4ak erretiratuta edo aurretik erretiratuta dauden pertsona bat du euskarritzat, baina horietako % 15,3 baino ez dago bazterkeria-egoeran.

EAEko datuak Espainiakoekin alderatzen baditugu, ez dugu desberdintasun handirik aurkitzen talde bakoitzean bazterkeriak duen intzidentziaren tasetan. Edonola ere, nabarmentzekoa da **lan bila dauden pertsonak euskarritzat dituztenen taldean bazterkeria-tasak txikiagoak** direla (% 69,9 EAEn eta % 76,2 Espainian). Aldeak handiagoak dira bazterkerian dauden taldeen konposizioari dagokionean. Izan ere, **Euskadin, lanean dauden pertsonek sustengatutakoen artean familia gehiago daude bazterkeria-egoeran (% 47,5 EAEn eta % 43 Espainian) eta langabetuek sustengatutako familien kasuan, intzidentzia txikiagoa da (% 17,5 EAEn eta % 24,5 Espainian)**, langabezia gutxiago dagoelako eta bazterkeria-arriskuaren kontrako babes handiagoa ematen zaielako familia horiei.

## 33. GRAFIKOA

## Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familia-euskarri nagusiaren lan-egoeraren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## e) Nazionalitatea arrisku-faktoretzat

Emaitzak aurkeztean aipatu dugun bezala, krisi ekonomikoak indarrez jo zituen Europar Batasunaz kanpoko biztanleak Estatu osoan, eta, oraindik ere, ondorio gogorrak antzeman dira. Biztanle espainiarrekin eta EBko estatu-kideetako biztanleekin bazterkeriaren eremuan dauden aldeetan ikus daiteke hori. Euskadiren kasuan ere, etorkinak egoera kritikoan daude: **EBz kanpoko nazionalitatea duten pertsonek sustengatutako familien % 34,1 bazterkeria-egoeran dago**, eta talde horren bi heren baino gehiago bazterkeria larrian dago.

Beste aldagaien kasuan bezala, 16. taulak aztertutako egoera bakoitzaren intzidentzia jasotzen du, familia-euskarri nagusiaren nazionalitatearen ikuspegitik (espainiarra, EB 28ko estatu-kideetakoa eta EBz kanpokoa), eta baita talde bakoitzak integrazio/bazterkeria eskalan duen osaera, familia-euskarri nagusiaren nazionalitateari dagokionez. Bazterkeria-egoeren intzidentziari dagokionez, **agerikoa da Euskadin EBz kanpoko pertsonek sustengatutako familiek bazterkeria jasateko arrisku handiagoa dutela** (familien % 34,1, hain zuzen ere; nazionalitate espainiarra dutenen kasuan, berriz, % 12,7ak du arrisku hori). **Era berean, bazterkeria-tasa oso altuak daude EB 28ko beste herrialdeetako pertsonak euskarritzat dituztenen kasuan (% 29,9). Alabaina, familia mota horretan, EBz kanpokoen kasuan ez bezala, gehienak bazterkeria moderatuan daude.** Atzerritarrez osatutako bi taldeek integrazio-eredu oso desberdinak dituzte: nahiz eta bi taldeetan integrazio-egoeran dauden familien ehunekoa antzekoa izan (% 70,1 eta % 65,9), EBko herrialdeetako nazionalitatea dutenek sustengatutako familien % 48,7 erabateko integrazioan dago. Batasunaz kanpoko nazionalitatea dutenen kasuan, % 4 baino ez dago erabat integratuta.

Edonola ere, Europar Batasunaz kanpoko pertsonak euskarritzat dituzten familietan bazterkeriak intzidentzia gehiago izateak ez du esan nahi horiek direnik Euskadin bazterkeria-egoera dauden familia gehienak. Hain zuzen ere, talde horren osaerari erreparatuz, **% 10,6tan baino ez da familia-euskarria EBz kanpokoa. Gizarte-bazterkeriaren profila Euskadin espainiar nazionalitateko pertsonek sustengatutako familiek osatzen dute gehienbat; zehazki, talde horretako familien guztien % 87,3 dira.** Batasunaz kanpoko nazionalitatea duten pertsonek sustengatutako familiak areagotzen dira, integrazioa/bazterkeria eskalako egoera okertu ahala: erabateko integrazioan dauden familien % 0,3 dira soilik, eta bazterkeria larrian daudenen % 13,1.

Espainiako eta Euskadiko egoerak bi ikuspegi desberdinetatik erka daitezke.

Lehenik, bazterkeriak (moderatua eta larria) lurralde bakoitzean duen intzidentzia azter daiteke, familia-euskarria EBz kanpokoa, EBkoa eta espainiarra denean.

Familia-euskarria Batasunaz kanpokoa denean, bezterkeria-tasa orokorrak nabarmen txikiagoak dira Euskadin (% 34,1) Espainian (% 45,2) baino. EB 28ko biztanleen kasuan, kontrakoa gertatzen da: Euskadin, % 29,9 bazterkeria-egoeran dago, eta Espainian, berriz, % 20,4. Nazionalitate espainiarra duten pertsonek sustengatutako familiak zertxobait gutxiago dira Euskadin Espainian baino, baina aldea ez da esanguratsua (% 12,7 eta % 15,4 hurrenez hurren).

**16. TAULA**

## Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familia-euskarri nagusiaren nazionalitatearen arabera. 2018

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazio (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Espainiarra | 59,8 | 27,4 | 5,5 | 7,3 | 87,3 | 12,7 | 100,0 |
| Gainerako EB-28 | 48,7 | 21,4 | 22,3 | 7,6 | 70,1 | 29,9 | 100,0 |
| Batasunaz kanpo | 4,0 | 62,0 | 9,8 | 24,3 | 65,9 | 34,1 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Espainiarra | 98,9 | 90,0 | 89,0 | 86,0 | 95,9 | 87,3 | 94,7 |
| Gainerako EB-28 | 0,8 | 0,7 | 3,8 | 0,9 | 0,8 | 2,1 | 1,0 |
| Batasunaz kanpo | 0,3 | 9,3 | 7,3 | 13,1 | 3,3 | 10,6 | 4,3 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bigarren ikuspegiak lurralde bakoitzean bazterkeria-egoeran dauden familien profil nagusia aztertzen du. Espainian, Europar Batasunaz kanpoko nazionalitatea duten pertsonek sustengatutako familiak zertxobait gehiago dira Euskadin baino (% 15,9 eta % 10,6 hurrenez hurren). Nazionalitate espainiarra duten pertsonek sustengatutako familien kasuan alderantzizkoa gertatzen da. Izan ere, azken horiek Euskadin bazterkeria-egoeran daudenen % 87 dira, eta Estatuan, berriz, % 80,3.

### 34. GRAFIKOA

**Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familia-euskarri nagusiaren nazionalitatearen arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 3.2. Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa familien oinarrizko ezaugarrien arabera

Aurreko epigrafean, integrazio- eta bazterkeria-mailak familia-euskarri nagusiaren ezaugarri soziodemografikoen arabera aztertu ditugu. Epigrafe honetan, familia osatzen duten pertsonen ezaugarrien arabera aztertuko ditugu, hala nola pobrezia ekonomikoko egoerak, diru-sarrera mota, lan-intentsitatea, familia mota eta bizitokiaren tamaina eta bizi diren auzoa. Aurreko epigrafean bezala, bazterkeria-egoeren intzidentzia eta egoera horretan dauden taldeen osaera aztertuko ditugu, baita Estatu espainiarrarekin alderdi bakoitzean dauden aldeak ere.

### a) Diru-probeziak duen eragina familiek gizarte-bazterkeria jasatean

Pobrezia ekonomikoan bizitzeak integrazioan eta bazterkerian eragiten duen faktore erabakigarrietako bat da —txosten honetan darabilgun bazterkeria-adierazle sintetikoaren egituraren ondorioz—, eta, beraz, logikoa dirudi gizarte-bazterkeria eta pobrezia ekonomikoa eta batik bat pobrezia larria (diru-sarrera baliokideen mediana % 30etik behera egotea) eta bazterkeria larria lotuta egotea. Dena dela, pobrezia ekonomikorik gabeko familietan ere ematen dira bazterkeria-egoerak, eta 17. taularen arabera, **probreziarik gabeko familien % 62,6 erabateko integrazio-egoeran dago, % 28,5ak integrazio prekarioa jasaten du, % 4,9ak bazterkeria moderatua eta % 4ak bazterkeria larria**. Agerikoa denez, ehunekoak alderantzizkoak dira pobrezia ekonomiko larria duten familietan: horietako bat ere ez dago erabat integratuta, eta % 63,1 bazterkeria larrian dago.

Beste ikuspegi batetatik begiratuta, garrantzitsua da azpimarratzea **bazterkeria-egoeran (moderatua eta larria) dauden euskal familien % 56,4 ez dagoela pobrezia-egoeran, eta horietako % 30,7k baino ez duela pobrezia larria**.

Hain zuzen ere, integrazioa eta bazterkeria pobrezia-mailaren arabera aztertu beharrean talde bakoitzak aldagai horretan duen osaera aztertzen badugu, ikusiko dugu **bazterkerian dauden familia gehienak ez direla pobreak (% 56,4). Hala ere, pobrezia larrian dauden familiek ere pisu handia dute (% 30,7**). Integrazioari erreparatzean, ordea, pobreak ez diren familiak dira nagusi, argi eta garbi (% 92,8). Horrenbestez, integrazioa eta pobrezia bateraezinak dira, baina ez da berdina gertatzen bazterkeriarekin eta pobreziarik gabeko egoerekin.

**17. TAULA**

**Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familia-euskarri nagusiaren diru-pobreziaren* arabera. 2018**

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazio (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Pobreziarik ez | 62,6 | 28,5 | 4,9 | 4,0 | 91,1 | 8,9 | 100,0 |
| Pobrezia baina ez larria | 30,9 | 46,8 | 10,7 | 11,6 | 77,7 | 22,3 | 100,0 |
| Pobrezia larria | 0,0 | 0,0 | 36,9 | 63,1 | 0,0 | 100,0 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Pobreziarik ez | 95,7 | 87,0 | 63,9 | 49,3 | 92,8 | 56,4 | 87,7 |
| Pobrezia baina ez larria | 4,3 | 13,0 | 12,8 | 13,1 | 7,2 | 12,9 | 8,0 |
| Pobrezia larria | 0,0 | 0,0 | 23,3 | 37,6 | 0,0 | 30,7 | 4,2 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

*Pobrezia-tasak kalkulatzean, ez dira galdutako balioak kontuan hartu, hau da, ez dira aintzat hartu diru-sarrerei buruzko informazio fidagarria eman ez duten kasuak.
Iturria: EINSFOESSA 2018.

Pobreziaren eta bazterkeriaren arteko loturari dagokionez, ez dago alde esanguratsurik Euskadiren eta Espainiaren artean. Horretan salbuespen da pobrezia ez larrian dauden familiek bazterkeria jasateko duten arriskua, Estatu espainiarrean handiagoa baita (% 32,2 Estatuan eta % 22,3 Euskadin). Nolanahi ere, pobreak ez diren familia gehiago daudenez eta Euskadin bazterkeria jasateko arrisku gutxiago duten arren, nabarmentzekoa da erkidegoan pobreak

ez diren familiek eta pobrezia larria duten familiek pisu handiagoa izatea bazterkeriaren eremu sozialean.

**35. GRAFIKOA**

**Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familia-euskarri nagusiaren diru-pobreziaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## b) Diru-sarrera motak familietan duen eragina

Nahiz eta adinarekin eta lan-egoerarekin lotuta dagoen —eta azterketa honen emaitzak ikuspegi horietatik egindako azterketen emaitzen oso antzekoak dira—, komenigarria da bazterkeriaren eta integrazioaren eta familia bakoitzaren diru-sarrera motaren arteko lotura aztertzea. Horretarako, lagineko familiak lau talde handitan multzokatu ditugu, dituzten diru-sarreren arabera: jarduera ekonomikoaren diru-sarreran baino ez dituztenak, diru-sarrera mota hori eta gizarte-babesekoak (pentsioak, subsidioak, gutxieneko errentak, etab.) konbinatzen dituztenak, gizarte-babeseko sistemen diru-sarrerak baino ez dituztenak eta diru-sarrerarik ez dutenak.

Bazterkeriak familia talde horietako bakoitzean duen intzidentzia aztertzen badugu, ikusten dugu muturreko egoeran daudela, logikoa denez, diru-sarrerarik ez duten familiak. Hain zuzen ere, horietako % 50,2 bazterkerian dago eta beste % 49,8 integrazio prekarioan. Beste hiru taldeetan, bazterkeria-egoerek talde bakoitzaren % 11,3, % 16,2 eta % 15,2 hartzen dute, hurrenez hurren, eta, beraz, ezin dugu esan alde esanguratsurik dagoenik —aldeak dauden arren—. Bazterkeriaren osaera sozialari so eginez, jardueraren diru-sarrerak jasotzen

dituztenak bazterkerian dauden familia guztien % 39,9 dira, eta pentsioak edo subsidioak bakarrik jasotzen dituztenak, berriz, % 38,9. Bestalde, % 18 dira jardueraren eta gizarte-babesen diru-sarrerak konbinatzen dituztenak. Diru-sarrerarik ez dutenen taldea —esan bezala, bazterkeria-tasa handiagoak dituzten arren, biztanlerian pisu gutxi dutenez— bazterkerian dauden familien % 3,3 baino ez dira.

Zer desberdintasun dago Euskadiren eta Espainiaren artean bazterkeria-mailaren eta familiak jasotako diru-sarreren arteko loturari dagokionez? Intzidentziaren ikuspegitik, desberdintasun nagusiena da Euskadin inolako diru-sarrerarik ez duten familien artean bazterkeria-tasak txikiagoak direla (% 50,2 Euskadin eta % 72 Estatu espainiarrean). Halaber, beste hiru taldeak ere egoera hobean daude, baina aldeak ez dira aipatutako kasuan bezain nabarmenak —gizarte-babesen diru-sarrerak baino jasotzen ez dituztenen kasuan salbu—. Nolanahi ere, taldearen osaerari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da Euskadin babes-sistemaren diru-sarrerak soilik jasotzen dituzten familiek pisu handiagoa dutela (% 38,9 Euskadin eta % 32,8 Estatuan) eta inolako diru-sarrerarik jasotzen ez dutenek pisu txikiagoa dutela (bazterkerian daudenen % 3,3 Euskadin eta % 7 Estatuan).

## 18. TAULA

## Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familien diru-sarrera motaren arabera. 2018

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazio (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Jardueraren diru-sarrerak soilik | 57,1 | 31,6 | 6,1 | 5,2 | 88,7 | 11,3 | 100,0 |
| Jardueraren eta babesen diru-sarrerak | 52,6 | 31,1 | 11,4 | 4,9 | 83,8 | 16,2 | 100,0 |
| Babesaren diru-sarrerak soilik | 61,4 | 23,4 | 5,0 | 10,2 | 84,8 | 15,2 | 100,0 |
| Inolako diru-sarrerarik gabe | 0,0 | 49,8 | 29,2 | 20,9 | 49,8 | 50,2 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Jardueraren diru-sarrerak soilik | 48,3 | 53,3 | 44,0 | 35,9 | 50,0 | 39,9 | 48,6 |
| Jardueraren eta babesen diru-sarrerak | 14,0 | 16,5 | 25,8 | 10,5 | 14,8 | 18,0 | 15,3 |
| Babesaren diru-sarrerak soilik | 37,7 | 28,7 | 26,2 | 50,9 | 34,7 | 38,9 | 35,3 |
| Inolako diru-sarrerarik gabe | 0,0 | 1,6 | 3,9 | 2,7 | 0,5 | 3,3 | 0,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 36. GRAFIKOA
## Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familien diru-sarrera motaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### c) Familien lan-intentsitatea

Integrazio- eta bazterkeria-mailak familien lan-intentsitatearen araberakoak ere badira, hau da, familietako pertsona helduek urtero lanari dedikatzen dioten ordu kopuruaren araberakoak. Analisi hau egiteko, lan-intentsitatea EU-SILC inkestaren "lan-intentsitate txikia" adierazlearen antzeko irizpideak erabili ditugu kalkuluetan **(8)**.

Euskal familiek lan-intentsitateko eskala horretan hartzen duten lekuaren arabera gizarte-bazterkeriak (moderatua eta larria) daukan intzidentziari erreparatzen badiogu, argi ikusiko dugu **bazterkeria handitzen dela lan-intentsitatea jaitsi ahala**. Hala ere, **ezin daiteke esan bi aldagaien arteko lotura lineala denik beti**. Hain zuzen, erabateko integrazioa ohikoagoa da lan-intentsitatea handitu ahala, eta bazterkeria larriaren kasuan, alderantzizkoa gertatzen da. Nolanahi ere, lan-intentsitate txiki batek ez du esan nahi bazterkeria dagoenik. Izan ere, lan-intentsitate txikiko edo oso txikiko familien % 65,9 eta % 49,2, hurrenez hurren, integrazio-egoeran dago. Kasu horietan, integrazio prekarioa da nagusi.

**(8)** Ondoren jasotako adierazleak 18 eta 59 urte bitarteko pertsonek eratutako familien lan-intentsitatea neurtzen du, lan egiteko adinean dauden pertsonek urtero lan egiten duten ordu kopuruaren arabera (18 eta 24 urte bitarteko ikasleak ez dira aintzat hartzen). Familia baten lan-intentsitatea 0tik 1era bitarteko eskalan kalkulatu da: 0 lan-jarduerarik ez dagoenean eta 1 lan-jarduera erabatekoa denean. Eskala hori oinarritzat hartuz, itentsitate oso baxutik (0,2tik beherakoa) eta itentsitate handienera (0,8tik gora) bitartean, lau egoera desberdin identifikatu dira.

Ondoren jasotako adierazleak 18 eta 59 urte bitarteko pertsonek eratutako familien lan-intentsitatea neurtzen du, lan egiteko adinean dauden pertsonek urtero lan egiten duten ordu kopuruaren arabera (18 eta 24 urte bitarteko ikasleak ez dira aintzat hartzen). Familia baten lan-intentsitatea 0tik 1era bitarteko eskalan kalkulatu da: 0 lan-jarduerarik ez dagoenean eta 1 lan-jarduera erabatekoa denean. Eskala hori oinarritzat hartuz, itentsitate oso baxutik (0,2tik beherakoa) eta itentsitate handienera (0,8tik gora) bitartean, lau egoera desberdin identifikatu dira.

Era berean, lan-intentsitate handia izateak ez du bazterkeria-arriskuaren kontra babesten beti: lan-intentsitate ertaina-handia duten familien % 23,1 eta lan-intentsitate handia duten familien % 6,8 bazterkeria-egoeran daude. Kasu bietan, bazterkeria moderatuak eta larriak banaketa ia berdina dute.

Izan ere, Euskadin, **gizarte-bazterkerian dauden familien profila ez dago lan-intentsitate txikiarekin lotuta**: nahiz eta bazterkeria-egoeran dauden familien % 37,4ak (eta bazterkeria larrian dauden familien % 45,9ak) lan-intentsitate oso txikia duten —hau da, pertsona langabetuak dira edo lan-dedikazioa oso murritza da—, euskal familien % 11,5 baino ez dira, eta lan-intentsitate ertaina-handia eta handia duten familiak bazterkeria-egoeran dauden guztien % 56,9 eta bazterkeria larrian daudenen % 50,4 dira.

## 19. TAULA

### Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familien lan-intentsitatearen arabera. 2018

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazio (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| Oso txikia (<0,2) | 11,2 | 37,9 | 13,7 | 37,1 | 49,2 | 50,8 | 100,0 |
| Ertaina-txikia (0,20-0,39) | 4,7 | 61,1 | 20,9 | 13,3 | 65,9 | 34,1 | 100,0 |
| Ertaina-handia (0,40-0,79) | 43,8 | 33,2 | 9,4 | 13,7 | 76,9 | 23,1 | 100,0 |
| Handia (0,80-1,00) | 65,9 | 27,3 | 3,6 | 3,2 | 93,2 | 6,8 | 100,0 |
| Guztira | 53,8 | 30,5 | 6,3 | 9,3 | 84,3 | 15,7 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| Oso txikia (<0,2) | 2,4 | 14,4 | 24,9 | 45,9 | 6,7 | 37,4 | 11,5 |
| Ertaina-txikia (0,20-0,39) | 0,2 | 5,2 | 8,5 | 3,7 | 2,0 | 5,6 | 2,6 |
| Ertaina-handia (0,40-0,79) | 15,4 | 20,6 | 28,2 | 27,7 | 17,3 | 27,9 | 19,0 |
| Handia (0,80-1,00) | 81,9 | 59,8 | 38,4 | 22,7 | 73,9 | 29,0 | 66,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Espainiar estatuarekin alderatuz, nabarmentzekoa da, batetik, Euskadiko bazterkeria-tasa zertxobait baxuagoa dela lan-intentsitate ertaina-txikia duten familien kasuan (% 34,1 Euskadin eta % 39,1 Estatuan). Gainontzeko kasuetan, bazterkeria-mailak antzekoak dira bi lurraldeetan. Bazterkerian dauden familien taldearen osaerari dagokionez, ez dago oso diferentzia nabarmenik. Dena den, nabarmentzekoa da Euskadin pisu handiagoa dutela lan-intentsitate ertaina-altua duten familiek (% 29 Euskadin, eta % 23,6 Espainian). Horrenbestez, ondoriozta daiteke Euskadin gizarte-bazterkeriak lotura handiagoa duela lan-intentsitatearekin Espainian baino, familia horiek pisu handiagoa dutelako euskal lan-egituran.

### 37. GRAFIKOA

### Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familien lan-intentsitatearen arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## d) Familia motak

Egoera ekonomikoaz, diru-sarrera motaz eta lan-intentsitateaz gain, komenigarria da ere familiaren tamainaren eta bazterkeria-egoeren arteko lotura aztertzea. Horretarako, euskal familiak kide kopuruaren arabera multzokatu dira, eta honako hauek bereizi ditugu: pertsona bakarrekoak, bi eta lau pertsona bitartekoak, eta tamaina handikoak (bost pertsona baino gehiago). Halaber, guraso bakarreko familiak eta behintzat adingabe bat dutenak ere sartu dira analisian.

**Adingabeak eta gazteak dituzten familietan metatzen dira bazterkeria-egoeran dauden biztanle-ehunekorik handienak.** 2018an Espainian lortutako

datuek agerian uzten dute ez garela krisiak eragindako egoera lehengoratzeko gai izan, iraganean bazterkeria-ehuneko handienak 65 urte eta gehiagokoen artean zeudelako. Adingabeak eta gazteak dituzten familiek gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daude bereziki, eta hori joera kezgarria da, krisiaren eta suspertze ekonomikoaren ondoren egiturazko fenomeno bilakatu baita.

## 20. TAULA
## Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, familia motaren arabera. 2018

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazio (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| 1 pertsonako familia | 49,1 | 35,4 | 6,1 | 9,4 | 84,5 | 15,5 | 100,0 |
| 2-4 pertsonako familia | 64,0 | 24,1 | 5,2 | 6,7 | 88,1 | 11,9 | 100,0 |
| 5 pertsona edo gehiagoko familia | 24,8 | 48,0 | 11,8 | 15,4 | 72,8 | 27,2 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| Guraso bakarreko familia | 44,3 | 35,6 | 10,4 | 9,7 | 79,9 | 20,1 | 100,0 |
| Ez da guraso bakarreko familia | 58,9 | 28,0 | 5,2 | 7,8 | 87,0 | 13,0 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| 18 urtetik beherako adingaberen bat | 47,3 | 30,5 | 11,6 | 10,6 | 77,8 | 22,2 | 100,0 |
| 18 urtetik beherako adingaberik ez | 59,6 | 28,5 | 4,5 | 7,4 | 88,1 | 11,9 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| 1 pertsonako familia | 26,3 | 37,6 | 32,4 | 35,9 | 30,1 | 34,5 | 30,7 |
| 2-4 pertsonako familia | 71,4 | 53,5 | 56,7 | 53,7 | 65,4 | 55,0 | 63,9 |
| 5 pertsona edo gehiagoko familia | 2,3 | 8,9 | 10,9 | 10,3 | 4,5 | 10,6 | 5,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Guraso bakarreko familia | 8,6 | 13,7 | 19,8 | 13,5 | 10,3 | 16,2 | 11,1 |
| Ez da guraso bakarreko familia | 91,4 | 86,3 | 80,2 | 86,5 | 89,7 | 83,8 | 88,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| 18 urtetik beherako adingaberen bat | 15,3 | 19,5 | 37,1 | 24,4 | 16,7 | 29,7 | 18,5 |
| 18 urtetik beherako adingaberik ez | 84,7 | 80,5 | 62,9 | 75,6 | 83,3 | 70,3 | 81,5 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskadin talde horietan ematen diren bazterkeria-egoerak aztertu eta gero, ikusi da **familia ugariak eta gurasobakarrak direla bazterkeria jasateko arrisku gehien dutenak** oraindik ere (% 27,2 eta % 20,1, hurrenez hurren). Era berean, adingabe bat duten familietan ere bazterkeria-tasa handiak ematen dira (% 22,2).

Bestalde, bi eta lau pertsona bitarteko familien % 11,9 baino ez dago gizarte-bazterkeriako egoeran Euskadin. Aitzitik, biztanlerian duten pisuarengatik, talde hori da nagusi bazterkeriaren eremu sozialean, bazterkeria-egoeran dauden familien % 55 dagoelako kategoria horretan. Pisu oso nabarmena dute ere —biztanlerian duten pisua baino handiagoa— behintzat adingabe bat duten familiek: euskal familia guztien % 18,5 dira, baina bazterkeria-egoeran daudenen % 29,7.

Espainiaren osotasunarekin alderatuz, **Euskadin bazterkeria-tasa txikiagoak daude aztertutako talde ia guztietan, eta nabarmentzekoa da alde esanguratsuak daudela familia gurasobakarren eta ugarien kasuan.** Adingabeak dituzten familien artean, alderantziz, Euskadin (% 22,2) bazterkeria-egoerak ohikoagoa dira Espainiar estatuan baino. Bazterkeria-egoeran dauden familien osaerari dagokionez, tamainaren ikuspegitik, lurralde bien egoera oso antzekoa da, eta azpimarratzekoa litzateke soilik Euskadin pertsona bakarreko familiek pisu handiagoa dutela, ziurrenik 75 urtetik gorako pertsona adinduek pisu handiagoa dutelako bazterkeriaren eremuan.

### 38. GRAFIKOA

### Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, familien tamainaren eta osaeraren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## e) Bizitokiaren tamaina eta auzo mota

Epigrafe honetan, familiarekin lotuta aztertuko ditugun azken aldagaiak familiak bizi diren tokiaren tamaina eta auzo mota dira. Aurreko epigrafeetan bezala, lehenik bazterkeriak ezarritako kategoria bakoitzean duen intzidentzia analizatuko dugu. Batez besteko balioetatik aldentzen dira 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko hirietan (Barakaldon, Irunen eta Getxon, bazterkeria-tasak % 5,1 dira) eta 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko hirietan (Arrasate, Errenteria, Eibar, Basauri, Durango, Erandio, Galdakao, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Zarautz) bizi diren familiak soilik. Azken kasu horretan, tasak batezbestekotik gora daude (% 19,1). Azpimarratzekoa da ere auzo narrituetan edo marjinaletan, familien % 30,5 bazterkeria-egoeran dagoela, eta egoera onean dauden auzoetan, berriz, % 13,4. Bazterkeria-egoeran dauden familien osaeraren ikuspegitik, argi ikusten dugu bazterkeria-egoerak 100.000 biztanletik gorako udalerrietan ematen direla (hau da, hiru hiriburuetan), eta, zehazki, egoeren % 48,1 hartzen dute. Ildo horretatik, kokaleku onean dauden auzoetan metatzen dira egoera gehienak, gizarte-bazterkerian dauden familia guztien % 94,2 horietan bizi baitira.

## 21. TAULA
## Euskadiko familien integrazio-mailen intzidentzia eta banaketa, bizitokiaren tamainaren eta auzo motaren arabera. 2018

| | Erabateko integrazioa | Integrazio prekarioa | Bazterkeria moderatua | Bazterkeria larria | Integrazio (erabatekoa eta prekarioa) | Bazterkeria (moderatua eta larria) | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Intzidentzia (%)** | | | | | | | |
| 100.000 biztanle baino gehiago | 58,3 | 26,9 | 6,9 | 7,9 | 85,2 | 14,8 | 100,0 |
| 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean | 64,1 | 30,8 | 0,0 | 5,1 | 94,9 | 5,1 | 100,0 |
| 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean | 52,7 | 28,2 | 9,2 | 10,0 | 80,9 | 19,1 | 100,0 |
| 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean | 53,1 | 33,4 | 3,7 | 9,8 | 86,5 | 13,5 | 100,0 |
| 5.000 biztanle baino gutxiago | 64,1 | 25,8 | 6,4 | 3,7 | 89,9 | 10,1 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| Egoera onean dagoen auzoa | 58,5 | 28,2 | 5,4 | 8,0 | 86,6 | 13,4 | 100,0 |
| Auzo narriatua eta marjinala | 14,8 | 54,7 | 22,1 | 8,3 | 69,5 | 30,5 | 100,0 |
| Guztira | 57,3 | 28,9 | 5,8 | 8,0 | 86,2 | 13,8 | 100,0 |
| **Banaketa (%)** | | | | | | | |
| 100.000 biztanle baino gehiago | 45,6 | 41,8 | 53,2 | 44,3 | 44,3 | 48,1 | 44,8 |
| 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean | 9,0 | 8,6 | 0,0 | 5,1 | 8,9 | 2,9 | 8,1 |
| 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean | 12,1 | 12,8 | 20,7 | 16,3 | 12,3 | 18,2 | 13,1 |
| 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean | 22,5 | 28,1 | 15,4 | 29,8 | 24,4 | 23,7 | 24,3 |
| 5.000 biztanle baino gutxiago | 10,8 | 8,6 | 10,7 | 4,5 | 10,1 | 7,1 | 9,7 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Egoera onean dagoen auzoa | 99,3 | 95,0 | 89,9 | 97,3 | 97,9 | 94,2 | 97,4 |
| Auzo narriatua eta marjinala | 0,7 | 5,0 | 10,1 | 2,7 | 2,1 | 5,8 | 2,6 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Estatu espainiarrarekin alderatuta, Euskadiko bizitokiek bazterkeria-maila txikiagoak dituzte, eta alde esanguratsuak daude hiri ertain-handietan (50.001 eta 100.000 biztanle bitartean). Alde nabarmena dago ere auzo narriatu edo marjinalen bazterkeria-mailetan, Euskadin (% 30,5) askoz txikiagoa baita

Espainian baino (% 44,2). Alabaina hiri handietako eta egoera onean dauden auzoetako bazterkeria-egoeren metaketa antzekoa da bi lurraldeetan.

### 39. GRAFIKOA

## Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, bizitokiaren tamainaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### 40. GRAFIKOA

## Gizarte-bazterkeriaren intzidentzia eta banaketa Euskadiko eta Espainiako familietan, auzo motaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 3.3. Gizarte-bazterkeriaren profilak Euskadin

Hirugarren kapitulu hau laburbiltzeko, ondoren Euskadiko gizarte-bazterkeriaren ezaugarri nagusiak labur azalduko ditugu, familia-euskarri nagusiaren zein familia motaren ikuspegitik.

Amaieran, 22. eta 23. tauletan, datu osoak ematen ditugu, aipatutako bi ataletan xehakatuta eta Espainiar estatu osoko eta 2013ko egoerarekin alderatuta.

### 1. DIAGRAMAK
### Euskadin bazterkeria-egoeran dauden familien euskarri nagusiaren ezaugarri nagusiak




Gizonak: % 48,3 Emakumeak: % 51,7

45 eta 64 urte bitartean: % 38,2

Ikasketarik gabe: % 27 edo Batxilergoa/BBB/LH: % 31

Lanean dago: % 47,5 edo lan bila dabil: % 17,5

Nazionalitatea:

Espainiarra: % 87,3

EB kanpoko etorkina: % 10,6

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bazterkeria-egoeran dauden familien artean, Euskadin nagusi dira emakumeek sustengatutakoak, eta alde txikia dago gizonek sustengatutakoekin. Espainian, berriz, nagusi dira gizonek sustengatutakoak. Euskadiren kasuan, joera alderantzikatu da krisi-momenturik latzenekin alderatuz, eta emakumea euskarritzat duten familiak areagotzen ari dira.

Prestakuntza-profilei dagokienez, bazterkeria polarizatuta dago, eta nagusi da ikasketa-maila txikiak zein handiak dituztenen artean. Deigarria da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonek sustengatutako familia gehiago egotea, eta, izan ere, bikoiztu egin dira azken bost urteotan.

Nabarmentzekoa da ere Euskadin lanean dauden pertsonak euskarritzat dituzten familien kopurua handia dela bazterkeria-egoeran daudenen artean. Egoera hori etengabean hedatu da 2013tik, enplegu-hazkundeak gora egin duelako eta enpleguaren kalitatea okertu delako. Dena den, lan-jardueraren arabera multzokatutako beste taldeen pisua txikitu egin da bazterkeriaren eremuan. Errenta bermatzeko sistemak gero eta handiagoak dira, lanaren diru-sarrerak ahulak direlako.

Bazterkeria-egoeran dauden familien euskarri nagusien artean, hamarretik bederatzi espainiarrak dira, eta Europar Batasunaz kanpoko etorkinen kopurua txikiagoa da Espainiarekin alderatuta. Aitzitik, azken horiek gero eta gehiago dira gizarte-bazterkeriaren eremuan.

## 2. DIAGRAMAK

### Euskadin bazterkeria-egoeran dauden familien ezaugarri nagusiak



2-4 pertsonako familia: % 55

Pobrezia larrian: % 30,7% Pobreziarik gabekoa: % 56,4

Diru-sarrerak:

Prestazioenak soilik: % 38,9
Lanarenak soilik: % 39,9

Adingaberik gabekoak: % 70,3

Ez dira guraso bakarrekoak: % 83,8

Bizitokiaren tamaina: 100.000 biz. baino gehiago % 48,1

Auzoa egoera onean: % 94,2

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskal familien gizarte-bazterkeria ez da arrazoi ekonomikoen ondorio, nahiz eta ekonomia bazterkeria-iturri bilakatzen ari den gero eta gehiago. Bazterkeria-egoeran dauden eta pobrezia larria duten familiak % 6,7tik % 30,7ra igaro dira azken bost urteotan.

Bazterkeriak familia gurasobakarrei eta adingaberik ez dutenei eragiten die batik bat. Euskadin familia gurasobakarrek pisua galdu dute nabarmen bazterkeriaren eremuan, eta 2018an, % 24,2tik % 16,2ra igaro dira, baina Espainian baino gehiago dira oraindik ere.

Suspertzearen ondorioz, adingabeak dituzten familiak egoera hobean daude eta pertsona bakarreko familiak nabarmen igo dira bazterkeriaren eremuan (2013an % 29,5 ziren, eta 2018an, berriz, % 34,5). Hala ere, bost pertsona edo gehiago dituzten familiak bikoiztu dira.

## 22. TAULA

## Espainiako eta Euskadiko familien integrazioaren eta gizarte-bazterkeriaren mailen intzidentziaren bilakaera, familia-euskarri nagusiaren eta familien hainbat ezaugarriren arabera. 2013-2018

| | | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Integrazioa | | Bazterkeria | | Integrazioa | | Bazterkeria | |
| Intzidentzia (%) | | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 |
| **Familia-euskarri nagusia** | | | | | | | | | |
| Adina | 30 baino gutxiago | 69,1 | 75,3 | 30,9 | 24,7 | 78,9 | 72,8 | 21,1 | 27,2 |
| | 30-44 | 72,2 | 81,7 | 27,8 | 18,3 | 80,1 | 81,1 | 19,9 | 18,9 |
| | 45-64 | 76,1 | 80,6 | 23,9 | 19,4 | 80,4 | 88,6 | 19,6 | 11,4 |
| | 65 eta gehiago | 87,2 | 87,9 | 12,8 | 12,1 | 86,8 | 87,7 | 13,2 | 12,3 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Sexua | Gizona | 78,9 | 84,0 | 21,1 | 16,0 | 85,5 | 89,3 | 14,5 | 10,7 |
| | Emakumea | 76,1 | 80,0 | 23,9 | 20,0 | 77,2 | 80,9 | 22,8 | 19,1 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Ikasketa-maila | Ikasketarik gabe edo ikasketak bukatu gabe | 73,7 | 74,6 | 26,3 | 25,4 | 84,4 | 81,0 | 15,6 | 19,0 |
| | Eskola-graduatua, DBH edo oinarrizko batxilergoa | 74,0 | 80,8 | 26,0 | 19,2 | 77,3 | 86,3 | 22,7 | 13,7 |
| | Batxilergoa, BBB edo LH | 82,6 | 84,3 | 17,4 | 15,7 | 83,3 | 87,9 | 16,7 | 12,1 |
| | Goi-mailako ikasketak | 88,6 | 91,9 | 11,4 | 8,1 | 87,2 | 87,6 | 12,8 | 12,4 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Lan-egoera | Lanean dago | 85,2 | 86,8 | 14,8 | 13,2 | 89,7 | 88,2 | 10,3 | 11,8 |
| | Lan bila dabil | 24,3 | 23,8 | 75,7 | 76,2 | 20,4 | 30,1 | 79,6 | 69,9 |
| | Erretiratuta edo aurretik erretiratuta | 88,0 | 88,9 | 12,0 | 11,1 | 88,7 | 91,3 | 11,3 | 8,7 |
| | Bestelako egoerak | 76,5 | 77,4 | 23,5 | 22,6 | 77,2 | 83,2 | 22,8 | 16,8 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Nazionalitatea | Espainiarra | 80,2 | 84,6 | 19,8 | 15,4 | 83,5 | 87,3 | 16,5 | 12,7 |
| | EBko beste herrialdeak | 63,5 | 79,6 | 36,5 | 20,4 | 69,1 | 70,1 | 30,9 | 29,9 |
| | EB kanpokoa | 49,3 | 54,8 | 50,7 | 45,2 | 51,2 | 65,9 | 48,8 | 34,1 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |

## 22. TAULA

## Espainiako eta Euskadiko familien integrazioaren eta gizarte-bazterkeriaren mailen intzidentziaren bilakaera, familia-euskarri nagusiaren eta familien hainbat ezaugarriren arabera. 2013-2018 (*Jarraipena*)

| | | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Integrazioa | | Bazterkeria | | Integrazioa | | Bazterkeria | |
| Intzidentzia (%) | | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 |
| **Familiak** | | | | | | | | | |
| Pobrezia | Pobreziarik ez | 86,7 | 89,6 | 13,3 | 10,4 | 84,4 | 91,1 | 15,6 | 8,9 |
| | Pobrezia baina ez larria | 63,3 | 67,8 | 36,7 | 32,2 | 54,1 | 77,7 | 45,9 | 22,3 |
| | Pobrezia larria | 0,0 | 1,6 | 100,0 | 98,4 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 100,0 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Diru-sarrera mota | Jardueraren diru-sarrerak soilik | 82,6 | 85,4 | 17,4 | 14,6 | 89,8 | 88,7 | 10,2 | 11,3 |
| | Jardueraren eta babesaren diru-sarrerak | 74,7 | 82,5 | 25,3 | 17,5 | 77,3 | 83,8 | 22,7 | 16,2 |
| | Babesaren diru-sarrerak soilik | 76,2 | 80,5 | 23,8 | 19,5 | 77,3 | 84,8 | 22,7 | 15,2 |
| | Inolako diru-sarrerarik gabe | 17,8 | 28,0 | 82,2 | 72,0 | 0,0 | 49,8 | 100,0 | 50,2 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Familiaren tamaina | 1 pertsonako familia | 79,4 | 80,0 | 20,6 | 20,0 | 77,8 | 84,5 | 22,2 | 15,5 |
| | 2-4 pertsonako familia | 79,7 | 85,3 | 20,3 | 14,7 | 84,1 | 88,1 | 15,9 | 11,9 |
| | 5 pertsona edo gehiagoko familia | 56,4 | 63,9 | 43,6 | 36,1 | 80,2 | 72,8 | 19,8 | 27,2 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Guraso bakarrekoa | Guraso bakarreko familia da | 69,8 | 72,0 | 30,2 | 28,0 | 70,9 | 79,9 | 29,1 | 20,1 |
| | Ez da guraso bakarreko familia | 79,3 | 83,6 | 20,7 | 16,4 | 84,4 | 87,0 | 15,6 | 13,0 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| < 18 urte | 18 urtetik beherako adingaberen bat | 67,6 | 79,0 | 32,4 | 21,0 | 79,0 | 77,8 | 21,0 | 22,2 |
| | Ez dago 18 urtetik beherako adingaberik | 82,2 | 84,1 | 17,8 | 15,9 | 83,6 | 88,1 | 16,4 | 11,9 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Bizitokiaren tamaina | 100.000 biztanle baino gehiago | 76,1 | 82,0 | 23,9 | 18,0 | 79,9 | 85,2 | 20,1 | 14,8 |
| | 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean | 79,2 | 82,7 | 20,8 | 17,3 | 82,2 | 94,9 | 17,8 | 5,1 |
| | 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean | 75,3 | 78,2 | 24,7 | 21,8 | 83,6 | 80,9 | 16,4 | 19,1 |
| | 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean | 81,3 | 85,0 | 18,7 | 15,0 | 87,5 | 86,5 | 12,5 | 13,5 |
| | 5.000 biztanle baino gutxiago | 82,7 | 84,9 | 17,3 | 15,1 | 82,9 | 89,9 | 17,1 | 10,1 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |
| Auzo mota | Egoera onean dagoen auzoa | 81,6 | 84,3 | 18,4 | 15,7 | 84,5 | 86,6 | 15,5 | 13,4 |
| | Auzo narriatua eta marjinala | 62,5 | 55,8 | 37,5 | 44,2 | 72,4 | 69,5 | 27,6 | 30,5 |
| | Guztira | 78,0 | 82,6 | 22,0 | 17,4 | 82,5 | 86,2 | 17,5 | 13,8 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 23. TAULA

## Espainiako eta Euskadiko familien banaketaren bilakaera integrazioaren eta gizarte-bazterkeriaren mailen arabera, familia-euskarri nagusiak eta familien hainbat ezaugarriak kontuan izanik. 2013-2018

| | | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Integrazioa | | Bazterkeria | | Integrazioa | | Bazterkeria | |
| Banaketa (%) | | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 |
| **Familia-euskarri nagusia** | | | | | | | | | |
| Adina | 30 baino gutxiago | 5,8 | 6,4 | 9,2 | 9,9 | 2,4 | 5,0 | 3,1 | 11,6 |
| | 30-44 | 22,6 | 25,6 | 30,7 | 27,3 | 22,3 | 14,8 | 26,1 | 21,6 |
| | 45-64 | 38,4 | 37,0 | 42,8 | 42,5 | 39,5 | 47,5 | 45,3 | 38,2 |
| | 65 eta gehiago | 33,1 | 31,0 | 17,3 | 20,3 | 35,8 | 32,7 | 25,6 | 28,6 |
| | Total | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Sexua | Gizona | 67,6 | 66,8 | 63,9 | 60,7 | 65,6 | 64,8 | 52,2 | 48,3 |
| | Emakumea | 32,4 | 33,2 | 36,1 | 39,3 | 34,4 | 35,2 | 47,8 | 51,7 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Ikaske-ta-maila | Ikasketarik gabe edo ikasketak bukatu gabe | 27,4 | 21,9 | 34,8 | 35,4 | 26,8 | 18,5 | 23,5 | 27,0 |
| | Eskola-graduatua, DBH edo oinarrizko batxilergoa | 30,3 | 25,5 | 37,9 | 28,7 | 25,6 | 18,2 | 35,4 | 18,0 |
| | Batxilergoa, BBB edo LH | 27,3 | 29,7 | 20,5 | 26,3 | 31,7 | 36,0 | 30,1 | 31,0 |
| | Goi-mailako ikasketak | 15,0 | 22,8 | 6,9 | 9,6 | 15,9 | 27,3 | 11,0 | 24,0 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Lan-egoe-ra | Lanean dago | 54,3 | 59,4 | 33,3 | 43,0 | 52,3 | 57,2 | 28,2 | 47,5 |
| | Lan bila dabil | 3,5 | 1,6 | 38,5 | 24,5 | 1,7 | 1,2 | 31,6 | 17,5 |
| | Erretiratuta edo aurretik erretiratuta | 29,1 | 27,0 | 14,0 | 15,9 | 29,9 | 25,9 | 17,9 | 15,3 |
| | Bestelako egoerak | 13,1 | 12,0 | 14,3 | 16,6 | 16,1 | 15,7 | 22,3 | 19,8 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Nazionali-tatea | Espainiarra | 94,2 | 92,8 | 82,4 | 80,3 | 97,1 | 95,9 | 90,5 | 87,3 |
| | EBko beste herrialdeak | 2,0 | 3,1 | 4,0 | 3,8 | 1,4 | 0,8 | 2,9 | 2,1 |
| | EB kanpokoa | 3,7 | 4,1 | 13,6 | 15,9 | 1,5 | 3,3 | 6,6 | 10,6 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

## 23. TAULA

## Espainiako eta Euskadiko familien banaketaren bilakaera integrazioaren eta gizarte-bazterkeriaren mailen arabera, familia-euskarri nagusiak eta familien hainbat ezaugarriak kontuan izanik. 2013-2018 (*Jarraipena*)

| | | Espainia | | | | Euskadi | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Integrazioa | | Bazterkeria | | Integrazioa | | Bazterkeria | |
| **Banaketa (%)** | | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 | 2013 | 2018 |
| **Familiak** | | | | | | | | | |
| Pobrezia | Pobreziarik ez | 84,2 | 88,8 | 44,3 | 48,1 | 94,5 | 92,8 | 73,6 | 56,4 |
| | Pobrezia baina ez larria | 15,8 | 11,1 | 31,4 | 24,6 | 5,5 | 7,2 | 19,7 | 12,9 |
| | Pobrezia larria | 0,0 | 0,1 | 24,2 | 27,3 | 0,0 | 0,0 | 6,7 | 30,7 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Diru-sarrera mota | Jardueraren diru-sarrerak soilik | 40,7 | 51,3 | 29,5 | 41,1 | 37,6 | 50,0 | 18,0 | 39,9 |
| | Jardueraren eta babesaren diru-sarrerak | 25,8 | 19,3 | 30,0 | 19,1 | 25,1 | 14,8 | 31,1 | 18,0 |
| | Babesaren diru-sarrerak soilik | 33,2 | 28,9 | 35,7 | 32,8 | 37,3 | 34,7 | 46,3 | 38,9 |
| | Inolako diru-sarrerarik gabe | 0,3 | 0,6 | 4,8 | 7,0 | 0,0 | 0,5 | 4,6 | 3,3 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Familiaren tamaina | 1 pertsonako familia | 19,8 | 24,4 | 18,2 | 29,0 | 22,0 | 30,1 | 29,5 | 34,5 |
| | 2-4 pertsonako familia | 74,9 | 70,7 | 67,4 | 58,0 | 73,7 | 65,4 | 65,5 | 55,0 |
| | 5 pertsona edo gehiagoko familia | 5,3 | 4,9 | 14,4 | 13,1 | 4,3 | 4,5 | 5,0 | 10,6 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Guraso bakarrekoa | Guraso bakarreko familia da | 12,7 | 7,6 | 19,5 | 14,1 | 12,5 | 10,3 | 24,2 | 16,2 |
| | Ez da guraso bakarreko familia | 87,3 | 92,4 | 80,5 | 85,9 | 87,5 | 89,7 | 75,8 | 83,8 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| < 18 urte | 18 urtetik beherako adingaberen bat | 25,0 | 27,3 | 42,4 | 34,6 | 23,1 | 16,7 | 28,8 | 29,7 |
| | Ez dago 18 urtetik beherako adingaberik | 75,0 | 72,7 | 57,6 | 65,4 | 76,9 | 83,3 | 71,2 | 70,3 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Bizitokiaren tamaina | 100.000 biztanle baino gehiago | 44,0 | 44,0 | 48,9 | 45,8 | 45,2 | 44,3 | 53,6 | 48,1 |
| | 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean | 11,8 | 10,3 | 10,9 | 10,3 | 7,3 | 8,9 | 7,5 | 2,9 |
| | 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean | 14,9 | 11,3 | 17,3 | 15,0 | 18,9 | 12,3 | 17,4 | 18,2 |
| | 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean | 16,5 | 21,9 | 13,4 | 18,5 | 20,7 | 24,4 | 13,9 | 23,7 |
| | 5.000 biztanle baino gutxiago | 12,8 | 12,4 | 9,5 | 10,5 | 8,0 | 10,1 | 7,8 | 7,1 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Auzo mota | Egoera onean dagoen auzoa | 84,8 | 96,1 | 67,8 | 85,3 | 85,2 | 97,9 | 73,4 | 94,2 |
| | Auzo narriatua eta marjinala | 15,2 | 3,9 | 32,2 | 14,7 | 14,8 | 2,1 | 26,6 | 5,8 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

# 4

# Gizarte-bazterkeriaren ardatz ekonomikoa

# Edukia

**4.1.** Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak ........ 106

**4.2.** Ardatz ekonomikoko adierazleak ........ 107

**4.3.** Lanaren prekarizazioa bazterkeriarako faktoretzat ........ 109

**4.4.** Diru-sarreren ahalmena gizarte-bazterkeriaren kontra babesteko, diru-sarreren jatorriaren arabera ........ 112

# 4. kapitulua
# Gizarte-bazterkeriaren ardatz ekonomikoa

Aurretik azaldu dugun bezala, Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoaren (ISES) bitartez gizarte-bazterkeria eta haren bilakaera aztertzeko, familien egoera hiru ardatz handiren arabera aztertu da, eta horietako bat ardatz ekonomikoa da (beste biak politika eta hiritartasuna eta gizartea eta erlazioak dira, eta hurrengo epigrafeetan aztertuko ditugu). **Ardatz ekonomikoak familien ezaugarriak jorratzen ditu, kideek ekoizpenean eta kontsumoan duten parte-hartzeari dagokionez.** Enpleguaren arloan (kideek ekoizpenean duten parte-hartzea), familiak eta haien kideak lan-harreman normalizatu batetik at uzten dituzten prozesuak aztertu dira, eta kontsumoaren alorrean, berriz, diru-sarrerak nahikoak eta/edo kalitatezkoak diren gizartean parte hartzeko eta oinarrizkotzat hartzen diren ondasunak falta zaizkien aztertu dugu.

Epigrafe honetan, euskal biztanleek ardatz ekonomikoa osatzen duten bi dimentsiotan dituzten zailtasunak aztertu ditugu. Horretarako, lehenik, Euskadin eta Espainian dimentsio horietako arazoak dituzten biztanleen ehunekoak —bazterkeria-egoeran daudenak zein biztanlegoa oro har— eta 2013 eta 2018 bitartean izandako bilakaera aztertu ditugu. Bigarrenik, egoera horiek xedarritzen dituzten zortzi adierazleak aztertu ditugu, horietako bakoitzak ukitutako biztanle-ehunekoaren arabera, horien arteko erkaketa eginez eta bilakaerari erreparatuz. Azkenik, bazterkeriaren bi dimentsio horiekin lotutako zenbait elementu espezifiko hartu dira kontuan, hala nola enpleguaren prekarizazioa (lan-pobrezia eta jardunaldi partzialak) eta familien diru-sarrerak zer nolakoak diren.

Kasu orotan, bazterkeria-egoeran (moderatua eta larria) dauden biztanleen arazoak nabarmendu dira eta Euskadi eta Espainia artean dauden desberdintasun nagusiak azpimarratu.

### 4.1. Gaur egungo egoera, bilakaera eta desberdintasun nagusiak Espainiarekin

Zehazki, eta biztanlego orokorrari dagokionez, **euskal biztanleen % 14,5 lan-bazterkeriako egoeran dago eta % 4,6, berriz, kontsumotik at**. Logikoa denez, bi dimentsio horietako arazoak dituzten pertsonen ehunekoa askoz handiagoa da bazterkeria-egoeran daudenen artean: bazterkeria-egoeran daudenen % 44,3k arazoak ditu enpleguaren alorrean, eta beste % 30,3k kontsumoaren alorrean. Bazterkeria-egoera larrien kasuan, ehunekoak handiagoak dira: egoera horretan dauden biztanleen % 56,4k arazoak ditu enpleguaren eremuan, eta beste % 37,9k kontsumoarenean.

Espainiarekin alderatuz, enpleguaren eta kontsumoaren alorreko bazterkeriak biztanleen ehuneko txikiagoei eragiten die Euskadin. Horrek erakusten du **Euskadin egoera hobea dela ardatz ekonomikoan, ikuspegi konparatibotik, behinik behin. Izan ere, aurreko kapituluan ikusi den bezala, langabezia- eta pobrezia-tasak nabarmen txikiagoak dira**. Aldeak daude bi lurraldeen artean, bazterkeria-egoeran dauden taldeetan zein biztanlego orokorrean, eta alde horiek bereziki argiak dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonen enplegu-bazterkeriari eta bazterkeria larrian dauden biztanleen kontsumo-bazterkeriari dagokienez.

Aurreko atalean aipatutakoaren harira, **ardatz ekonomikoko arazoak dituzten pertsonen kopurua nabarmen jaitsi da Euskadin 2013 eta 2018 bitartean, % 28,5tik % 15,8ra pasa baita**. Enplegu-bazterkeriaren intzidentzia ere benetan jaitsi da (% 27,7tik % 14,5era). Kontsumo-bazterkeriaren alorrean, ordea, Espainian biztanleen ehunekoak murriztu dira eta Euskadin hirukoiztu, % 1,5etik % 4,6ra pasa baitira.

### 41. GRAFIKOA
### Ardatz ekonomikoko dimentsioetako bakoitzak kaltetutako Euskadiko eta Espainiako biztanle-ehunekoak, gizarte-integrazioaren mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### 42. GRAFIKOA
### Ardatz ekonomikoko dimentsioetako bakoitzak kaltetutako Euskadiko eta Espainiako biztanle-ehunekoen bilakaera. 2013-2018




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

## 4.2. Ardatz ekonomikoko adierazleak

Enplegu- eta kontsumo-bazterkeriako egoeren hedadura gizarte-bazterkeriako bi dimentsio horiekin espezifikoki lotuta dauden zortzi adierazleren intzidentziaren emaitza da. 24. taulan, Euskadin zein Espainian adierazle

horietako bakoitzak kaltetutako biztanle-ehunekoa eta 2013 eta 2018 bitartean izandako bilakaera jasotzen ditu.

## 24. TAULA
## Euskadiko eta Espainiako gizarte-bazterkeriaren ardatz ekonomikoko adierazleek kaltetutako biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2013-2018

| Dim. | Adierazle-kop. | | Espainia 2013 | Espainia 2018 | Euskadi 2013 | Euskadi 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Enplegua | 1 | Familia-euskarri nagusia langabezian dago duela urtebete edo gehiago | 8,6 | 3,6 | 4,9 | 1,3 |
| | 2 | Familia-euskarri nagusia bazterkeria-egoerako lana du (etxez etxeko salmenta, salmenta ibiltari osagarria, salmenta ibiltari marjinala, prestakuntzarik gabeko etxeko langileak, sasoiko behin-behineko nekazaritza-langileak, kartoia eta bestelako hondakinen biltzaileak, propaganda-banatzaileak, eskaleak) | 3,7 | 1,2 | 2,3 | 1,8 |
| | 3 | Familia-euskarri nagusiak lan irregularra dauka: kontraturik eta gizarte-segurantzarik gabe | 3,2 | 1,1 | 1,8 | 0,9 |
| | 4 | Lanean dagoen, ordaindutakoaren araberako pentsioa duen edo langabezia-prestazioa duen pertsonarik ez familian | 7,6 | 5,8 | 4,6 | 5,0 |
| | 5 | Azken urtean lanbide-prestakuntzarik izan ez duen eta langabezian dagoen pertsona bat behintzat familian | 35,8 | 20,0 | 22,2 | 10,2 |
| | 6 | Familiako pertsona aktibo guztiak langabezian | 12,5 | 7,0 | 6,0 | 4,8 |
| Kontsumoa | 7 | Pobrezia larrian dauden familiak (diru-sarrerak errenta mediana baliokidearen % 30 baino gutxiago dira). Prezio konstanteko atalase egonkorra erabilita 4 uhinen batezbestekotzat (2.945 € 2017an, 3.063 € 2009an, 3.339 € 2013an eta 3.416 € 2018an) | 6,0 | 5,1 | 0,8 | 5,1 |
| | 8 | Oinarrizkotzat hartzen den ondasun bat behintzat faltan duten familiak: txorrotako ura, ur beroa, argindarra, hondakin-uren ebakuazioa, sukaldea, hozkailua, garbigailua | 1,6 | 1,4 | 0,8 | 1,7 |

Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

Enplegu-bazterkeriarekin lotutako egoera guztien artetik, hauxe da hedatuena: langabezian dagoen eta azken urtean lanbide-prestakuntzarik jaso ez duen pertsona bat behintzat duten familiak. Euskal biztanleen % 10,2 egoera horretan dago. Bigarren adierazle hedatuena lanik eta ordaindutakoaren araberako prestaziorik ez duten familiak dira, biztanleen % 5 hartzen baitute. Hirugarren lekuan, pertsona aktibo guztiak langabeziak dituzten familiak dira, biztanleen % 4,8, hain zuzen. Bilakaerari dagokionez, **enpleguaren dimentsioarekin lotutako adierazle guztiak hobetu egin ziren Euskadin 2013 eta 2018 bitartean, lanean**

**dagoen edo ordaindutakoaren araberako prestazioa duen pertsonarik ez daukan familiak salbu, zertxobait igo baita —% 4,6tik % 5era—. Azpimarratzekoa da langabezian dagoen eta azken urtean lanbide-prestakuntzarik izan ez duen pertsona bat behintzat duten familiak murriztu egin direla, Euskadin** —adierazlea erdia baino gehiago murriztu da, eta % 22,2tik % 10,2ra pasa— **zein Espainian** —% 35,8tik % 20ra pasa da—. Gainera, kasu guztietan Euskadin 2018an zehar egoera horiek intzidentzia txikiagoa izan dute Espainian baino, baztekeria-lana duen pertsona bat euskarritzat duten familien kasuan salbu.

Kontsumoari dagokionez, bi adierazle daude: pobrezia larria eta oinarrizkotzat hartzen den ondasunen bat faltan izatea. **Euskal biztanleen % 5,1 pobrezia larrian dago eta % 1,7k gabezia materialak ditu**, aipatutako irizpideen arabera neurtuta. Guztira, 111.000 pertsona daude lehen kasuan, eta 37.000 pertsona, berriz, bigarrenean.

Konparazioa eginez gero, ez dago alde handirik Euskadiren eta Espainiaren artean. Bilakaera, ordea, desberdina izan da bi lurraldeetan: Espainian bi adierazleak murriztu dira, baina Euskadin nabarmen igo dira. Pobrezia larriak eragindako biztanleak % 0,8tik % 5,1era igo dira, eta pobrezia materiala dutenak % 0,8tik % 1,7ra.

## 4.3. Lanaren prekarizazioa bazterkeriarako faktoretzat

Enplegu-bazterkeriaren gaineko adierazleek osatzen dute Gizarte Bazterkeriareko Indize Sintentikoa (ISES), baina horiez gain, komenigarria da enpleguaren eremuarekin lotutako zenbait elementu aztertzea, eta, zehazki, pixkanakako prekarizazioa. Horretarako, lehenik, enpleguaren eremuko pobrezia jorratuko dugu. Horri dagokiola, gogoratu behar da lanean ari diren pertsonek sustengatutako familien artean, bazterkeria-egoeran daudenen ehunekoa ez dela txikia —% 11,8 egoera horretan dago—, eta, batik bat, Euskadin gizarte-bazterkeria jasaten duten familien % 47,5en kasuan, familia-euskarria lan-merkatuko lana duen pertsona bat dela. Beste ikuspegi batetik, Euskadiko familien % 71,1ak deritzo susperraldi ekonomikoak ez duela eraginik izan haien kasuan. Espainian, ehunekoa % 71,7 da.

Testuinguru horretan, enplegu-pobrezia funtsezko eragilea da. Izan ere, fenomeno horrek gizarte-bazterkeria jasateko arriskua handitzen du eta kolokan jartzen du soldatapeko lanak tradizioz gure gizartean izan duen rola pobreziaren eta bazterkeriaren kontra babestean. Gure lan-merkatuen ahulezia aski ezaguna da jada, eta krisitik ateratzeko erabilitako ereduak okertu egin du eta egiturazko arazotzat finkatu.

Alderdi hori aztertzeko, 43. grafikoan pobreziak lanean dauden pertsonen artean duen intzidentzia jasotzen du, familien integrazio- edo bazterkeria-egoeraren arabera. Datu horien arabera, **Euskadin langile pobreen tasa % 7,9 da**, Espainiakoa baino txikiagoa (% 11,3), alegia. Agerikoa denez, tasa hori nabarmen handiagoa da bazterkeria-egoeran dauden familietako langileen artean. Euskadiren kasuan, **bazterkeria-egoeran dauden langileen % 36,4 pobreak dira**; integrazioan dauden familien kasuan, ordea, % 4,5 baino ez. **Lanean dauden pertsonen taldean, bazterkeria-tasak % 11,4 dira Euskadin** eta % 13,5 Espainian, lanaldia edozein dela ere. Datu horiek argi erakusten dute lan-munduan egotea eta bazterkeria bateragarriak direla.

### 43. GRAFIKOA

**Pobrezian (medianaren % 60tik behera) dauden langileen* tasa Euskadin eta Espainian, integrazio-mailaren arabera. 2018**




*Grafiko honen ehunekoak kalkulatzeko, inkesta egiteko unean lanean zeuden pertsonak hartu dira kontuan.
Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bigarrenik, lanaldi partziala ere lan-prekarietatearekin lotuta dago eta bazterkerian eragina du. Hain zuzen, lan-intentsitate ertaina edo txikia duten familien kasuan —hau da, behin-behineko lana eta lanaldi partziala dutenak—, baztekeria-maila handiagoa da lan-intentsitate handia dutenen kasuan baino. Era berean, ikusi dugu bazterkeria-egoeran dauden familien ehuneko handi batek —% 33,5 Euskadin— lan-intentsitate ertaina duela (hau da, urteko lanaldiaren % 20 eta % 80 bitartean egin dute lan).

44. grafikoak aztertzen du bazterkeria-egoerek Euskadin eta Espainian zenbateko hedapena duten, urtean zehar lanaldiak izandako partzialtasunaren

arabera **(9)**. Lan-pobreziarekin gertatzen zen legez, **bazterkeria-mailak handiagoak dira lanaldi partziala dutenen kasuan (% 21,4), lanaldi osoan ari direnen kasuan baino (% 8,6)**.

## 44. GRAFIKOA

### Bazterkeria-egoeran dauden langileen ehunekoa Euskadin eta Espainian, lanaldi motaren arabera*. 2017




*Grafiko honetan, ehunekoak kalkulatzeko, 2017an zehar gehiago ala gutxiago lan egin dutela esan duten biztanleak hartu dira kontuan. 2018an, osotara, bazterkeria-egoeran zeuden langileen ehunekoa % 12,3 izan zen Espainian eta % 11,1 Euskadin.
Iturria: EINSFOESSA 2018.

Lanaldi partzialeko langiletzat hartu dira 2017an zehar hilabete bat behintzat lan egin dutenak eta lan egindako hilabeteetako batean behintzat astean 35 ordu baino gutxiago egin dituztenak. Bestalde, lanaldi osotzat hartzen dira 2017an hilabete guztietan lanean aritu direnak eta astean 35 ordu edo gehiago lan egin dituztenak.

Bazterkeria-egoerekin lotura handiagoa izateaz gain, azpimarratzekoa da ere lanaldi partzialak ez direla nahitakoak izaten kasu askotan. Euskadin, lanean dauden biztanleen % 47,6ak — eta % 58ak Espainian— adierazten du ez duela lanaldi osoko enplegurik aurkitu eta horregatik ez duela horrelako lanik. Kasuen % 12,4tan —% 8,3tan Espainian—, lanaldi partziala egitearen arrazoia da adingabeak, gaixo dauden helduak, ezinduak edo adinekoak zaindu behar izatea,

**(9)** Lanaldi partzialeko langiletzat hartu dira 2017an zehar hilabete bat behintzat lan egin dutenak eta lan egindako hilabeteetako batean behintzat astean 35 ordu baino gutxiago egin dituztenak. Bestalde, lanaldi osotzat hartzen dira 2017an hilabete guztietan lanean aritu direnak eta astean 35 ordu edo gehiago lan egin dituztenak.

eta kasuen % 14,7tan –% 5,8tan Espainian–, bestelako betebehar familiarrak edo pertsonalak daude.

### 4.4. Diru-sarreren ahalmena gizarte-bazterkeriaren kontra babesteko, diru-sarreren jatorriaren arabera

Familia guztietan ez dago lanean ari den pertsonarik, ez pertsona aktiborik, eta lanaz aparte, badaude bestelako diru-iturriak. Ondorioz, egokitzat hartu dugu familiek diru-sarrera motaren arabera duten banaketa aztertzea, ikuspegi globala emateko eta ikusteko diru-sarrera mota zer punturaino dagoen lotuta bazterkeriarekin.

Horretarako, familiako kideek 2017an jasotako diru-sarrerak motaren **(10)** arabera sailkatzen dituen aldagaia sortu dugu: lanarenak diren, prestazioak diren edo biak konbinatzen diren.

Euskadiko biztanleen erdiaren baino zertxobait gehiagoren kasuan (% 55,2), familiaren diru-sarrerak lan-errentetatik datoz soilik. Bostetik batek ordaindutakoaren araberako prestazioak baino ez ditu jasotzen (% 19,8), eta bostetik batek ere bi motetako diru-sarrerak jasotzen ditu (% 21,1). Gainerako % 3,1ek laguntza-prestazioak jasotzen ditu soilik, eta % 1ek baino gutxiagok ez dauka inolako diru-sarrerarik.

Aldagaia honela eratu da: (1) lanaren diru-sarrerak soilik: lanaren diru-sarrerak besterik jasotzen ez dituzten familiak; (2) ordaindutakoaren araberako prestazioak soilik: familiaren diru-sarrerak ordaindutakoaren araberako prestazioetatik datoz bakar-bakarrik; (3) laguntza-prestazioak soilik: familiaren diru-sarrerak ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak direnean bakarrik; (4) estrategia mistoa: diru-sarrera mota bat baino gehiago duten familiak; eta (5) diru-sarrerarik gabe: ez lanaren ez prestazioen diru-sarrerarik ez duten familiak.

Konparazioa eginez, Euskadin handiagoa da lanaren diru-sarrerak soilik jasotzen dituzten familien proportzioa (% 55,2 Euskadin, eta % 54 Espainian),

**(10)** Aldagaia honela eratu da: (1) lanaren diru-sarrerak soilik: lanaren diru-sarrerak besterik jasotzen ez dituzten familiak; (2) ordaindutakoaren araberako prestazioak soilik: familiaren diru-sarrerak ordaindutakoaren araberako prestazioetatik datoz bakar-bakarrik; (3) laguntza-prestazioak soilik: familiaren diru-sarrerak ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak direnean bakarrik; (4) estrategia mistoa: diru-sarrera mota bat baino gehiago duten familiak; eta (5) diru-sarrerarik gabe: ez lanaren ez prestazioen diru-sarrerarik ez duten familiak.

ordaindutakoaren araberako prestazioak soilik jasotzen dituztenena (% 19,8 Euskadin eta % 16 Espainian) eta laguntza-prestazioak soilik jasotzen dituztenena (% 3,1 Euskadin eta % 2,6 Espainian). Aitzitik, Euskadin txikiagoa da estrategia mistoa duten familien (% 21 Euskadin eta % 26,1 Espainian) eta lanaren edo prestazioen diru-sarrerarik jasotzen ez dutenen (% 0,9 Euskadin eta % 1,3 Espainian) proportzioa.

**45. GRAFIKOA**

**Euskadiko eta Espainiako biztanleen banaketa, familiaren diru-sarreren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Lanaren diru-sarrerak soilik jasotzen dituzten familien pisua are handiagoa da bazterkeria-egoeran dauden taldeen kasuan. Euskadin, familian horietan bizi direnak bazterkeria-egoeran daudenen % 45,9 dira. Espainian ehunekoa zertxobait txikiagoa da, % 43,5, alegia. Euskadiko enplegua sendoagoa denez, Espainian baino familia gutxiagok dute diru-sarreren iturriak konbinatzeko beharra. Bazterkeria-egoeran dauden biztanleen artean, Euskadin lautik batek (% 25,4) estrategia konbinatua behar du, haien beharrei aurre egiteko. Espainian, berriz, % 28k behar du estrategia konbinatua.

## 25. TAULA

## Euskadiko eta Espainiako biztanleen banaketa, familiaren diru-sarreren arabera, integrazio-maila kontuan izanik. 2018

| | Espainia | | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Integrazioa | Bazterkeria | Guztira | Integrazioa | Bazterkeria | Guztira |
| Lanaren diru-sarrerak soilik | 56,4 | 43,5 | **54,0** | 56,9 | 45,9 | **55,2** |
| Ordaindutakoaren araberako prestazioen diru-sarrerak soilik | 16,8 | 12,1 | **16,0** | 22,1 | 7,6 | **19,8** |
| Laguntza-prestazioen diru-sarrerak soilik | 0,7 | 10,6 | **2,6** | 0,5 | 17,2 | **3,1** |
| Estrategia mistoa | 25,7 | 28,0 | **26,1** | 20,3 | 25,4 | **21,1** |
| Lanaren edo prestazioen diru-sarrerarik gabe | 0,3 | 5,8 | **1,3** | 0,3 | 3,8 | **0,9** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | **100,0** | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bazterkeria-egoerek familien diru-sarreren arabera duten intzidentzia aztertuz gero, argi ikusten dugu familiek bazterkeriaren kontrako babes handiagoa dutela diru-sarrerak lanarenak edo ordaindutakoaren araberako prestazioenak (nabarmentzekoak dira erretiro-pentsioak, batez ere) direnean soilik. Kasu bietan, bazterkeria-egoeran daudenen ehunekoa biztanlego osoarena baino txikiagoa da. Horien atzetik daude diru-sarrera mota desberdinak konbinatzen dituztenak, eta horien kasuan ere, biztanlego osoan baino intzidentzia txikiagoa du gizarte-bazterkeriak. Alderantziz, bazterkeriaren intzidentzia nabarmen handitzen da diru-sarrerarik ez duten familietan, eta, bereziki, laguntza-prestazioak bakarrik jasotzen dituztenen kasuan. Joera hori handiagoa da Euskadin (% 87,5), Espainian baino (% 77).

## 46. GRAFIKOA

## Gizarte-bazterkerian daudenen ehunekoa Euskadin eta Espainian, familien diru-sarrera motaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

5

# Gizarte-bazterkeriaren ardatz politiko eta hiritarra

# Edukia


**5.1.** Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak ........ 119

**5.2.** Ardatz politiko eta hiritarraren adierazleak ........ 122

**5.3.** Partaidetza politiko eta hiritarra integrazioa eraikitzeko ........ 125

**5.4.** Gizarte-bazterkeriako egoerak eta hezkuntzara sartzeko baldintzak ........ 127

**5.5.** Etxebizitzaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko erlazioan sakontzeko gakoetako batzuk ........ 128

**5.6.** Osasuna, desgaitasuna, mendekotasuna eta gizarte-bazterkeria ........ 131

# 5. kapitulua
# Gizarte-bazterkeriaren ardatz politiko eta hiritarra

## 5.1. Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak

FOESSA Inkestaren metodologia-esparruan, bazterkeriaren bigarren ardatz nagusia ardatz politiko eta hiritarrarekin lotutakoa da, partaidetza politikoaren, heziketaren, etxebizitzaren eta osasunaren bazterkeriari egiten diona erreferentzia. Partaidetza politikoaren dimentsioan ordezkari politikoak hautatu eta hautatuak izateko eskubidea sartzen da, eta baita partaidetza politiko eta hiritarrerako egiazko gaitasuna ere. Hiritarrekin lotutako dimentsioen barnean, biztanle guztiak hezkuntza, etxebizitza eta osasunerako sarbidea antzeko baldintzetan izatearekin lotzen da.

Aurreko kasuan bezala, lehenik eta behin, dimentsio horietan Euskadin eta Espainian arazoek eragindako biztanleriaren ehunekoa –hala bazterkeria egoeran den biztanleria aintzat hartuta nola biztanleria osoa kontuan izanik- aztertzen da, eta haren bilakaera 2013 eta 2018 bitartean. Bigarrenik, horietako bakoitzean arazoek eragindako biztanleriaren ehunekoarekin lotutako egoera horiek zehazten dituzten 19 adierazleak aztertzen dira, berriz ere alderaketa eta bilakaeraren ikuspegitik. Azkenik, bazterkeriaren lau dimentsio horiekin lotutako zenbait elementu espezifiko aztertzen dira, esate baterako, gogobetetzea demokraziaren funtzionamenduarekin, partaidetza zibiko-politikoa, beken harrera eta eskolako materialaren gastuari aurre egiteko zailtasuna, etxebizitzaren edukitza-erregimena, etxebizitzarekin lotutako arazo ekonomikoak edo desgaitasun eta mendekotasun egoerak, osasunaren eremuan.

Aurreko atalean bezalaxe, funtsean gizarte-bazterkeria egoeran (neurrikoa eta larria) dagoen kolektiboarengan eragina duten arazoak identifikatzeari eta Euskadi eta Espainiaren arteko ezberdintasun nagusiak identifikatzeari erreparatzen zaio bereziki.

47. grafikoan aurreko atalean ardatz hori osatzen duten lau dimentsioetako bakoitzean, Euskadin nahiz Espainian, zailtasunek eragindako pertsonen ehunekoarekin lotuta dagoeneko zehaztutako zenbait datu jasotzen dira; biztanleria osoa, bazterkeria egoeran den biztanleria osoa (neurrizkoa eta larria) eta, espezifikoki, gizarte-bazterkeria larrian den biztanleria bereiziz. Datuek agerian uzten dutenez, **biztanleei arazo gehien eragiten dizkien dimentsioa etxebizitzarena da, % 22,2ri hain zuzen ere. Bazterkeria egoeran diren pertsonen artean ehunekoa % 58koa da eta bazterkeria larrian direnen artean % 51,1ekoa.** Osasunaren kasuan, bazterkeriak eragindako biztanleriaren ehunekoa % 15,5ekoa da. Bertan gizarte-bazterkeria egoeran den kolektiboa nabarmentzen da bereziki, zailtasunak dituztenen erdia baino gehiago izanik -% 55,5- ardatz horren barnean. Era berean, gizarte-bazterkeria larrian den biztanleria azpimarratu behar da, osasunaren bazterkeria-egoerak eragindakoen ia % 70 izanik (are, etxebizitzaren bazterkeriari dagokion dimentsioko emaitzak gaindituz). Bazterkeria politikoaren kasuan, ehunekoa % 11,8koa da eta hezkuntzaren kasuan % 3,1ekoa. Alderaketa egitean –dimentsioa eta aintzatetsitako biztanleriaren kolektiboa alde batera utzita-, eta osasunaren eremuko bazterkeriaren kasuan izan ezik, bazterkeriaren tasak baxuagoak dira Euskadin Espainian baino.

## 47. GRAFIKOA

### Ardatz politiko eta hiritarreko dimentsioetako bakoitzak eragindako biztanleriaren ehunekoa Euskadin eta Espainian, integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bilakaeraren ikuspegitik, **dimentsio horietan zailtasunek eragindako biztanleriaren ehunekoa nabarmen murriztu da 2013 eta 2018 bitartean, hala Euskadin nola Espainian, politikaren bazterkeria salbuetsita Euskadiren kasuan.** Horrela, Euskadin politikaren ondoriozko bazterkeria % 31 areagotu da eta ardatz horretako gainerako dimentsioak % 20 inguru murriztu dira. Espainiaren kasuan, dimentsio guztietan egin du behera ehunekoak.

### 48. GRAFIKOA

### Euskadin eta Espainian ardatz politikoak eta hiritarrak eragindako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2013-2018




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

## 5.2. Ardatz politiko eta hiritarraren adierazleak

Ardatz honetan aztertutako lau dimentsioek 19 adierazle jasotzen dituzte. Euskadin 2018an zegoen egoerari heltzen baldin badiogu ikus dezakegunez, gehien ematen den arazoa etxebizitzari dagokionez gehiegizko gastuak dituzten etxeen ingurukoa da, biztanleriaren % 10,6an eragiten duelarik (edo, balio absolutuetan, 232.000 pertsonari). Haren ondotik familietan arazo ekonomikoen ondorioz sendagaiak erosteari, tratamenduak jarraitzeari edo dietak egiteari utzi dion biztanleria aipatu behar da (biztanleria osoaren % 8,8, 193.000 pertsona inguru). Gero osasuntsuak ez diren etxebizitzetan (hezetasun, zikinkeria edo usainekin) bizi den biztanleria (% 7,1), pilamendu larriko egoeran diren familietan bizi den biztanleria (% 6,2), ordezkariak hautatu eta hautatua izateko eskubidea baliatzeko zailtasunen bat duen pertsonaren bat bizi den familiak (% 6,1) eta interesik ez izateagatik edo herritar erakunde bakar bateko kide ez izateagatik hauteskundeetan parte hartzen ez duten pertsonak (% 5,8) aipatu behar dira.

Zein adierazlek egin du behera eta zein igo da 2013az geroztik? Adierazle guztien artean oztopo arkitektonikoak dituzten etxebizitzetan bizi den biztanleriaren

eta familian ezintasun fisikoak dituzten pertsonen ehunekoa (Euskadin % 14,2 izatetik % 2,9 izatera pasa dira) eta azken hamar urteotan edo gaur egun gosea maiztasunez pasa ohi duten pertsonak bizi diren familiena (% 6,1etik % 0,6ra 2018an) murriztu egin dela aipatu behar da.

Igotzen direnen artean, etxebizitzako gehiegizko gastuak dituztenen ehunekoa nabarmetzen da, Euskadiko biztanleriaren % 3,6tik % 10,6ra egiten baitu jauzi. Halaber, ordezkariak hautatu eta hautatua izateko eskubidea baliatzeko zailtasunak dituen pertsonaren bat bizi den familien ehunekoa ere azpimarragarria da (% 2,9tik % 6,1era azken bost urtetan).

Azkenik, zein alderditan ikusten da alderik handiena Euskadi eta Espainiaren artean? Aldeak oso handiak ez badira ere, Euskadin ikasketak dituzten 16 urtetik 64 urtera bitarteko kide bakar bat ez dagoen familien garrantzi erlatibo txikiagoa nabarmendu behar da (% 2,1 Euskadin eta % 4,7 Espainian); edo azken 10 urteotan edo gaur egun gosea maiztasunez pasatzen duten familiena (% 0,6 Euskadin eta % 2,6 Espainian), eta ordezkariak hautatu eta hautatua izateko eskubidea baliatzeko zailtasunak dituen pertsonaren bat duten familiena (% 6,1 Euskadin eta % 7,6 Espainian). Orobat, aldeak arras deigarriak ez badira ere, Euskadin eguneroko jardunak burutzeko mugak dituzten familien (kide guztiak) ehuneko handiagoa nabarmendu beharko litzateke (% 4,3 Euskadin eta % 2,5 Espainian), eta baita laguntzarik gabeko mendeko pertsonak dituzten familiena ere (% 2,1 Euskadin eta % 0,9 Espainian).

**26. TAULA**

**Euskadin eta Espainian ardatz politiko eta hiritarreko gizarte-bazterkeriaren adierazleek eragindako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2013-2018**

| | | | Espainia | | Euskadi | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Dim.** | **ZB.** | **Adierazleak** | **2013** | **2018** | **2013** | **2018** |
| **Politika** | 9 | Beren ordezkari politikoak hautatu eta hautatuak izateko eskubiderik gabeko pertsonak dituzten familiak: erkidegoz kanpoko 18 urte eta gehiagoko pertsonaren bat duten familiak (elkarrekikotasun-hitzarmenik gabe) | 6,2 | 7,6 | 2,9 | 6,1 |
| | 10 | Aintzatetsia izateko eta erabaki kolektiboak hartzeko prozesuetan eragiteko egiazko ahalmenik gabeko pertsonaren bat duten familiak: ez dute hauteskundeetan parte hartzen interesik ez dutelako eta ez dira erakunde hiritar bakar bateko kide | 8,3 | 6,1 | 6,3 | 5,8 |

## 26. TAULA

## Euskadin eta Espainian ardatz politiko eta hiritarreko gizarte-bazterkeriaren adierazleek eragindako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2013-2018 (*Jarraipena*)

| Dim. | ZB. | Adierazleak | Espainia 2013 | Espainia 2018 | Euskadi 2013 | Euskadi 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Heziketa** | 11 | Eskolaratu gabeko 3-15 urte bitarteko pertsonak dituzten familiak 2017-2018 ikasturtean zehar | 1,6 | 0,7 | 0,5 | 0,2 |
| | 12 | Familiako 16-64 urte bitarteko kide bakar batek ere ez du ikasketarik: 16-54 urte bitarteko kideak, OHO, DBH edo Eskola-Graduatua amaitu gabeak; 55-64 urte bitarteko kideak, eskolan 5 urte baino gutxiagoan izandakoak | 3,3 | 4,7 | 1,6 | 2,1 |
| | 13 | Irakurtzen eta idazten ez dakien edo eskolara joan ez den 65 urte edo gehiagoko pertsonaren bat duten familiak | 4,1 | 1,6 | 1,7 | 0,9 |
| **Etxebizitza** | 14 | Infraetxe-egoeran diren familiak: txabola, etxabea, barrakoia, aurrefabrikatua edo antzekoa* | 0,8 | 0,3 | 0,1 | -- |
| | 15 | Etxebizitzari dagokionez eraikuntzan gabezia larriak dituzten, aurri egoeran diren edota egituraren zatirik handienean eraberritze-lanak egiteko premia duten familiak | 1,8 | 2,0 | 2,1 | 2,0 |
| | 16 | Osasuntsuak ez diren egoerak dituzten familiak: hezetasunak, zikinkeriak eta usainak | 10,1 | 6,9 | 6,8 | 7,1 |
| | 17 | Pilamendu-egoeran diren familiak (pertsonako 15 metro koadro baino gutxiago) | 6,6 | 6,7 | 7,7 | 6,2 |
| | 18 | Etxebizitza egoera eskasean duten familiak: beste pertsona edo instituzio batzuek doan emanda, berralokatua, legez kanpo okupatuta, etxebizitzatik kanporatua izateko mehatxuren bat jasota | 6,2 | 3,9 | 4,1 | 2,8 |
| | 19 | Oso ingurune kaltetuan edota auzo gatazkatsuan bizi diren familiak | 2,7 | 1,5 | 1,2 | 1,6 |
| | 20 | Desgaitasuna duten pertsonak dituzten eta oztopo arkitektonikoak dituzten etxeetan bizi diren familiak | 5,4 | 3,5 | 14,2 | 2,9 |
| | 21 | Etxebizitzako gehiegizko gastuak dituzten familiak (sarrerak-gastuak etxebizitzan < txirotasun larriaren atalasea) edo etxebizitza eta etxebizitzako zuzkidurak ordaintzearekin lotutako zorrak dituztenak | 9,4 | 11,0 | 3,6 | 10,6 |
| **Osasuna** | 22 | Osasun aldetiko estaldurarik gabeko pertsonaren bat duten familiak | 0,4 | 0,8 | 0,0 | 1,1 |
| | 23 | Azken 10 urteotan edo oraintxe bertan gosea maiz pasatzen duen norbait duten familiak | 4,5 | 2,6 | 6,1 | 0,6 |
| | 24 | Familiako kide guztiak desgaitasuna, gaixotasun kronikoa edo osasun arazo larriak dituzte, eguneroko jardunak burutzeko mugatzen dutenak | 1,2 | 2,5 | 3,2 | 4,3 |
| | 25 | Laguntza edo beste pertsona baten zaintza behar duen (eguneroko jardunak burutzeko) eta halakorik jasotzen ez duen mendeko pertsonaren bat duten familiak | 1,1 | 0,9 | 1,5 | 2,1 |
| | 26 | Gaixotasun larri edo kronikoa izan eta gaixotasun horretarako osasun laguntza jaso ez duen pertsonaren bat duten familiak | 1,0 | 1,6 | 0,6 | 1,8 |
| | 27 | Arazo ekonomikoen ondorioz sendagaiak erosi, tratamenduak jarraitu edo dietak egiteari utzi dioten familiak | 15,8 | 8,8 | 9,7 | 8,8 |

*Ez dago datua kalkulatzea ahalbidetzen duen gutxieneko maiztasunik.

Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

## 5.3. Partaidetza politiko eta hiritarra integrazioa eraikitzeko

Erabakiak hartzeko prozesuan egiazko partaidetza izatea gizarteratzeko gure eredua eraikitzeko baliatu dugun funtsezko elementuetako bat da. Bazterkeriaren dimentsio anitzeko azterketan ezin da alde batera utzi gizarte-partaidetzaren kontzeptua eredu horren egituratzaile modura.

Hori dela eta, Gizarte-bazterkeriaren Indize Sinstetikoa eraikitzeko erabilitako adierazleetatik harago, komenigarria da, era berean, partaidetza zibiko eta politikoarekin lotutako zenbait alderdik biztanlerian eta, bereziki, gizarte-bazterkeria egoeran den harengan, zer-nola eragiten duen aztertzea.

Horietako bat demokraziaren funtzionamenduarekiko gogobetetzea da. Adierazle horrek behera egin du biztanleria osoa aintzat hartuta 2008ko ekonomia-krisiaren ostean sortutako krisi politiko eta instituzionalaren ondorioz. Baina, ba al dago alderik arlo horretan integrazio-egoeran den eta bazterkeria-egoeran den biztanleriaren artean? 49. grafikoko datuek agerian uzten dutenez, oro har, demokraziaren funtzionamenduarekin gustura ez daudela dioten familien proportzioa handia da. Proportzio hori % 52,5ekoa da Espainian eta, are adierazgarriagoa da Euskadin (% 60). **Gainera, atsekabea handiagoa da gizarte-bazterkeria egoeran dauden biztanleen artean (% 68,3) integrazioaren eremuan kokatutako biztanleen artean (% 58,7) baino.** Espainian ere demokraziaren funtzionamenduarekiko atsekabe-maila handiagoa da bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean (% 59,6) integrazio-egoeran dauden pertsonekin (% 51) alderatuz.

### 49. GRAFIKOA

**Euskadi eta Espainiako familien banaketa, integrazio-maila bakoitzerako Espainiako demokraziaren funtzionamenduarekiko asebetetze-mailaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Gauza bera gertatzen da partaidetza zibiko-politikoaren tasak aztertzen direnean. 50. grafikoan beti edo ia beti hauteskunde-deialdietan (udalekoak, erkidegokoak eta nazionalak) parte hartzen duten eta, kide aktibo edo ez aktibo modura, erakunde zibiko-politiko batean (erlijio-elkarteak, sindikatuak, alderdi politikoak, erakunde ekologistak, auzo-elkarteak, emakumeen elkarteak, gazteenak, adineko pertsonenak edo hezkuntza arlokoak) bederen parte hartzen duten familien ehunekoa jasotzen da, biztanleria osoa kontuan izanik, integrazio-egoeran dauden pertsonak eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonak bereiziz.

Datuak demokraziaren funtzionamenduarekiko atsekabearen kasuan bezain argigarriak dira: **Euskadin, gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan partaidetza politikoaren tasa (% 11) askoz ere baxuagoa da integrazio-egoeran dauden familietan ageri dena baino (% 26,9).** Espainian, aldeak apur bat txikiagoak badira ere, gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan partaidetza zibiko eta politikoko mailak (% 9,2) askoz ere baxuagoak dira integrazio-egoeran bizi diren familiekin alderatuz (% 19,3).

### 50. GRAFIKOA

### Euskadi eta Espainiako familien banaketa, integrazio-maila bakoitzerako partaidetza zibiko-politiko aktiboaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 5.4. Gizarte-bazterkeriako egoerak eta hezkuntzara sartzeko baldintzak

Aurreko kapituluan familiako euskarri nagusia den pertsonaren hezkuntza-mailaren eta bazterkeria-egoeren artean dagoen lotura azaleratu da. Gogoan izan behar da Euskadin ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituzten pertsonak euskarri diren familietan bazterkeria-mailak % 19koak direla, eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak euskarri diren familietan ehuneko hori % 12,4koa dela, eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 27 hezkuntza-maila baxuago batean daudela.

Oinarrizko elementu horiekin batera, nabarmendu behar da, era berean, Euskadiko biztanleriaren % 7,4 eskolako materialaren gastuari aurre egiteko zailtasunak dituzten familietan bizi dela, ehuneko hori Espainiakoaren (% 6,7) antzekoa delarik; gogoratu behar da, % 4,6ak ikasketak egiteko beka bat eskatu eta ukatu egin zaiola, eta % 5,1ak jangelarako beka bat eskatu eta era berean ukatu egin zaiola. Azken bi kasu horietan ehunekoak apalagoak dira Espainiarekin alderatuz, non ukatzearen ehunekoak % 3,3 eta % 2,4koak izan baitira, hurrenez hurren.

Biztanleria osoan intzidentzia nahikoa baxua izan arren, eskolako materialak erosteko zailtasun ekonomikoak gizarte-bazterkeria egoeran den biztanleriaren % 22,3an du eragina Euskadin, eta egoera horretan dagoen biztanleriaren % 22,5ean Espainiaren kasuan.

**51. GRAFIKOA**

**Biztanleriaren banaketa Euskadin eta Espainian, arazo ekonomikoak direla medio azken urtean hezkuntzaren alorreko egoerei aurre egin behar izan dieten familietan. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### 5.5. Etxebizitzaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko erlazioan sakontzeko gakoetako batzuk

Dagoeneko adierazi dugunez, etxebizitzaren dimentsioarekin lotutako zailtasunen intzidentzia 2013-2018 bitartean murriztu egin bada ere, gizarte-bazterkeria egoeran diren pertsonen artean ehuneko oso handi batek (% 58 Euskadin eta % 60,1 Espainian) gabezia adierazgarriak ditu alderdi horri so. Berez, 2018an, Espainian etxebizitzaren dimentsioa da gizarte-bazterkeria egoeran diren pertsonen artean modu agerikoenean eragiten duen dimentsioa, are enpleguaren bazterkeriaren aurretik. Hori dela eta, etxebizitzarekin lotutako arazo eta egoera jakin batzuek gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonengan, eta biztanleria osoarengan, zer-nolako eragina duten aztertzea komeni da.

Ildo horretatik, jarraian agertzen diren datuek agerian uzten dute etxebizitzarekin lotutako egoera problematiko jakin batzuk Euskadiko biztanleria osoan zer-nola hedatu diren, neurri handi batean, baliabide ekonomiko nahikoa ez izatetik, energiaren kostutik eta dimentsio honi dagozkion zailtasunak behar beste murriztea lortzeko politika publikoak ez garatzetik eratorrita. Modu horretan, **euskal biztanleriaren % 23,7ak murriztu egin behar izan ditu etxebizitzaren hornidura-gastuak (elektrizitatea, ura, gasa), % 18,5ak telefono-, telebista- edo internet-gastuak, % 9ak ezin izan ditu etxebizitzari lotutako gastuak ordaindu, eta % 5,1ak argiaren, uraren edo telefonoaren mozketa abisuak jaso ditu.** Etxeko gastu finkoen murrizketaren kasuan izan ezik, gainerakoan eragindako pertsonen ehunekoa zertxobait baxuagoa da Euskadin Espainian baino, bereiziki, etxeko gastuei aurre egiteko nahiko diru ez izateari eta horniduren mozketa abisuei dagokienez.

Horri dagokionez, gaineratu behar da Euskadiko familien ehuneko ez mespretxagarri batek atzeratu behar izan dituela nolabaiteko maiztasunez (bitan edo gehiagotan) etxeko horniduren ordainagirien ordainketa (% 4,4), etxebizitzarekin lotutako ordainketak (alokairua edo hipoteka) (% 2), isun, zerga edo Administrazioarekiko kotizazioen ordainketa (% 0,7) edo mailegu pertsonal edo kreditu-txartelaren amortizazioaren ordainketa (% 1). Familien % 5,2 birritan baino gehiagotan atzeratu da ordainketa horietako batean gutxienez Euskadin, eta ehuneko hori % 9,1ekoa da Espainian. Dena den, arlo honetan Euskadiko familiek zorren ordainketan egunera ipintzeko ahalmen handiagoa erakusten dute Estatuarekin alderatuta: Zor edo atzerapen horietan izan diren familien % 31,4ak adierazten duenez egunean ipintzea lortu du, eta % 29,3ak epe laburrean egingo duela dio. Espainian ehuneko horiek % 33,3 eta % 23,4koak dira, hurrenez hurren.

Berez, adierazi behar da Espainian familien % 2,2k kredituak edo finantzazioa berriro negoziatu behar izan duela arazo ekonomikoen ondorioz. Ehuneko hori % 2,6koa da Euskadiren kasuan.

### 52. GRAFIKOA

### Biztanleriaren banaketa Euskadin eta Espainian, arazo ekonomikoak direla medio azken urtean etxebizitzaren alorreko egoerei aurre egin behar izan dieten familietan. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### 27. TAULA

### Ordainagirien ordainketan birritan edo gehiagotan atzeratu diren familien banaketa, Euskadin eta Espainian zorrak kitatzeko ahalmenaren arabera. 2018

| | Espainia | Euskadi |
|---|---|---|
| Bai, ahal izan dut | 33,3 | 31,4 |
| Bai, epe laburrean ahalko dut (12 hilabete edo lehenago) | 23,4 | 29,3 |
| Ez, denbora gehiago beharko dut | 21,5 | 18,5 |
| Ezingo dut luzaroan | 18,1 | 20,8 |
| Ez daki | 3,7 | 0,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Espero zitekeen bezala, **halako atzerapen mota bat izatearen arriskua askoz ere handiagoa da gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan (horietatik % 16,7k ordainketak atzeratu behar izan ditu) integrazio-egoeran dauden familietan baino (% 3,3).** Modu horretan, egia bada ere gizarte-bazterkeria egoeran dauden familien % 80 baino gehiagok ez dituela ordainketak atzeratu behar izan, ez da azpimarratu gabe utzi behar gizarte-bazterkeriarekin lotutako esparruetan zorpetze-egoera horiek duten inpaktu apartekoa.

### 53. GRAFIKOA

### Euskadi eta Espainiako familien banaketa integrazio-maila bakoitzerako, azken urtean ordainagirien ordainketan birritan edo gehiagotan atzeratu izanaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Etxebizitzaren dimentsioari dagokionez agerian jartzeko beste elementu adierazgarri bat gizarte-bazterkeria egoeran de biztanleriak alokairuzko etxebizitzarako duen joera bereizgarria da, hala Euskadin nola Espainian. Horrela, 54. grafikoan ikus daitekeenez, **gizarte-bazterkeria egoeran dauden Euskadiko familien % 29ak alokairuzko etxebizitza eskuratu du, ehuneko hori % 16koa delarik integrazio-egoeran dagoen biztanleriaren artean,** azken horiek etxebizitza jabetzan eskuratzera jotzen baitute askoz ere neurri handiagoan. Espainian egoera berdina da. Haatik, Espainian bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriak askoz ere gehiago jotzen du alokairuzko etxebizitzara Euskadin baino: Halaxe da, Espainian bazterkeria-egoeran dauden familien % 42 alokairuan bizi da. Datu horrek integrazio-egoeran dauden familien ehunekoa bikoiztu egiten du (% 21,9).

## 54. GRAFIKOA
### Euskadi eta Espainiako familien banaketa integrazio-maila, bakoitzerako etxebizitza izateko moduaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 5.6. Osasuna, desgaitasuna, mendekotasuna eta gizarte-bazterkeria

Ikerketa askok agerian utzi dute desberdintza ekonomikoak osasun, morbilitate eta hilkortasunari so duen eragina, osasun arazoen eta gizarte-bazterkeriaren artean dagoen lotura azaleratzeaz gainera. Aurreko orrialdeetan dagoeneko adierazi da, bestalde, Euskadiko biztanleriaren % 1,1 gutxienez pertsona bat osasun estaldurarik gabe dagoen familietan bizi dela, % 0,6 azken hamar urteetan gosea pasa duten familietan bizi dela eta % 8,8 arazo ekonomikoak direla medio sendagaiak erosi, tratamenduak jarraitu edota dietak egiteari utzi dioten familietan bizi dela. Edozein kasutan, inkestako datuekin bat etorriz, **Euskadin irisgarritasun fisikoagatik edo zerbitzuan sartzeko zailtasunak direla medio osasun arretan sartzeko arazo garrantzitsuak izan dituen biztanleriaren ehunekoa oso urria da.** Horrela, 55. grafikoko datuen arabera, biztanleriaren % 0,1 soilik geratu da osasun arreta jasotzeko aukerarik gabe joan-etorria ordaindu ezin izateagatik, nahiz eta hura jasotzeko premia izan. Modu berean, Euskadiko biztanleriaren % 0,6 soilik geratu da medikura joan gabe itxarote-zerrendan egoteatik, osasun arreta jasotzeko premia izan arren. Ehuneko horiek zertxobait handiagoak dira Espainian (% 0,6 eta 1,3 hurrenez hurre), nahiz eta balio oso baxuak izaten jarraitzen duten.

## 55. GRAFIKOA

### Biztanleriaren banaketa Euskadin eta Espainian arazo ekonomikoak direla medio azken urtean osasunaren alorreko egoerei aurre egin behar izan dieten familietan. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Gizarte-bazterkeria, era berean, familian desgaitasun edota mendekotasunen bat duten pertsonak izatearekin lotuta dago argiro. Ildo horretatik, **gizarte-bazterkeriaren intzidentzia Euskadiko biztanleria osorik hartuta % 15,2koa dena, % 27,6ra igotzen da desgaitasunen bat duen pertsonaren bat bizi den familien kasuan (11) eta % 34,1era mendekotasuna duen pertsonaren bat bizi den familien kasuan (12).** Hala eta guztiz ere, eta ikuspegi alderatu batetik beha, bi lurraldeetarako emaitzak ez dira gehiegi aldatzen, nahiz eta Euskadiren kasuan desgaitasunen bat duen pertsonaren bat bizi den familietan gizarte-bazterkeriak eragindako biztanleriaren ehunekoa zertxobait baxuagoa izan (% 27,6koa eta % 28,9koa Espainian), eta mendekotasuna duen pertsonaren bat bizi den familietan ehunekoa handiagoa izan (% 34,1 eta % 33 hurrenez hurren).

**(11)** Aldagai hori desgaitasunaren ziurtagiria duten pertsonen proportziotik abiatuz diseinatu da, edozein izanik ere aitortutako desgaitasun-maila.

**(12)** Mendekotzat jotzen dira mendekotasun-egoera bat aitortuta duten pertsonak.

## 56. GRAFIKOA

## Euskadi eta Espainian gizarte-bazterkeriak eragindako biztanleriaren ehunekoa, familian desgaitasun edo mendekotasunen bat duen pertsonaren bat izatearen arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

# 6

# Gizarte-bazterkeriaren ardatz soziala eta erlazionala

# Edukia


**6.1.** Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak ........ 137

**6.2.** Ardatz sozial eta erlazionalaren adierazleak ........ 139

**6.3.** Sare soziala eta gizarte-bazterkeria ........ 140

# 6. kapitulua
# Gizarte-bazterkeriaren ardatz soziala eta erlazionala

## 6.1. Oraingo egoera, bilakaera eta Espainiarekin alderatuta desberdintasun nagusiak

Azkenik, bazterkeriaren hirugarren ardatz nagusiak eremu sozial eta erlazionala deskribatzen du, funtsean gizarte-gatazka eta -isolamendu egoerak dituena aipagai. Pertsonak beren egunerokotasunean inguruneko beste pertsona batzuekin izaten dira elkarrekintzan, auzoan, familian, komunitate etniko, ludiko edo erlijiozkoan, etab. Elkarrekintza horien ondorioz elkartasun-sareak sortzen dira, egiazko gizarte-bitartekoak direnak (kapital soziala). Baina, era berean, kidetasun- eta nortasun-prozesuak sortzen dira, integrazioaren dimentsio sinbolikoari so ez direnak garrantzia gutxiagokoak. Elkarrekintza mota horiek aztertzeko adierazleak finkatzeko zailtasuna dela medio, egoera horiek bi dimentsiotan bereizten dira. Alde batetik, gizarte-isolamendua bazterkeria modu giza, hau da, gizarte-loturarik ez izatea, gizarte-babesik eza, batez ere familia-instituzioaren bidez, baina baita auzoan edo beste elementu batzuetan oinarritutako komunitateko loturen bidez. Bestalde, gizarte-gatazkaren dimentsioa dago. Bertan sartu ditugu gizarte harreman txar edo gatazkatsuak, eta baita gizarte- edota familia-gatazka sor dezakeen eremua (portaera anomikoak, adikzioak, tratu txarrak, auzotarren eta senitarteen arteko harreman gaiztotuak).

Aurreko bi ardatzetan egin den bezala, lehenik eta behin, dimentsio horietan Euskadin eta Espainian arazoek eragindako biztanleriaren ehunekoa –hala bazterkeria egoeran den biztanleria aintzat hartuta nola biztanleria osoa kontuan izanik- aztertzen da, eta haren bilakaera 2013 eta 2018 bitartean. Bigarrenik, horietako bakoitzean arazoek eragindako biztanleriaren ehunekoarekin lotutako

egoera horiek zehazten dituzten zortzi adierazleak aztertzen dira, berriz ere alderaketa eta bilakaeraren ikuspegitik.

Azkenik, bazterkeriaren zortzi dimentsio horiekin lotutako zenbait elementu espezifiko aztertzen dira, esate baterako, laguntza ez-formalaren prestazioa eta jasotzea, azaro ekonomikoek eragindako gizarte-harremanen galera eta diskriminazio-egoeren pertzepzioa.

Aurrez adierazi den moduan, ardatz sozial eta erlazionaleko bazterkeriak Euskadiko biztanleriaren % 8,2an du eragina. Halaber, esan izan denez, ardatz honetan bazterkeria-egoerek eragindako biztanleriaren ehunekoa Euskadin Espainian baino zertxobait handiagoa da, eta azken urteotan Euskadin egoera horiek gutxiagotu egin dira. Ardatz hori osatzen duten bi dimentsio handi horietako bakoitza aztertuz gero ikusten denez, **gizarte-gatazka egoerek Euskadiko biztanleriaren % 5,8an dute eragina, bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren % 26,5ean (beraz, 4,5 bider handiagoa da eragina) eta bazterkeria-egoera larrian den biztanleriaren % 28,6an** (maila orokorra bost bider ia). **Gizarte-isolamenduaren dimentsioari dagokionez, Euskadiko biztanleriaren % 2,6an du eragina, bazterkeria-egoeran den biztanleriaren % 8,2an eta bazterkeria-egoera larrian den biztanleriaren %13,1ean.** Aipagarri da bazterkeria-egoeran eta bazterkeria-egoera larrian den biztanleriaren artean Euskadin eragindakoen ehunekoa Espainiakoa baino zertxobait handiagoa dela, bereziki gizarte-gatazkaren dimentsioari dagokionez.

### 57. GRAFIKOA

**Ardatz sozial eta erlazionaleko dimentsioetako bakoitzak eragindako biztanleriaren ehunekoa Euskadin eta Espainian, integrazio-mailaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bilakaerari erreparatuz, eta biztanleria osoa kontuan hartzen baldin bada, **bi dimentsio horien eragina nabarmen murriztu da 2013-2018 bitartean, % 8,1etik % 5,8ra igaroz gizarte-gatazkaren kasuan eta % 4,1etik % 2,6ra isolamenduaren kasuan.** Espainian gizarte-gatazkaren intzidentziak ere behera egin du, baina islamendu-egoerak mantendu egin dira. Dena den, biztanleriaren oso ehuneko baxuan dute eragina azken egoera horiek (% 2,8).

**58. GRAFIKOA**

**Ardatz sozial eta erlazionalak eta horietako dimentsioek eragindako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian. 2013-2018**




Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

## 6.2. Ardatz sozial eta erlazionalaren adierazleak

Ardatz sozial eta erlazionala osatzen duten bi dimentsioak zortzi adierazleren arabera egituratzen dira. Adierazle horietako bakar batek ez du eragiten Euskadin biztanleriaren % 2,7 baino gehiagoan. Egiaz oso egoera minoritarioak dira, biztanleria osoa aintzatetsiz oso ehuneko urria ageri dutenak eta, are, bazterkeria-egoeran den biztanleriari begira ere ehunekoa oso apala da; berezitasun horren ondorioz, hain zuzen, gabezia horiek eragindako pertsonen bizi-baldintzen gainean duten inpaktua handiagoa da.

Gehien errepikatzen den egoera azken hamarkadan zehar tratu txar fisiko edo psikologikoak pairatu dituen pertsonaren bat bizi den familiei buruzkoa da,

biztanleria osoaren % 2,7 izanik, 2013. urtean % 3,4koa zelarik. Espainian ehuneko hori % 2,4koa da; era berean, alkoholarekin eta drogekin edo jokoarekin azken hamarkadan arazoak izan dituen pertsonaren bat duten familien kasua ere maiz ematen da (biztanleria osoaren % 2,5 eta 2013an % 3,2; Espainian berriz % 2koa da ehunekoa).

**28. TAULA**

**Euskadin eta Espainian ardatz sozial eta erlazionaleko gizarte-bazterkeriaren adierazleek eragindako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2013-2018**

| Dim. | ZB. | Adierazleak | Espainia 2013 | Espainia 2018 | Euskadi 2013 | Euskadi 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-bazterkeria | 28 | Azken 10 urteotan tratu txar fisiko edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen dituen norbait bizi den familiak | 2,7 | 2,4 | 3,4 | 2,7 |
| | 29 | Etxeko kideen artean harreman oso txarrak, txarrak edo txar samarrak dituzten familiak | 0,8 | 0,6 | 1,4 | 1,1 |
| | 30 | Azken 10 urteotan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituen edo dituen inor bizi den familiak | 2,6 | 2,0 | 3,2 | 2,5 |
| | 31 | Azken 10 urteotan 18 urte baino gutxiagorekin aita edo ama izan den edo izatear den inor bizi den familiak | 1,0 | 0,8 | 0,1 | 0,6 |
| | 32 | Azken 10 urteotan justiziarekin (aurrekari penalak) arazoak izan dituzten edo dituzten pertsonak bizi diren familiak | 1,0 | 0,7 | 1,5 | 1,1 |
| Gizarte-isolamendua | 33 | Etxean inolako harremanik ez duten familiak, gaixotasunen kasuan edo egoera zailen kasuan inolako laguntza pertsonalik gabe | 2,0 | 2,2 | 2,5 | 1,7 |
| | 34 | Auzotarrekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familiak* | 0,5 | 0,4 | 1,3 | -- |
| | 35 | Instituzio jakin batzuetan dauden pertsonak dituzten familiak: droga-mendekotasun zentroak, ospitaleak eta pisu psikiatrikoak, espetxeak, adin txikientzako zentroak, etxegabekoentzako zentroak edo emakumeentzako zentroak | 0,2 | 0,2 | 0,3 | 0,9 |

*Ez dago datua kalkulatzea ahalbidetzen duen gutxieneko maiztasunik.
Iturria: EINSFOESSA 2013 eta 2018.

## 6.3. Sare soziala eta bazterkeria

Ardatz sozial eta erlazionalarekin lotutako alderdiak hiru ikuspegitatik aztertzen dira kapitulu honetan, hau da, laguntza behar izanez gero familien arteko laguntza-sareei buruzkoa, berriki arazo ekonomikoak izateagatik ohiko gizarte-harremanal galtzeari buruzkoa eta familietan etnia, sexu edo itxura fisikoa dela medio hautematen diren diskriminazio-egoerei buruzkoa.

Familien arteko laguntza motei dagokienez, **Euskadiko biztanleriaren % 76,8 laguntzak eman eta jasotzen dituzten familietan bizi da, hau da, beste batzuekin batera elkar lagundu egiten dute. Biztanleriaren % 9,6 laguntza jaso baino egiten ez duten familietan bizi da eta antzeko ehunekoa da (% 9,2) laguntzarik eman ez eta jaso ere egiten ez duten familietan bizi direnena. Azkenik, % 4,5 eman baino egiten ez duten familietan bizi da eta, horrenbestez, ongile modura har daitezke.** Espainian biztanleria oso bestelako modu batean banatzen da kategoria horietan: laguntza eman eta jasotzea konbinatzen duten familietan bizi den biztanleriaren ehunekoa apalagoa da (% 53,6) eta askoz ere handiagoa da laguntzarik eman ez eta jaso ere egiten ez duten familietan bizi direnena (% 23,4), soilik jaso egiten dutenena (% 17) edo soilik eman egiten dutenena (% 6). Nolabait esatearren, Euskadin laguntza eredu sozialean elkarren arteko estrategia askoz ere modu orokortuagoan hartzen da kontuan.

### 59. GRAFIKOA

### Euskadi eta Espainiako biztanleriaren banaketa, familiek jaso edota eskaintzen duten laguntzaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Biztanleriaren zati batek dituen arazo ekonomikoen ondorioz gizarte-sareak ahuldu egin dira eta lagunak galdu dira bidean, bereziki gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen kasuan, hala Euskadin nola Espainian. Halaxe da, **Euskadiko biztanleriaren % 8,6 arazo ekonomikoen ondorioz gizarte-harremanak galdu izana adierazten duten familietan bizi da: ehunekoa % 25,5ekoa da gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietako biztanleen artean, eta 4,6 bider txikiagoa da integrazio-egoeran dauden familietako biztanleen artean (% 5,5).**

### 60. GRAFIKOA

## Arazo ekonomikoen ondorioz azken urtean zehar ohiko gizarte-harremanak galdu dituzten familietako biztanleen banaketa Euskadin eta Espainian. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Egoera oso antzekoa da Espainian. Dena den, arazo ekonomikoen ondoriozko gizarte-harremanen galera zertxobait nabarmenagoa da Estatuan. Bertan biztanleriaren % 10ean eragin du egoera horrek, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 28,8k nabaritu du galera hori eta integrazio-egoeran dauden pertsonen % 5,8k -bost bider gutxiago-.

Azkenik, **Euskadiko biztanleriaren % 18,2 diskriminazio motaren bat jaso izana adierazten duten familietan bizi da. Diskriminazio horiek izan daitezke sexuaren ondoriozkoak (% 8,5), arraza edo etniaren ondoriozkoak (% 7,1) edo itxura fisikoarekin lotutako arrazoiak direla medio (% 3,5).** Kasu guztietan diskriminazio motaren bat jaso izana adierazten duten familietan bizi den biztanleriaren ehunekoa handiagoa da Euskadin Espainian baino, non biztanleriaren % 12,9 diskriminazio moduren bat jaso duten familietan bizi baita. Inkesta egin duten pertsonek adierazten dituzten diskriminazio guztiak kontuan izanik, Espainian bizi diren pertsonen pertzepzioa oso ezberdina da Espainian jaio ez diren pertsonek dutenarekin alderatuz. Espainiaren kasuan, bertan jaiotako pertsonen ehuneko hamarrak diskriminazio motaren bat jasoko luke, kanpoan jaio direnen artean ehuneko hori ehuneko hogeita bostekoa izanik. **Euskadiren kasuan ehunekoa % 16,4koa da Espainian jaiotako biztanleen artean eta % 38,5ekoa kanpoan jaiotako pertsonen artean.**

## 61. GRAFIKOA

### Euskadi eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa, familiak hautemandako diskriminazio motaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 29. TAULA

### Gizarte-bazterkeriaren adierazleek eragindako pertsona eta familien ehuneko eta kopurua Euskadin. 2018

| Dim. | ZB. | Adierazleak | Pertsonak | | Familiak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | % | Kopur ua. | % | Kopur ua. |
| Enplegua | 1 | Urtebete edo gehiagotik familia-euskarri nagusia langabezian duen familia | 1,3 | 28.000 | 1,6 | 14.000 |
| | 2 | Familia-euskarri nagusiak enplegu baztertua duen familia (etxez etxeko salmenta, salmenta ibiltari lagungarria, salmenta ibiltari marjinala, Kualifikaziorik gabeko etxeko langileak, nekazaritzako peoiak, sasoikako langile aldizkakoak, hondakinak, propaganda-banatzaileak, eskaleak) | 1,8 | 39.000 | 1,6 | 14.000 |
| | 3 | Familia-euskarri nagusiak enplegu irregularra duen familia: kontraturik gabe eta Gizarte Segurantzako estaldurarik gabe | 0,9 | 20.000 | 0,8 | 7.000 |
| | 4 | Landun, pentsiodun, zergadun eta langabeziarengatiko kontribuzio-prestaziorik jasotzen duen inor ez duten familiak | 5,0 | 110.000 | 5,4 | 48.000 |
| | 5 | Azken urtean prestakuntza okupazionalik jaso ez duen langabetutako pertsona bat gutxienez duten familiak | 10,2 | 223.000 | 7,9 | 71.000 |
| | 6 | Pertsona aktibo guztiak langabezian dituen familia | 4,8 | 104.000 | 4,9 | 44.000 |
| Kontsu-moa | 7 | Muturreko txirotasunean diren familiak (batez besteko errenta baliokidearen % 30etik beherako diru-sarrerak). Atalase egonkorra erabiliz eurotan 4 botadatako batez besteko modura (2.945€ 2007an, 3.063 2009an, 3.339 2013an eta 3.416 2018an) | 5,1 | 111.000 | 4,2 | 37.000 |
| | 8 | Oinarritzakt jotzen den gutxienez ondare bat falta duten familiak: edateko ura, ur beroa, energia elektrikoa, ur zikinen hustuketa, sukaldea, hozkailua, arropa-garbigailua | 1,7 | 37.000 | 1,2 | 10.000 |

## 29. TAULA

## Gizarte-bazterkeriaren adierazleek eragindako pertsona eta familien ehuneko eta kopurua Euskadin. 2018 (*Jarraipena*)

| Dim. | ZB. | Adierazleak | Pertsonak | | Familiak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | % | Kopur ua. | % | Kopur ua. |
| Politika | 9 | Beren ordezkari politikoak hautatu edo hautatuak izateko eskubiderik gabeko pertsonak dituzten familiak: batasunaz kanpoko nazionalitatea duen 18 urte eta gehiagoko pertsonaren bat duten familiak (elkarrekikotasun-hitzarmenik gabe) | 6,1 | 133.000 | 4,3 | 38.000 |
| | 10 | Aintzatetsia izateko eta erabaki kolektiboak hartzeko prozesuan eragiteko ahalemik ez duen pertsonaren bat duten familiak: ez dute hauteskundeetan parte hartzen interesik ez dutelako eta ez dira erakunde hiritar bakar bateko kide | 5,8 | 127.000 | 4,7 | 42.000 |
| Hezi-keta | 11 | 2017-2018 ikasturtean zehar eskolaratu ez diren 3-15 urte bitarteko pertsonak dituzten familiak | 0,2 | 3.000 | 0,1 | 1.000 |
| | 12 | Familiako 16-64 urte bitarteko kide bakar batek ere ez du ikasketarik: 16-54 urte bitarteko kideak, OHO, DBH edo Eskola-Graduatua amaitu gabe; 55-64 urte bitarteko kideak, eskolan 5 urte baino gutxiagoan izandakoak | 2,1 | 45.000 | 2,4 | 21.000 |
| | 13 | Irakurtzen eta idazten ez dakien edo eskolara joan ez den 65 urte edo gehiagoko pertsonaren bat duten familiak | 0,9 | 20.000 | 1,0 | 9.000 |
| Etxebi-zitza | 14 | Infraetxe-egoeran diren familiak: txabola, etxabea, barrakoia, aurrefabrikatua edo antzekoa* | -- | -- | -- | -- |
| | 15 | Etxebizitzari dagokionez eraikuntzan gabezia larriak dituzten, aurri egoeran diren edota egituraren zatirik handienean eraberritze-lanak egiteko premia duten familiak | 2,0 | 43.000 | 1,9 | 17.000 |
| | 16 | Osasuntsuak ez diren egoerak dituzten familiak: hezetasunak, zikinkeriak eta usainak | 7,1 | 156.000 | 5,6 | 50.000 |
| | 17 | Pilamendu-egoeran diren familiak (pertsonako 15 metro koadro baino gutxiago) | 6,2 | 135.000 | 2,8 | 25.000 |
| | 18 | Etxebizitza egoera eskasean duten familiak: Beste pertsona edo instituzio batzuek doan emanda, berralokatuta, legez kanpo okupatuta, etxebizitzatik kanporatua izateko mehatxuren bat jaso izana | 2,8 | 62.000 | 2,7 | 24.000 |
| | 19 | Oso ingurune kaltetuan edota auzo gatazkatsuan bizi diren familiak | 1,6 | 35.000 | 1,1 | 10.000 |
| | 20 | Desgaitasuna duten pertsonak dituzten eta oztopo arkitektonikoak dituzten etxeetan bizi diren familiak | 2,9 | 63.000 | 3,2 | 29.000 |
| | 21 | Etxebizitzako gehiegizko gastuak dituzten familiak (sarrera-gastuak etxebizitzan < txirotasun larriaren atalasean) edo etxebizitza edo etxebizitzako zuzkidurak ordaintzearekin lotutako zorrak dituztenak | 10,6 | 232.000 | 9,4 | 85.000 |

## 29. TAULA
## Gizarte-bazterkeriaren adierazleek eragindako pertsona eta familien ehuneko eta kopurua Euskadin. 2018 (*Jarraipena*)

| Dim. | ZB. | Adierazleak | Pertsonak % | Pertsonak Kopur ua. | Familiak % | Familiak Kopur ua. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Osasuna | 22 | Osasun aldetiko estaldurarik gabeko pertsonaren bat duten familiak | 1,1 | 24.000 | 0,8 | 7.000 |
| | 23 | 10 urteotan edo oraintxe bertan gozea maiz pasatzen duen norbait duten familiak | 0,6 | 13.000 | 0,5 | 4.000 |
| | 24 | Familiako kide guztiak desgaitasuna, gaixotasun kronikoa edo osasun arazo larriak dituzte, eguneroko jardunak burutzeko mugatzen dutenak | 4,3 | 94.000 | 6,9 | 62.000 |
| | 25 | Laguntza edo beste pertsona baten zaintza behar duen (eguneroko jardunak burutzeko) eta halakorik jasotzen ez duen mendeko pertsonaren bat duten familiak | 2,1 | 45.000 | 2,9 | 26.000 |
| | 26 | Gaixotasun larri edo kronikoa izan eta gaixotasun horretarako osasun laguntza jaso ez duen pertsonaren bat duten familiak | 1,8 | 39.000 | 1,9 | 17.000 |
| | 27 | Arazo ekonomikoen ondorioz sendagaiak erosi, tratamenduak jarraitu edo dietak egiteari utzi dioten familiak | 8,8 | 193.000 | 7,7 | 69.000 |
| Gatazka soziala | 28 | Azken 10 urteotan tratu txar fisiko edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen dituen norbait bizi den familiak | 2,7 | 58.000 | 2,5 | 22.000 |
| | 29 | Etxeko kideen artean harreman oso txarrak, txarrak edo txar samarrak dituzten familiak | 1,1 | 24.000 | 0,8 | 7.000 |
| | 30 | Azken 10 urteotan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituen edo dituen inor bizi den familiak | 2,5 | 54.000 | 2,0 | 17.000 |
| | 31 | Azken 10 urteotan 18 urte baino gutxiagorekin aita edo ama izan den edo izatear den inor bizi den familiak | 0,6 | 13.000 | 0,5 | 4.000 |
| | 32 | Azken 10 urteotan justiziarekin (aurrekari penalak) arazoak izan dituzten edo dituzten pertsonak bizi diren pertsonak | 1,1 | 24.000 | 0,7 | 6.000 |
| Gizarte-isolamendua | 33 | Etxean inolako harremanik ez duten familiak, gaixotasunen kasuan edo egoera zailen kasuan inolako laguntza pertsonalik gabe | 1,7 | 37.000 | 3,7 | 33.000 |
| | 34 | Auzotarrekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familiak* | -- | -- | -- | -- |
| | 35 | Instituzio jakin batzuetan dauden pertsonak dituzten familiak: droga-mendekotasun zentroak, ospitaleak eta pisu psikiatrikoak, espetxeak, adin txikientzako zentroak, etxegabekoentzako zentroak edo emakumeentzako zentroak | 0,9 | 20.000 | 0,6 | 5.000 |

*Ez dago datua kalkulatzea ahalbidetzen duen gutxieneko maiztasunik.
Iturria: EINSFOESSA 2018.

# 7

# Euskadiko “intentsitate txikiko” eskubide sozialak: beharrak, itxaropenak, sarbide-mailak eta herritarren balorazioa

# Edukia


**7.1.** Oinarrizko datu batzuk Euskadik babes sozialaren inguruan gastatutakoari buruz ........ 150

**7.2.** Herritarrek beren bizi-maila eta bermatu beharreko eskubide sozialak nola hautematen dituzten ........ 153

**7.3.** Lanari lotutako eskubideak ........ 158

**7.4.** Etxebizitzari lotutako eskubideak ........ 161

**7.5.** Errenta-bermeari lotutako eskubideak ........ 164

**7.6.** Zerbitzu sozialei lotutako eskubideak ........ 168

**7.7.** Haurren hazkuntzari lotutako eskubideak ........ 179

**7.8.** Mendekotasunari lotutako eskubideak ........ 182

# 7. kapitulua

# Euskadiko "intentsitate txikiko" eskubide sozialak: beharrak, itxaropenak, sarbide-mailak eta herritarren balorazioa

2018ko Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkestaren berritasun nagusietako bat da galdetegian behar, igurpen, sarbide-maila eta herritarren balorazioari buruzko galdera sorta zabal bat sartzea, "intentsitate txikiko" modura hartu behar diren zenbait eskubide sozialekin lotuta: enplegua, etxebizitza, gutxieneko sarreren bermea, zerbitzu sozialak, hazkuntzarako laguntza eta mendekotasuna edo autonomia funtzional baterako mugak dituzten pertsonen arreta:

Kasu guztietan aurreko kapituluetan integrazio- eta bazterkeria-egoerekin zuzenean lotuta aztertutako eskubideak dira. Horrenbestez, eskubide horietara iristeko moduak eragin zuzena du deskribatu berri diren integrazio- eta bazterkeria-prozesu horiekin. Haatik, babes sozialaren beste eremu batzuetan (osasuna, hezkuntza edo pentsioak) herritarrei aitortutakoak bezain sendotuak ez dauden eskubideak dira, hala horiek asebetetzera bideratzen den gastu publikoari begira nola herritarrek horiek eskatzeko duten ahalmenari edo herritarrek horiek eskubide modura baitaratzeari so. Gainera, eskubide sozial hauen kasuan, instituzio erkidegoko eta tokikoei dagokie oinarrian horiek asebetetzea. Instituzio horiek aukerabide tekniko, ekonomiko eta politiko aldetik marjina zabala aplikatu dute horien garapenerako. Horrek horien azterketa autonomia erkidego bakoitzaren errealitate espezifikoa aintzatetsiz egitea justifikatzen du. Dena den, EAEk eskubide horien garapenean ezaugarri berezi batzuk agertzen ditu, Estatuko gainerako lurraldeetatik bereizten dutenak, jarraian ikusiko dugunez.

Garapen urriago horrek eta aukerabide marjina handiago horrek, eskubide horiek "intentsitate txikiko" gisa hartzea ahalbidetzen du eta, gainera, txosten

honetan horien azterketari eman zaion lehentasunezko arreta azaltzen du. Horretarako, azken kapitulu honetan enpleguari, etxebizitzari, diru-sarreren bermeari, zerbitzu sozialei, hazkuntzarako laguntzari edo mendekotasunarekin lotutako arretari, dagokienez Euskadiko eta Espainiako biztanleek dituzten behar, pertzepzio eta itxaropenak aztertzen dira xehetasunez, zerbitzu horiek zein mailatan erabiltzen dituzten, herritarrek horien funtzionamenduaren inguruan egiten duten balioespena eta Administrazioak eskubide horietarako sarbidea egiazkoa izan dadin duen erantzukizunaren inguruan duten pertzepzioa ikusiz.

Aurreko kapituluetan bezala, aztertutako alderdiekin lotutako Euskadiko biztanleen egoera Espainia osoan erregistratutakoarekin alderatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoak alderdi horretan dituen elementu bereizgarriak zehazte aldera. Halaber, arreta berezia eskaini zaio gizarte-bazterkeria egoeran dauden eta integrazio-egoeran dauden pertsonen artean alderdi horietan dauden aldeei, besteak beste, Euskadin herritar guztien eta, zehazki, gizarte-bazterkeria egoeran daudenen, behar, pertzepzio eta itxaropenei begira burutzen den gizarte esku-hartzea orientatze aldera.

Honakoa da kapitulu zabal honen egitura: lehenik eta behin Euskadin babes sozialean egiten den gastuari buruzko oinarrizko zenbait datu ematen dira, hartako gizarte-ongizate eredurako lehen hurbilketa gisa. Ondoren, herritarrek beren bizi-mailaren eta Administrazioak lehentasunez bermatu behar dituen eskubide sozialen bilakaeraren inguruan duten pertzepzioari buruzko zenbait datu zehazten dira. Kapituluaren gainerako ataletan enplegurako, etxebizitzarako, diru-sarreren bermerako, haurren hazkuntzarako eta mendekotasunaren arretarako dituzten eskubideei buruz Euskadiko herritarrek agertzen dituzten behar, itxaropen eta pertzepzioekin lotuta eskuragarri dagoen informazioa aztertzen da.

## 7.1. Oinarrizko datu batzuk Euskadik babes sozialaren inguruan gastatutakoari buruz

Txosten honetako aurreko kapituluetan agerian geratu denez Euskadin langabezia-, pobrezia monetario-, eta desberdinkeria-tasa apalagoak agertzen dira Espainian baino, biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordin handiago batekin. Gainera, erkidego honetan gizarte-bazterkeriaren tasak apalagoak dira Espainia osoan baino. Ikuspegi demografikotik so, Euskadin zahartze-tasa handiagoak eta biztanle atzerritarren garrantzia txikiagoa dira ezaugarri. Datu horiek gogorarazteaz gain, jarraian eskaintzen den informazioa testuinguruan ipintzeko, era berean, autonomia erkidego horretan babes sozialaren eremuan

burutzen den gastuari buruzko oinarrizko zenbait datu aztertzea komeni da, Espainia osoko datuekin alderaketa eginez.

30. taulan administrazioek babes sozial arloan 2002-2013 bitartean biztanle bakoitzeko egindako urteko batez besteko gastua jasotzen da **(13)**.

### 30. TAULA

### Babes sozialeko gastua finantzazio-iturriaren arabera Euskadin eta Espainian. Urteko batez besteko gastua eurotan pertsona bakoitzeko eta gastuaren banaketa. 2002-2013

| | Espainia | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Eurotan biztanleko | Banaketa (%) | Eurotan biztanleko | Espainia=100 | Banaketa (%) |
| Administrazio nagusia | 288,3 | 9,0 | 162,5 | 56,4 | 3,7 |
| Autonomia Erkidegoak | 195,0 | 6,1 | 158,9 | 81,5 | 3,6 |
| Tokiko Korporazioak | 120,5 | 3,7 | 497,0 | 412,3 | 11,4 |
| Gizarte Segurantza | 2.611,0 | 81,2 | 3.539,0 | 135,5 | 81,2 |
| Guztira | 3.214,9 | 100,0 | 4.357,4 | 135,5 | 100,0 |

Iturria: PÉREZ GARCÍA, F. (zuz.) (2015): *Servicios públicos, diferencias territoriales e igualdad de oportunidades*. Bilbo: BBVA Fundazioa.

Aintzatetsitako partidetan Euskadin burututako urteko batez besteko gastua 4.357,4 eurokoa da biztanleko. Zenbateko horren % 81,2 Gizarte Segurantzak finantzatu zuen, % 3,7 Administrazio nagusiak, % 3,6 Erkidegoko Administrazioak eta % 11,4 tokiko korporazioek (Euskadiren kasuan Foru Aldundiak ere barneratzen dira azken honetan) **(14)**. **Euskadiren kasuan babes sozialaren gastuaren egitura eta zenbatekoa ez da Espainia osoan dagoenaren antzekoa:**

Babes sozialeko gastua erretiroa, gaixotasun eta desgaitasun, adin aurreratu, familiaren babes, langabezia, etxebizitza eta gizarte-bazterkeriatik eratorritako

**(13)** Babes sozialeko gastua erretiroa, gaixotasun eta desgaitasun, adin aurreratu, familiaren babes, langabezia, etxebizitza eta gizarte-bazterkeriatik eratorritako zerbitzuen prestazio eta kudeaketarekin lotutako sektore publikoaren jarduerei dagokio. Urte jakin bat baliatzeak ekar dezakeen alborapena ekidite aldera, batez besteko gastua jasotzearen alde egin da, biztanleko eurotan emanda, 2002-2013 bitarteko epealdirako. Horretarako, BBVA Fundazioak (Pérez García, 2015) oinarrizko zerbitzuetan egindako gastu publikoaren lurraldekako banaketari buruz argitaratutako datu-basea hartu da oinarritzat. Datu horietan ez da sartzen osasun arloko eta hezkuntza arloko gastu publikoa.

**(14)** Kasu honetan garrantzitsua da adieraztea Autonomia Erkidego gehienetan Erkidegoko Administrazioak eman beharreko bigarren mailako arretako edo arreta espezializatuko zerbitzu sozial asko Euskadiren kasuan Foru Aldundiei esleitu zaiela.

zerbitzuen prestazio eta kudeaketarekin lotutako sektore publikoaren jarduerei dagokio. Urte jakin bat baliatzeak ekar dezakeen alborapena ekidite aldera, batez besteko gastua jasotzearen alde egin da, biztanleko eurotan emanda, 2002-2013 bitarteko epealdirako. Horretarako, BBVA Fundazioak (Pérez García, 2015) oinarrizko zerbitzuetan egindako gastu publikoaren lurraldekako banaketari buruz argitaratutako datu-basea hartu da oinarritzat. Datu horietan ez da sartzen osasun arloko eta hezkuntza arloko gastu publikoa.

Kasu honetan garrantzitsua da adieraztea Autonomia Erkidego gehienetan Erkidegoko Administrazioak eman beharreko bigarren mailako arretako edo arreta espezializatuko zerbitzu sozial asko Euskadiren kasuan Foru Aldundiei esleitu zaiela.

alde batetik, Asturias eta gero, babes sozialean biztanleko gastu handiena erregistratzen duen autonomia erkidegoa da, Estatu osoa aintzatetsiz biztanleko batez besteko gastuaren % 135 suposatzen duelarik. Alde hori ematen da **Gizarte Segurantzan gastua handiagoa delako** –Estatu osoan Gizarte Segurantzak burututako batez besteko gastuaren % 135 suposatzen du baita ere- **eta Euskadiko Erkidegoko, Foru eta tokiko erakundeetan gastua askoz ere handiagoa delako, izan ere, guztira babes sozialera biztanleko 655,8 euro bideratzen dituzte (Herrialde osoari dagokion datua 315,5 eurokoa da). Aitzitik, Administrazio nagusiaren gastua Euskadin askoz ere baxuagoa da gainerako Autonomia Erkidegoena baino** eta, berez, beste erkidego bakar batek ez du ageri Administrazio nagusiaren aldetik Euskadik baino gastu apalagoa arlo horretan. Horrenbestez, Euskadik babes sozialean egiten duen gastuaren ezaugarriak dira Gizarte Segurantzaren eta Euskadiko administrazioen (tokiko, foruko eta erkidegoko erakundeak) gastu oso handia eta Administrazio nagusiaren aldetiko gastu oso apala, alderaketa eginez.

31. taulan aurreko taulan jasotzen den informazioa berretsi eta zehazten da, 2018rako aintzatetsitako datuekin, urte horretako irailean egindako gastutik abiatuz. Halaxe da, **Euskadin Gizarte Segurantzako kontribuziozko prestazioan biztanleko gastua % 51,1 handiagoa da Espainia osoan baino, funtsean, erretirotik eratorritako kontribuziozko pentsioetan biztaneko dagoen gastu handiagoaren ondorioz.** Aderik handiena, ordea, gutxieneko errenten gastuan dago, izan ere, Euskadin 213,5 eurokoa da biztanleko eta Espainia osoko datua 33,2 eurokoa da. Aitzitik, **langabeziatik eratorritako kontribuziozko prestazioen gastua zertxobait apalagoa da eta, batez ere, kotizazio gabeko pentsioetan eta langabeziaren ondoriozko laguntza prestazioetan gastua askoz ere baxuagoa da.** Finean, erretiroaren ondoriozko kontribuziozko pentsioetan Estatuko batez bestekotik oso gora dagoen gastu batek zehaztutako testuinguru batean,

pentsa daiteke Euskadiko administrazioek diru-sarreren bermean egiten duten eginahalak ordeztu egiten duela Administrazio nagusiak Euskadin zahartze, desgaitasun eta langabeziaren ondoriozko ordaindutakoaren araberakoa ez den prestazioetan burutzen duen gastu apalagoa.

### 31. TAULA
### Hainbat prestazioekin lotutako Euskadiko eta Espainiako gastua eurotan biztanle bakoitzeko. 2018

| | Espainia | Euskadi | |
|---|---|---|---|
| | Eurotan biztanleko | Eurotanr biztanleko | Espainia=100 |
| **Kontribuziozko pentsioak (GSIN)** | **2.385,1** | **3.605,1** | **151,1** |
| Ezintasun iraunkorra | 233,9 | 286,5 | 122,5 |
| Erretiroa | 1.697,3 | 2.664,4 | 157,0 |
| Alarguntza | 413,6 | 606,2 | 146,6 |
| Zurztasuna | 34,3 | 39,2 | 114,3 |
| Familia laguntza | 6,0 | 8,7 | 145,2 |
| **Kotizazio gabeko Pentsioak (IMSERSO)** | **45,1** | **25,0** | **55,4** |
| **EGL prestazioak (IMSERSO)** | **0,3** | **0,2** | **69,6** |
| **Asistentzia-pentsioak (MEYSS)*** | **0,1** | **--** | **--** |
| **Langabeziaren ondoriozko prestazioak (EEZP)** | **367,1** | **277,6** | **75,6** |
| Kontribuzio-maila | 244,4 | 229,5 | 93,9 |
| Asistentzia-maila | 122,7 | 48,1 | 39,2 |
| **Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko esleipen ekonomikoa (GSIN)** | **22,6** | **22,8** | **100,9** |
| **Gutxieneko errentak (Autonomia Erkidegoa)**** | **33,2** | **213,5** | **643,8** |
| **Guztira** | **2.853,5** | **4.144,1** | **145,2** |

*Estatuko zenbatekoan ez da barneratzen Euskadiri pentsio horiekin lututa dagokion gastua.
**Gutxieneko errenten gastua 2017an gauzatutako gastuari dagokio, hori baita eskuragarri dagoen azken urtea. Gainerako informazioa gastua 2018ko irailean kokatuta hartu eta bider 12 eginez lortua da.
Iturria: norberak egina, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren Prestazio Sozialen Banaketa geografikoari buruzko Estatistikatik eta Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren Gutxieneko Errenten txostenetik abiatuta.

## 7.2. Herritarrek beren bizi-maila eta bermatu beharreko eskubide sozialak nola hautematen dituzten

Sarrerako kapituluan adierazi den moduan, Euskadin babes sozialari buruzko burututako gastuari buruzko lehen hurbilketa honen ondotik, bigarren epigrafe honetan inkesta bete duten pertsonek (hala Euskadin nola Espainia osoan) beren bizi-mailaren epe laburreko eta epe ertaineko bilakaerari, ziklo ekonomikoaren

hobekuntzak beren familiako egoera berezian izan duen eraginari eta herri administrazioei eskubide sozial jakin batzuk eskuratzeko bermearekin lotuta esleitzen dieten erantzukizunari buruz duten pertzepzioa aztertzen da.

Lehen kontuarekin lotuta, **Euskadiko biztanleriaren % 42,9an uste duenez, bere bizi-mailak okerrera egin du duela hamar urte zuenarekin alderatuta**. Haatik, multzo horren barnean gehiengoak (% 27,8) uste du gutxi egin duela okerrera eta % 15,1ak asko egin duela okerrera.

Aitzitik, % 21,7ak bere bizi-maila hobetu egin dela eta % 35,4ak berdin mantendu dela uste du. **Egoera, edozein kasutan, ez da horren ezkorra bizi-maila epe laburrera aztertuz gero:** azken hamabi hilabeteekin alderatuz, Euskadiko biztanleriaren gehiengoak (% 61,9) uste du egoera ez dela aldatu; % 21,5ak uste du egoerak okerrera egin duela eta % 16,6ak hobetu egin dela. Epe luzeko bilakaerari heltzen baldin badiogu, beren egoera hobetu egin dela uste dutenen ehunekoa handiagoa da Euskadin Espainian baino (% 21,7 eta % 18,2 hurrenez hurren). Bestalde, egoerak okerrera egin duela uste dutenen ehunekoa nabarmen apalagoa da Euskadin (% 42,9) Espainia osoarekin alderatuz % 51,3). **Krisiak herritarren bizi-mailan eragin dituen aldaketen inguruko balioespena, beraz, badirudi baikorragoa dela Euskadin Espainia osoan baino.**

### 62. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa beren bizi-mailaren bilakaeraren pertzepzioaren arabera, duela 10 urtekoarekin eta duela 12 hilabetekoarekin alderatuz. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Edozein kasutan, bizi-mailaren bilakaeraren pertzpezioa (hala epe luzean nola epe laburrean) bazterkeria- eta integrazio-egoeren bizipenak baldintzatuta dago edo, bestela esanda, bazterkeria larritik erabateko integraziora dagoen segidan pertsona bakoitzak duen lekuak baldintzatuta dago. Halaxe da, bizi-mailaren bilakaeraren pertzepzioa familiek eskala horretan duten lekua kontuan izanik aztertzen baldin bada, argi ikus daitekeenez, **bazterkeria-egoeran dauden pertsonek joera handiagoa izaten dute, epe luzera, beren egoerak okerrera egin duela uste izateko**:

Bazterkeria-egoeran daudenen % 57,9k iritzi badu okerrago bizi dela orain—% 33,3k uste du asko egin duela egoerak okerrera gainera—, ehuneko hori % 40,2ra murrizten da integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan. Gauza bera gertatzen da egoera epe laburrera aztertzen baldin bada: gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen % 31,2ak uste du bere bizi-mailak okerrera egin duela duela 12 hilabete zuenarekin alderatuz, eta ehuneko hori % 19,7koa da integrazio-egoeran dauden familietan bizi den pertsonen kasuan. Azken horien kasuan ia bi herenak uste duenez, egoera berdin mantendu da azken hamabi hilabeteetan.

Finean, badirudi argi dagoela **2018an bazterkeria-egoeran dauden familietan bizi diren pertsona askoren bizi-mailak nabarmen egin duela okerrera (edo hori hauteman duten bederen), hala epe laburrean nola, batez ere, epe luzera so.** Aitzitik, integrazio-egoeran dauden pertsona gehienek ez dute aldaketa negatiborik izan (edo hauteman bederen) beren egoeran eta, are, hobekuntzaren bat nabaritu dute. Datu horiek, pertzepzio subjektiboen ikuspegitik, berresten dutenez, krisiak eragin handiagoa izan du gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonengan. Haatik, luzetarako daturik ez dagoenez, ezinezkoa da jakitea pertsona horiek duela hamar urte jadanik bazterkeria-egoera batean ote zeuden edo beren bizi-mailak okerrera egiteak ekarri ote duen gaur egun duten gizarte-bazterkeria egoera.

Edozein kasutan, **susperraldi ekonomikoaren eraginak ez dirudi argi nabaritzen direnik Euskadin:** Euskadiko biztanleriaren gehiengoak (% 67,3) ez du hautematen susperraldi ekonomikoaren eraginik bere familian. Ehuneko hori % 76,1era igotzen da bazterkeria-egoeran dauden familietan bizi diren pertsonen kasuan. Integrazio-egoeran dauden familien % 27,6ak (bazterkeria-egoeran daudenen ehunekoa % 17,4koa da), ordea, susperraldi ekonomikoaren eragin positiboa nabaritu du. Euskadiko egoera alderdi horretan Espainia osoan dagoenaren antzekoa da, non biztanleriaren % 71k adierazten duenez, ez du susperraldi ekonikoaren eraginik nabaritu familian.

### 63. GRAFIKOA

## Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, beren bizi-mailaren bilakaeraren pertzepzioaren arabera eta duela 10 urtekoarekin eta duela 12 hilabetekoarekin alderatuz, integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

### 32. TAULA

## Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, beren familietara susperraldi ekonomikoaren eraginak iritsi izanari buruzko pertzepzioarekin lotuta integrazio-mailaren arabera. 2018

| | Espainia | | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Integrazioa | Bazterkeria | Guztira | Integrazioa | Bazterkeria | Guztira |
| Bai | 26,5 | 11,7 | **23,8** | 27,6 | 17,4 | **26,1** |
| Ez | 68,0 | 84,4 | **71,0** | 65,8 | 76,1 | **67,3** |
| Ez daki | 5,5 | 3,9 | **5,2** | 6,6 | 6,5 | **6,6** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | **100,0** | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bizi-mailaren bilakaeraren eta susperraldiaren eraginak iritsi izanaren inguruko pertzepzioarekin batera, hurrengo epigrafeetan burutzen den azterketa testuinguruan ipintze aldera, komenigarria da, era berean, Euskadiko biztanleriak eskubide sozial jakin batzuk bermatzeari dagokionez herri administrazioei esleitzen dien betebeharrarekin lotuta duen iritzia kontua izatea. Horretarako, 64. grafikoan administrazioek eskubide sozialak bermatu behar dituztela uste duten pertsonen ehunekoa sein eremu nagusitan jasotzen da: enplegua, etxebizitza, gutxieneko diru-sarrera batzuk izatearen bermea, zerbitzu

sozialak, haurren hazkuntzarako laguntzak eta mendekotasuna artatzeko zerbitzuak. Gainera, galdetzen da eskubide horiek izateko bermea biztanleria guztiarentzat, premiazko egoera batean daudenentzat edo inorentzat ez izatea izango litzatekeen egokiena. Lehenengo aukerak planteamendu unibertsalista adieraziko luke eta bigarrenak askoz ere selektiboagoa den planteamendu bat. Azkenik, hirugarren aukera administrazioen aldetik estaldura hori mugatzeko ikuskerarekin lotuko litzateke, premia-maila edozein izanda ere.

64. grafikoan jasotzen diren datuek gutxienez hiru datu interesgarri agerrarazten dituzte:

- Alde batetik, Herri Administrazioa eskubide horietarako sarbidea bermatzeaz arduratu beharko ez litzatekeela uste dutenen ehunekoa oso apala da kasu guztietan, hala Espainian nola Euskadin. Ehuneko horiek biztanleriaren % 3tik beherakoak izanik beti.

- Bestalde, eskubideei esleitzen zaien unibertsaltasun-mailan mailakatze argi bat ikusten da: horrela, **adierazitako eskubide sozialen sarbidea biztanleria osorako bermatu beharko litzatekeela uste duen biztanleriaren ehunekoa, edozein izanik ere horien premia-maila, Euskadin % 72,6koa da enpleguaren kasuan eta % 33,7koa mendekotasuna artatzeko zerbitzuen kasuan.** Biztanleriaren % 43ak planteamendu unibertsalistak babestuko lituzke etxebizitzarako eskubidaren kasuan, % 36,5ak gutxieneko diru-sarreren kasuan, % 35,3ak Zerbitzu Sozialen kasuan eta % 37,5ak haurren hazkuntzarako zerbitzuen kasuan.

- Orokorrean, badirudi Euskadiko biztanleria ez dela Espainiakoa bezain ‘unbertsalista’ aztertutako eskubide sozial guztiekin lotuta, enpleguaren kasuan izan ezik, non eskubide hori bermatzearen aldeko pertsonak % 72,6 diren, Espainian ehunekoa % 62,4koa den bitartean.

### 64. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, Herri Administrazioek eskubide sozialak bermatu beharraren inguruan duten pertzepzioaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 7.3. Lanari lotutako eskubideak

Adierazi berri den eran, enpleguaren alorrean eskubide sozialerako sarbidea da Euskadiko biztanleriaren arabera planteamendu unibertsalista batzuetatik gehien bermatu beharko litzakeena: inkesta bete duten pertsonen % 72,6ak uste duenez, administrazioek herritar guztientzako enplegu baterako sarbidea bermatu beharko lukete eta % 27,1k uste duenez administrazioek premiazko egoera batean diren pertsonei soilik bermatu beharko lieke enplegurako sarbidea. Lehendabiziko hurbilketa horretatik abiatuz, kapitulu honetan Euskadiko

biztanleriak enplegu-zerbitzuek beren komunitatean duten funtzionamenduari buruzko pertzepzioa aztertzen da, eta baita Euskadiko biztanleriak (integraziotik bazterkeriara doan eskalan duen posizioaren arabera) Administrazioak enplegu baterako sarbidea bermatzeko betebeharrari buruz duen iritzia ere.

Aztertutako alderdietan lehenari dagokionez, **kontsulta jaso duen biztanleriaren % 36,3k uste duenez Euskadin enplegurako zerbitzu publikoen funtzionamendua, gaur egun, ez da gogobetegarria edo ez du gogobetasun handirik eskaintzen. Gainera, % 47,4ak uste duenez, duela bost ute baino okerrago edo askoz okerrago funtzionatzen du. Euskadin enplegurako zerbitzu publikoen funtzionamenduari dagokion atsekabea Espainia osoan baino askoz ere baxuagoa da**, izan ere, Espainian haren funtzionamendua ez dela batere gogobetegarria edo oso modu apalean gogobetegarria dela uste duten pertsonen ehunekoa % 55,7koa da, eta duela bost urte baino okerragoa edo askoz okerragoa dela uste dutenena % 59,5ekoa.Nahikoa berria den Euskal Enplegu Zerbitzuaren aldetik enplegurako politika aktiboak hartu izanak, badirudi, Euskadin herritarrek zerbitzu horien funtzionamendua hobetu balioestea izan duela ondorio.

### 65. GRAFIKOA

**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, enplegurako zerbitzu publikoen egungo funtzionamenduaren inguruko balioespena eta duela 5 urtekoa kontuan izanik. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Haatik, **gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan bizi diren pertsonek enplegurako zerbitzuen funtzionamendari buruz egiten duten balioespena**

**nabarmen okerragoa da integrazio-egoeran dauden familietan bizi diren pertsonek egiten dutena baino** (azken horien kasuan, aurrez ikusi dugun eran, enpleguaren gabeziak gutxiago eragiten die). Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 53,1ak uste duenez, enplegurako zerbitzu publikoen funtzionamendua ez da batere gogobetegarria edo ez du gogobetetasun handirik eskaintzen, eta % 58,9ak uste duenez, zerbitzu horiek duela bost urte baino okerrago edo askoz okerrago funtzionatzen dute. Integrazio-egoeran dauden familietan bizi diren pertsonen artean, ehunekoak % 33 eta % 44,9koa dira, hurrenez hurren. Edozein kasutan, adierazgarria da integrazio-egoeran diren pertsonen artean bi herenen arabera enplegurako zerbitzuen funtzionamendua gaur egun oso edo nahiko gogobetegarria dela, eta gizarte-bazterkeria egoeran diren pertsonen % 46,9ak ere iritzi hori izatea.

### 66. GRAFIKOA

### Euskadiko biztanleriaren banaketa, enplegurako zerbitzu publikoen egungo funtzionamenduaren inguruko balioespena eta duela 5 urtekoa kontuan izanik eta integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Enplegurako zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruzko balioespen nahiko positibo horren aurrean –Espainia osokoa bezain negatiboa ez, behinik behin-, arestian adierazi dugun eran, Euskadiko biztanleriaren gehiengo oso handi batek uste duenez Herri Administrazioak enplegurako sarbidea bermatzeko betebeharra du, izan biztanleria guztiarena (% 72,6) edo premiazko egoeran dauden pertsonena (% 27,1). Ba al dago alderik horri dagokionez pertsonen egoeraren arabera integraziotik gizarte-bazterkeriara doan eskalan?

Datuak baiezkoa berresten dute, izan ere, **hala Euskadin nola Espainia osoan gizarte-bazterkeria egoeran den biztanleria arlo horrekiko hurbilketa unibertsalista bat egitearen aldekoa da, integrazio-egoeran den biztanleriarekin alderatuz, ikuspegi selektiboago baten aldekoa dena.** Bi multzoen arteko aldeak gainera zertxobait nabarmenagoak dira Euskadiren kasuan Espainia osoaren kasuan baino.

**67. GRAFIKOA**

**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, Herri Administrazioek enplegu baterako eskubidea bermatu beharraren inguruan duten pertzepzioaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 7.4. Etxebizitzari lotutako eskubideak

Txosten honetako aurreko kapituluan, Euskadiko biztanleriak ardatz zibiko eta hiritarrean zituen zailtasunak aztertzean, beren egoera etxebizitzaren dimentsioari dagokionez aztertu da, eta agerian geratu da biztanleriaren % 22,2ak gabeziak dituela arlo horretan, ehunekoa % 58,5era igoz gizarte-bazterkeria egoeran den biztanleriaren kasuan. Halaber, agerian geratu da gizarte-bazterkeria egoeran dagoen kolektiboak gehiago jotzen duela alokairuzko etxebizitzara, hala Euskadin nola Espainian.

Etxebizitza edukitzearekin lotutako berezitasun horrekin batera, garrantzitsua da adieraztea, era berean, hala Espainian nola Espainia osoan, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak gehiago nabaritzen dituztela integrazio-

egoeran dauden pertsonak baino etxebizitza ez seguru edo desegokiarekin lotutako arazoak, ETHOS tipologian zehaztutakoaren arabera **(15)**.

**Gizarte-bazterkeria egoeran dagoen Euskadiko biztanleriaren % 9,4ak ez du etxebizitza seguru bat eta % 33,5ak etxebizitza desegokia du.** Egoera, noski, hobea da integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan: % 2,5 bizi da etxebizitza ez seguru batean eta % 5,8 egokia ez den etxebizitza batean.

### 68. GRAFIKOA

### Etxebizitza ez segurua eta egokia ez den etxebizitza duen Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa, integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

**Etxebizitza ez seguruaren (% 3,5) eta etxebizitza desegokiaren (% 10) intzidentzia orokorra antzekoa da Espainian eta Euskadin.** Bi lurraldeen arteko alderik handiena, edozein kasutan, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean etxebizitza ez seguruaren tasak Euskadin Espainian baino baxuagoak direlako ematen da, eta handiagoak integrazio-egoeran dauden pertsonen artean.

Azterketa hori egiteko FEANTSAk garatutako ETHOS (*European Typology on Homelessness and Housing Exclusion*) tipologiako 3. eta 4. kategorietarako hurbilketa bat burutu da.

**(15)** Azterketa hori egiteko FEANTSAk garatutako ETHOS (*European Typology on Homelessness and Housing Exclusion*) tipologiako 3. eta 4. kategorietarako hurbilketa bat burutu da.

## 33. TAULA

**Euskadin eta Espainian etxebizitza ez segurua eta etxebizitza desegokia izatearen egoerek eragindako pertsona eta familien ehuneko eta kopuruaren (milakoetan) estimazioa. 2018**

| | | Pertsonak | | | | Familiak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | | Euskadi | | Espainia | | Euskadi | |
| | | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. |
| **Etxebizitza ez segurua** | Bai | 4,5 | 2.104,7 | 3,5 | 77,2 | 4,3 | 789,4 | 3,4 | 31,1 |
| | Ez | 95,5 | 44.593,8 | 96,5 | 2.121,4 | 95,7 | 17.683,4 | 96,6 | 871,1 |
| | Guztira | 100,0 | 46.698,6 | 100,0 | 2.198,7 | 100,0 | 18.472,8 | 100,0 | 902,2 |
| **Etxebizitza desegokia** | Bai | 9,9 | 4.643,3 | 10,0 | 219,8 | 7,0 | 1.287,0 | 6,1 | 54,6 |
| | Ez | 90,1 | 42.055,3 | 90,0 | 1.978,8 | 93,0 | 17.185,8 | 93,9 | 847,6 |
| | Guztira | 100,0 | 46.698,6 | 100,0 | 2.198,7 | 100,0 | 18.472,8 | 100,0 | 902,2 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Panorama honen aurrean (77.000 pertsona daude etxebizitza ez seguru batean Euskadin eta 219.000 etxebizitza desegoki batean), eta pertzepzioetara itzuliz, zein da hiritarrek etxebizitzarako eskubidearen berme publikoari dagokionez duten ikuspegia? **Euskadiko biztanleriaren % 43k uste duenez, Administrazioak biztanle guztientzat etxebizitza baterako sarbidea bermatzeko betebeharra du eta % 56,4aren arabera premiazko egoeran dauden pertsonengana mugatu behar da sarbide hori.** % 0,6ak uste duenez, Administrazioak ez du eskubide hori hiritar bakar bati bermatzeko betebeharrik, edozien izanik ere pertsona horien behar-maila. Aurretiaz adierazi den moduan, hurbilketa selektibo baten alde egiten duten pertsonen ehunekoa handiagoa da Euskadin Espainian baino, biztanleria guztia aintzat hartzen denean.

Bestalde, enpleguaren kasuan gertatzen zen moduan, **gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak planteamendu unibertsalisten alde agertzen dira (hala Euskadin nola Espainia osoan).** Bazterkeria-egoeran den Euskadiko biztanleriaren % 53,7k uste duenez, Administrazioak biztanle guztientzako etxebizitzarako eskubidea bermatu behar du (integrazio-egoeran daudenen artean ehunekoa % 41,1ekoa da), eta integrazio-egoeran eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arteko aldeak nabarmenagoak dira Euskadiren kasuan Espainia osoaren kasuan baino.

**69. GRAFIKOA**

**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, Herri Administrazioek etxebizitza egoki baterako eskubidea bermatu beharraren inguruan duten pertzepzioaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 7.5. Errenta-bermeari lotutako eskubideak

Euskadin babes sozialean egindako gastu publikoa aztertzean ikusi dugu zein neurritan, Espainia osoarekin alderatuz, den Euskadi berezi erretiroaren eta diru-sarrerak bermatzeko errenten ondoriozko kontribuziozko pentsioetan gastu publiko handiagoa izateagatik, eta langabeziaren ondoriozko laguntzagatiko prestazioan gastu askoz apalagoa izateagatik. Epigrafe honetan zenbaki horiek diru-sarrerak bermatzeko prestazioetara iristeko mailetan zer-nola islatzen diren eta Euskadiko biztanleriak Administraziok eskubide hori bermatzeari dagokionez duen pertzepzioa aztertu ditugu. Azterketa honek aparteko interesa sorrarazten du kontuan izaten bada Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko eredua Estatu osoko aurreratuenetako bat dela eta azken urteotan Euskadin eztabaida politiko eta sozial sakona egon dela haren orientazioari buruz.

Inkestako datuekin bat etorriz, bost familiatik batek, Euskadiko biztanleriaren % 15,8 eta Espainiako biztanleriaren % 22,8, kontribuziozkoak ez diren laguntza edo prestazio ekonomikoak eskatu ditu inoiz. Horien artean, maiztasun handienarekin eskatu dutenak (kapitulu honen hastapenean gastu sozialari buruz adierazitako datuek agerian jartzen zutenez) diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko sistemari dagozkionak dira, horiek ehun pertsonatik hamarrek eskatu baitituzte, Espainian ehunekoa % 4,7koa delarik.

Horien atzetik daude langabeziaren ondoriozko laguntza-estaldurarekin (langabeziaren ondoriozko subsidioa, RAI eta PREPARA) lotutako prestazioak, gizarte emergentziako laguntzak eta Gizarte Segurantzaren Kotizazio gabeko Pentsioak ( % 2,6).

70. grafikoan ikus daitekeen moduan, eta era berean arestian adierazitakoarekin bat etorriz, **erkidegoko prestazioek (gutxieneko errentak eta gizarte emergentziako laguntzak) Euskadin eskaera-tasa handiagoa erakusten dute Espainia osoarekin alderatuz, Estatuaren eremuko prestazioen kasuan, aldiz, kontrakoa gertatzen da. Langabeziaren ondoriozko laguntzagatiko prestazioen kasuan, Espainian dauden eskaerek ia hirukoiztu egiten dute Euskadin erregistratutako eskaera kopurua**, eta horrek aurretiaz adierazitakoa berresten du: Estatuaren eremuko langabeziaren ondoriozko laguntzagatiko prestazioen sistemaren ahultasuna Euskadin gutxieneko errenten eta emergentziako laguntzen erkidegoko eta tokiko sistemarekin ordezten ari da ezinbestean.

### 70. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa noizbait laguntza eta prestazio ekonomikoak eskatu dituzten familiei dagokienez 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Espero zitekeen moduan, **halako prestazioetara gehiago jotzen dute gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan bizi diren pertsonak, nahiz eta prestazioa jasotzeari dagokionez aldea aldatu egiten den prestazio motaren arabera.** Horrela, 71. grafikoan ikus daitekeen moduan, integrazio-egoeran dagoen biztanleriaren % 12,2aren aurrean, gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan bizi direnen artean % 35,7ak prestazio horiek eskatu ditu noizbait Euskadin. Diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko sistemako prestazioak dira

gehien erabiltzen dituztenak bazterkeria-egoeran dauden pertsonek (% 26,3k eskatu ditu) eta, are, baita integrazio-egoeran daudenek ere, izan ere, horien artean % 6,8ak eskatu ditu.

Era berean, egoera horretan dauden familien kasuan gehien eskatutakoak diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko sistemarekin lotutakoak dira, langabeziaren ondoriozko laguntzagatiko prestazioen, gizarte emergentziako laguntzen edo Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren araberakoa ez den prestazioen aurretik.

### 71. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa noizbait laguntza eta prestazio ekonomikoak eskatu dituzten familiei dagokienez, integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bazterkeria-egoeran dauden familietan bizi diren pertsonen kopuru adierazgarri batek (% 39,9) usten duenez, beste alde batetik, datozen hamabi hilabeteen barruan laguntza mota horretara jo beharko du. Haatik, datuak alderantziz ere irakur daitezke. Horrela, esan liteke **bazterkeria-egoeran dauden familietan bizi diren pertsonen % 61,1ak ez duela uste halako prestazioetara jo beharko duenik epe laburrean.** Integrazio-egoeran dauden pertsonen artean, datozen hamabi hilabeteetan laguntza horietara jo beharko dutela uste dutenen ehunekoa % 8,5ekoa da. Espainia osoaren kasuan, datozen hamabi hilabeteetan laguntza eta prestazio horietara jo beharko dutela uste dutenen ehunekoa (edozein izanik ere integraziotik bazterkeriara doan segidan duten egoera) Euskadin baino zertxobait apalagoa da.

**72. GRAFIKOA**

**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa datozen 12 hilabeteetan laguntza eta prestazio ekonomikoetara jo dezaketela uste duten familietan, integrazio-mailaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Azkenik, errentak bermatzeko eskubideari dagokionez, gogorarazi behar da Euskadiko biztanleriaren % 36,5aren arabera Administrazioak gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatu beharko lituzkeela biztanleria osoarentzat eta % 62,9ak usten duenez, soilik premiazko egoeran dauden pertsonentzat bermatu beharko liratekeela. Biztanleriaren % 0,6 eskasak uste du Herri Administrazioak ez dizkiola inori gutxieneko diru-sarrerak bermatu behar, edozein delarik ere bakoitzaren egoera. Orain arte aztertutako gainerako eskubideekin gertatzen zen moduan, **gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietan bizi diren pertsonek Euskadin iritzi unibertsalistagoa dute integrazio-egoeran dauden pertsonek baino.** Halaber, kapitulu honetan aztertutako gainerako eskubideekin gertatu bezala, Euskadiko biztanleria (edozein delarik ere integraziotik bazterkeriara doan eskala duen lekua) Espainia osoko biztanleriarekin alderatuz, jarrera selektiboagoen aldekoa da unibertsalen aurretik.

### 73. GRAFIKOA
**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, Herri Administrazioek gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatu beharraren inguruan duten pertzepzioaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 7.6. Zerbitzu sozialei lotutako eskubideak

Epigrafe honetan Euskadiko biztanleriak zerbitzu sozialetarako, publikoak nahiz gizarte-ekimenekoak, duen irisgarritasuna eta 2013an zehar horrek izan duen bilakaera aztertzen dira. Horrez gain, premia izanez gero herritarrak zein erakunde motara joko duten, zerbitzu sozialen funtzionamenduari buruzko balioespena eta, aurreko epigrafeetan adierazitakoaren ildotik, Administrazioak zerbitzu sozialetarako irisgarritasuna bermatzeko duen erantzukizunari buruz Euskadiko biztanleriak duen iritzia (integraziotik bazterkeriara doan eskalan duen lekuaren arabera) aztertuko dira.

Biztanleriak zerbitzu sozialetarako duen irisgarritasunari dagokionez, **Euskadiko biztanleriaren % 10,2ak zerbitzu sozial publikotara jo du azken urtean zehar, % 2,1ak Caritasek Euskadin kudeatzen dituen zerbitzu sozialetara eta % 1,8ak erkidego honetan gizarte-ekimeneko beste erakunde pribatu batzuek emandako zerbitzutara.** 73. grafikoan jasotako datuen azterketa bi ikuspegitatik egin daiteke:

- Integrazio-egoeran eta bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren arteko aldea zerbitzu sozialetarako irisgarritasunari so handia da Euskadin. Halaxe da, Euskadin bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren % 25,7ak Zerbitzu Sozial publikotara jo du, % 10,2ak Caritasek eskainitako zerbitzuetara eta

% 5,8ak gizarte-ekimeneko beste erakunde batzuek emandako zerbitzutara. Ehuneko horiek % 7,5ekoa, % 0,6koa eta % 1,1ekoa dira integrazio-egoeran dagoen biztanleriaren kasuan. **Bazterkeria-egoeran dauden pertsonek zerbitzu sozialetarako joeraren tasak biderkatu egiten du integrazio-egoeran dauden pertsonena. Zerbitzu publikoen kasuan 3,5 bider handiagoa da tasa bazterkeria-egoeran daudenen kasuan, 16 bider handiagoa Caritasek eskainitako zerbitzuetan eta 5,5 bider handiagoa gainerako erakundeek eskainitako zerbitzuetan.**

- Euskadiko datuak Espainia osoko datuekin alderatzen badira ikus daitekeenez, **Euskadiren kasuan zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna handiagoa da integrazio-egoeran dauden biztanleentzat, baina ez bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat. Horrenbestez, zerbitzu sozial publiko normalizatuago batzuk direla esan genezake.** Aitzitik, gizarte-ekimeneko erakundeetarako irisgarritasuna apalagoa da Euskadiren kasuan bai bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat eta baita integrazio-egoeran daudenentzat.

### 74. GRAFIKOA
**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa azken urtean zehar zerbitzuetara laguntza bila jo duten familietan. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskadiko biztanleriak zein erakunde motara jotzen duen aztertzen baldin bada titulartasunaren ikuspegitik, eta kontuan izanik erakude mota bat baino gehiagorako sarbidea konbinatzeko aukera dagoela, ikusten dugunez, Euskadiko biztanleriaren % 88,8ak ez du azken urtean zehar erakunde horietako bakar batera jo, % 8,1ak zerbitzu publikoetara soilik jo du, % 0,9ak gizarte-ekimeneko zerbitzuetara soilik eta % 2,2ak bi motako zerbitzuetara.

Horietarako irisgarritasunaren tasa handiagoa da bazterkeria-egoeran dagoen biztanleriaren kasuan. Dena den, aipagarria da **biztanleria horren barnean % 70,7ak ez duela erakunde horietako bakar batera jo.** Laguntza bila zerbitzu horietako bakar batera jo ez duen biztanleriaren ehunekoa antzekoa da Espainian eta Euskadin. Haatik, bazterkeria-egoeran dauden biztanleen artean horietara jo ez dutenen ehunekoa handiagoa da Euskadiren kasuan. Aitzitik, integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan, Zerbitzu Sozial publikoetara jo duten pertsonen ehunekoa handiagoa da Euskadin Espainia osoan baino, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan gertatzen den eran.

### 34. TAULA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa azken urtean zehar zerbitzuetara laguntza bila jo duten familietan, zerbitzuaren titulartasuna kontuan izanik eta integrazio-mailaren arabera. 2018

| | Espainia | | | Euskadi | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Integrazioa | Bazterkeria | Guztira | Integrazioa | Bazterkeria | Guztira |
| Bakar batera ez | 92,9 | 64,3 | **87,6** | 92,0 | 70,7 | **88,8** |
| Publikoetara soilik | 3,2 | 10,8 | **4,6** | 6,6 | 16,3 | **8,1** |
| Pribatuetara soilik | 1,7 | 6,2 | **2,5** | 0,5 | 3,5 | **0,9** |
| Bi motetara | 2,2 | 18,7 | **5,3** | 0,9 | 9,5 | **2,2** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | **100,0** | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bilakaeraren ikuspegitik, dirudienez argi dago aurreko kapituluetan adierazitako integrazio-maila orokorra hobetzeak ondorio modura, hala Euskadin nola Espainia osoan, Zerbitzu Sozial publikoetara eta gizarte-ekimeneko zerbitzuetara jotzeko joera baxuagoa izan duela. Horrela, Euskadin, **2013-2018 bitartean laguntza bila Zerbitzu Sozial publiko, Caritas edo beste erakunde batzuetara jo duten familietan biztanleriaren ehunekoak behera egin du.** Ildo horretatik, zerbitzu horietako batera laguntza bila jo duten Euskadiko familien proportzioa

% 14koa zen 2013an eta 2018an % 11,2ra jaitsi zen ehunekoa. Espainia osoari erreparatuz ere antzeko jaitsiera gertatu da (% 14,3tik % 12,4ra). Dena den, Zerbitzu Sozial publikoen kasuan Espainian igoera txiki bat gertatu da (% 9,7tik % 9,9ra), Euskadin gertatu ez dena.

## 75. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera azken urtean zehar zerbitzuetara laguntza bila jo duten familietan. 2013-2018




Iturria: EINSFOESSA 2013, 2018.

Euskadiko biztanleriak erabiltzen dituen Zerbitzu Sozialei buruzko datuetatik harago, premia ekonomikoa izanez gero, inkesta egindako pertsonek zein zerbitzu edo erakundetara jotzea lehenetsiko luketen ere galdetu zen inkestan. 76. grafikoko datuei so, **Euskadiko biztanleriaren hiru laurdenak (% 75,4) Zerbitzu Sozial publikoetara joko luke, % 5ak Caritasera, % 2,3ak beste erakunde publiko batzuetara eta % 5,8ak beste erakunde pribatu batzuetara. % 11,6ak ez luke erakunde horietako bakar batera joko.** Espainia osoko datuei so, Zerbitzu Sozial publikoetara joko luketenen ehunekoa askoz ere baxuagoa da (% 58,4) eta, aitzitik, Caritasera (% 16,1) edo beste erakunde pribatu batzuetara joko luketen biztanleen ehunekoa handiagoa da.

**Horrenbestez badirudi Euskadin Zerbitzu Sozial publikoetara jotzeko joera handiagoa dagoela eta laguntzarik eskatu ez edo gizarte-ekimeneko erakundeetan eskatzeko joera baxuagoa.** Beraz, esan dezakegu Euskadiko

Gizarte Zerbitzuen eredu publikoa Estatuan dagoenaren aldean egonkorragoa eta normalizatuagoa dela.

### 76. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, premia ekonomikoa izanez gero zein zerbitzu edo erakunde lehenetsiko luketen kontuan izanik. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Krisian zehar eta ondoren zerbitzu sozialetarako Euskadiko biztanleriaren irisgarritasun-maila alde batera utzita, zer-nolako balioespena egiten dute horien funtzionamenduari buruz Euskadin? Zerbitzu horien egungo funtzionamenduari dagokionez, **biztaleriaren % 6,2ak uste duenez ez da batere gogobetegarria eta % 22,9aren arabera modu gogobetetasun urrikoa da. Bestalde, % 59,5ak nahiko gogobetegarria dela uste du eta % 11,4ak oso gogobetegarria. Halere, biztanleriaren ia erdiak (% 47) horien funtzionamenduak azken bost urteetan okerrera egin duela uste du.** Euskadiri dagozkion datuak Espainia osoko datuekin alderatzen baldin badira **ikus daitekeenez, Euskadin zerbitzu sozialen funtzionamenduari buruzko balioespena askoz ere positiboagoa da** (% 70,9ak uste duenez horien funtzionamendua oso edo nahiko gogobetegarira da, eta % 52,9koa da ehuneko hori Espainiaren kasuan), enpleguari buruzko zerbitzuen kasuan ikusi denaren ildoari jarraiki. Era berean, zerbitzu sozialen funtzionamendua gaur egun duela bost urtekoa baino hobea dela irizten duen biztanleriaren ehunekoa Euskadin zertxobait handiagoa da.

## 77. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, zerbitzu sozialen egungo funtzionamenduaren inguruko balioespena eta duela 5 urtekoa kontuan izanik. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Zerbitzu sozialen funtzionamenduari buruzko balioespena aldatu egiten al da pertsonek integraziotik bazterkeriara doan eskalan duten lekuaren arabera? Enplegurako zerbitzuen kasuan bezalaxe, datuek baiezkoa berresten dute. **Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 37,5ak uste duenez (arestian aipatu dugun eran, integrazio-egoeran dauden pertsonen aldean hiru bider gehiago jotzen baitute Zerbitzu Sozial publikoetara), zerbitzu sozialen funtzionamendua gogobetetasun urrikoa da edo ez da batere gogobetegarria. Ehuneko hori % 27,5ekoa da integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan.** Gauza bera gertatzen da zerbitzu horien funtzionamenduari buruzko bilakaera balioestean: bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 54,4ak uste duenez, horien funtzionamendua okerragoa edo askoz okerragoa da duela bost urte baino, eta ehuneko hori % 45,5ekoa da integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan.

## 78. GRAFIKOA

### Euskadiko biztanleriaren banaketa, zerbitzu sozialen egungo funtzionamenduaren inguruko balioespena eta duela 5 urtekoa kontuan izanik eta integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Zerbitzu sozialetarako irisgarritasunari eta horien funtzionamenduari buruzko balioespenaz gain, zeharo interesgarria da, era berean, Euskadiko eta Espainiako biztanleriak Ongitzate Estatua osatzen duten zenbat prestazio sozialekin lotutako arauzko zenbait planteamenduren inguruan duen pertzepzioa aztertzea. Horretarako, inkestan hiru baieztapen jakinekin (gizarte-politikekin lotutako herritarren pertzepzioari buruzko aurretiko ikerketetan jadanik erabiliak) zuten adostasun-maila adierazteko eskatzen zitzailen elkarrizketatutako pertsonei. Honatx baieztapenak:

- Laguntzak jasotzen dituzten pertsonek bizi ahal izateko behar dituzte.
- Gizarte-laguntzak jasotzeko aukeraren ondorioz jendea nagitu egiten da.
- Gizarte-laguntzetan iruzurra dago, baina beste eremu batzuetan baino apalagoa, esate baterako zorren ordainketan baino apalagoa.

Hurrengo grafikoetan Euskadin eta Espainian, bizntaleria osoa kontuan izanik, baieztapen horiekiko erregistratuta dagoen adostasuna aztertzen da. Era berean, Euskadiren kasuan, horri buruzko iritzia ematean integrazio-egoeran dauden pertsonen eta bazterkeria-egoeran daudenen artean dagoen aldea ere aztertzen da.

79. grafikoan jasotako datuekin bat etorriz, **Euskadiko biztanleriaren % 88 oso edo nahiko ados dago gizarte-laguntzak jasotzen dituzten pertsonek horiek bizitzeko behar dituztela adierazten duen ideiarekin; % 73 gizarte-laguntzak jasotzeko aukerak jendea nagitu egiten dela adierazten duen ideiarekin dago ados eta % 69,6 gizarte-laguntzetan iruzurra dagoela, baina beste eremu batzuetan dagoena baino baxuagoa dela (zorren ordainketa kasu) adierazten duenarekin.** Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion datuak Espainia osoko datuekin alderatzen baldin baditugu ikus daitekeenez, alde nabarmena dago **gizarte-laguntzak jasotzeko aukerak jendea nagitu egiten duela** uste duen biztanleriaren ehunekoari dagokionez, **ehunekoa handiagoa delarik Euskadin Estatu osoan baino.**

### 79. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gizarte-laguntzei buruzko baieztapenekiko adostasun-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Bestalde, Euskadin integrazio-egoeran dauden pertsonen eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean nolabaiteko aldeak nabari dira baieztapen horiekiko iritziari so. Ildo horretatik, nabarmendu behar da **laguntza horiek jasotzen dituzten pertsonek bizitzeko behar dituztela adierazten duen ideiarekin ados ez dauden pertsonen ehunekoa handiagoa dela bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean integrazio-egoeran daudenen artean baino.** Aitzitik, ia ez dago alderik gizarte-laguntzak jasotzeko aukerak jendea nagitu egiten duela adierazten duen ideiari dagokionez.

Gizarte-laguntzetan iruzurra dagoela, baina beste eremu batzuetan baino askoz baxuagoa dela adierazten duen ideiak arerio gehiago ditu integrazio-egoeran dauden pertsonen artean bazterkeria-egoeran daudenen artean baino.

### 80. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gizarte-laguntzei buruzko baieztapenekiko adostasun-mailaren eta integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Aurreko guztia kontuan izanik (Zerbitzu Sozial publikoetarako eta gizarte-ekimeneko zerbitzuetarako irisgarritasuna, horien funtzionamenduari buruzko balioespena, erabileraren inguruko zenbait baieztapenari buruzko iritzia edo gizarte-prestazioek duten inpaktua...), ezinbestekoa da, era berean, jakitea Euskadiko biztanleriaren gehiengoak zein iritzi duen arlo horretako gastu publikoari eta bere finantzaketarako ezarri behar den presio fiskalari dagokionez. 81. grafikoan jasotzen diren datuei so, badirudi argi dagoela **euskal gizartearen gehiengo zabal batek (% 75,3) uste duela Zerbitzu Sozialetara gaur egun bideratzen dena baino diru publiko gehiago bideratu behar dela.** % 22ak uste duenez, kopuru bera bideratu behar da eta % 2,7ak gastu hori murriztu egin behar dela uste du. Antzera, % 75,6 zerga gehiago ordaintzeko prest egongo litzateke prestazio eta zerbitzu sozial gehiago jasotzearen truke, % 24,4 prestazio eta zerga gutxiago edukitzearen aldekoa den bitartean.

Euskadiko eta Espainia osoko datuak alderatzen baldin badira **ikus daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoan Zerbitzu Sozialetan gastu publikoa areagotzearen aldeko iritzia baxuagoa da, eta baita horiek finantzatu ahal izateko presio fiskala areagotzearen aldekoa ere**. Hori agian kapitulu honen hastapenean adierazitako babes sozialean gastu handiagoa egitearekin lotzen da. Badirudi aurretiaz aipatu den Gizarte Zerbitzu Publikoen sistema zabal eta normalizatuak baduela kontrapartida bat, alegia, biztanleak ez daudela ados —babes-eredu hain garatuak ez dituzten beste autonomia-erkidego batzuen aldean behintzat— arlo horretan gastua handiagotzen joatearekin.Edozein kasutan, nabarmendu behar da Zerbitzu Sozialei eusteko gastua eta presio fiskala areagotzearen aldeko pertsonek Euskadin, Estatu osoan gertatzen den bezala, gehiengo zabala osatzen dutela.

**81. GRAFIKOA**

## Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gastu sozialarekin lotutako neurriei buruzko iritziaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Era berean, aldeak ikusten dira alderdi horiei dagokienez integrazio-egoeran dauden pertsonen eta gizarte-bazterkeria egoeran daudenen artean, nahiz eta multzo bakoitzaren iritzia ez datorren bat aurrez adierazitakoarekin. Aldeak txikiak baldin badira ere, **hain zuzen bazterkeria-egoeran dauden multzoak dira Zerbitzu Sozialetara gaur egun bideratzen dena baino diru gutxiago bideratzearen alde agertzen direnak (% 4,3, integrazio-egoeran dauden multzoko % 2,4ko ehunekoaren aldean) eta horiek dira neurri handiago batean prestazio eta zerbitzu sozial gutxiago izatearen alde egingo luketenak, zerga gutxiago ordainduz (ehunekoa % 26,8koa da eta**

**integrazio-egoeran daudenen artean % 24koa).** Alde hori ere ikusten da Espainia osoari so eta errepikatu egiten da, etengabe, alderdi hau aztertzen duten ikerketetan **(16)**.

### 82. GRAFIKOA

### Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gastu sozialarekin lotutako neurriei buruzko iritziaren eta integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Horri dagokionez integrazio-egoeran dauden pertsonek eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonek duten iritzia, neurri handi batean, ez dator bat Administrazioari Zerbitzu Sozialetarako irisgarritasuna bermatzeko esleitzen dioten eginkizunari buruzkoarekin. **Bazterkeria-egoeran dauden familietan bizi diren pertsonek Herri Administrazioak Zerbitzu Sozialetarako irisgarritasuna herritar guztiei bermatu behar zaiela uste dute modu orokorragoan integrazio-egoeran dauden pertsonek baino (% 38,5 eta % 34,8 hurrenez hurren).** Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean aukera selektiboa ere orokorragoa bada ere (% 61,5ak Administrazioak zerbitzu horiek premia dagoenean soilik eskaini behar dituela uste du), iritzi horren aldekoak gutxiago dira multzo horretan integrazio-egoeran dauden pertsonekin (% 65) alderatuz. Aztertutako gainerako gizarte-eskubideetan gertatu moduan, Espainia osoari so egoera antzekoa da,

**(16)** 2012an Fernandez Albertos eta Manzanosek jadanik adierazten zutenez, baliabide ekonomiko gutxiago dituzten gizarte-taldeak birbanatzeko politiken alde hein handiago batean badaude ere (txiroen alde egin dezatela), ez dira Ongizate Estatu bat hedatzearen aldekoenak. Egile horien arabera, fenomeno horren balizko azalpen bat da Espainian Ongizate Estatuak birbanaketa urria duela eta, horrenbestez, ez dela baliabide ekonomiko gutxiago dituzten gizarte-taldeen mesedetan.

nahiz eta bi multzoen arteko aldeak ez diren horren nabarmenak eta aukera unibertsalistak, aztertutako multzoa edozein izanda ere, hedatuago dagoen.

2012an Fernandez Albertos eta Manzanosek jadanik adierazten zutenez, baliabide ekonomiko gutxiago dituzten gizarte-taldeak birbanatzeko politiken alde hein handiago batean badaude ere (txiroen alde egin dezatela), ez dira Ongizate Estatu bat hedatzearen aldekoenak. Egile horien arabera, fenomeno horren balizko azalpen bat da Espainian Ongizate Estatuak birbanaketa urria duela eta, horrenbestez, ez dela baliabide ekonomiko gutxiago dituzten gizarte-taldeen mesedetan.

**83. GRAFIKOA**

**Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, Herri Administrazioek eskubide sozialak bermatu beharraren inguruan duten pertzepzioaren arabera. 2018**




Iturria: EINSFOESSA 2018.

## 7.7. Haurren hazkuntzari lotutako eskubideak

Kapitulu honetan aztertzen ari garen “intentsitate txikiko” gizarte-eskubideen artean, haurren hazkuntzarako laguntzekin zerikusia dutenak gero eta protagonismo handiagoa eskuratu dute azken urteetan, hala eremu akademikoan nola eremu politiko eta sozialean. Horri dagokionez, epigrafe honetan, lehenik eta behin, lau urte bete aurretik eskolaratutako biztanleriaren ehunekoa aztertzen da eta, ondoren, seme-alabak dituzten pertsonek hazkuntzarako gehien eskatzen duten (edo eskatuko luketen) laguntza mota, hala Euskadin nola Espainia osoan. Era berean, integrazio-egoeran dauden pertsonen eta gizarte-

bazterkeria egoeran dauden pertsonen artean herri administrazioei haurren hazkuntzarako laguntza-zerbitzuen irisgarritasuna bultzatzeko esleitzen dieten eginkizunari dagokionez hautematen diren aldeak aztertzen dira.

Adierazitako lehen alderdiari helduz, lau urte bete aurretik eskolaratzeari buruzko datuak adinaren eta integrazio- eta bazterkeria-egoeren ikuspegitik banakatu dira, hala Euskadirako nola Espainiarako.

### 84. GRAFIKOA

### 4 urte bete aurretik eskolan hasitako Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, adin-multzoaren eta integrazio-mailaren arabera. 2018




Iturria: EINSFOESSA 2018.

Euskadin, bizntaleria osoan kontuan izaten bada, herritarren herena gutxi gorabehera lau urte bete aurretik eskolaratu zen, eta ehunekoak zertxbait handiagoak dira baztrkeria-egoeran dauden pertsonen artean. Pertsona gazteenen artean, lau urte bete aurretik eskolaratutakoen ehunekoa % 76,8koa da integrazio-egoeran den biztanleriaren artean eta % 81,6koa bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan.

Eskolaratze goiztiarrari dagozkion mailak eta ez eskolaratzea azaltzeko arrazoiak alde batera utziz, zer-nolako laguntzen gabezia nabaritu dute seme-alabak dituzten pertsonek horien hazkuntzari dagokionez? **Seme-alabak dituen edo izan dituen biztanleriaren % 20,5ak laguntza ekonomiko motaren**

**bat eskatzen du edo eskatuko luke, laguntza mota hori izanik gehien faltan bota dutena.** Horren ondotik hazkuntzarako familiaren laguntza (% 9,1) eta derrigorrezko hezkuntzari dagokionez eskolaren aldetiko babes handiagoa (% 3,6) kokatzen dira. Soilik % 3,4ak nabaritu du haur hezkuntzako ikastetxeetarako irisgarritasun errazagoaren falta. Halaber, garrantzitsua da adieraztea, edozein kasutan, **kontsulta bete duten pertsonen % 44,6ak ez duela adierazitako laguntzetako bakar bat ere faltan bota.** Espainian ehuneko hori % 41,2koa da eta, oro har, gehiago dira laguntza horietakoren bat faltan bota duten edo botatzen duten pertsonak, elkarrizketa egin dutenen artean.

### 35. TAULA

### Euskadiko eta Espainiako elkarrizketatutako biztanleriaren banaketa, seme-alaben hazkuntzarako babes edo laguntza motaren bat faltan bota duen edo botatzen duen kontuan izanik, edozein izanik ere seme-alaba horien egungo adina. 2018

| | Espainia | Euskadi |
|---|---|---|
| Ez dut ezer faltan bota | 41,2 | 44,6 |
| Laguntza ekonomikoa | 27,0 | 20,5 |
| Hazkuntzarako familiaren laguntza | 8,4 | 9,1 |
| Orientazioa seme-alaben hazkuntzan eta heziketan | 7,1 | 1,2 |
| Haur hezkuntzako ikastetxeetarako irisgarritasuna (0-2 urte) | 6,3 | 3,4 |
| Eskola-laguntza derrigorrezko hezkuntzan | 5,6 | 3,6 |
| Urritasun edo desgaitasunen bat duten haurrentzako laguntza | 1,8 | 1,7 |
| Ez dut seme-alabarik (aurrekoak baztertzen ditu) | 21,1 | 28,5 |

Iturria: EINSFOESSA 2018.

